

IRUZKINAK
ETA
GOGOETA TXIKIAK

X. Galarreta



© Marjinalia Bilduma
Lege-Gordailua: SS-0882/03

Haur-ipu in batentzako izan litekeen izenburu ederra: «Haurrak esna amets zegien». Ez dakit zergatik izango den, baina horrelako esaldi matematikoen aurrean bihotza kordokatzen zait.

«Crítica constructiva». Hiztegiak «konstruktibo» hitza dakar. Dena den, zergatik ezin dugu «eraiki-garri» hitza erabili? «Eraiki» aditzak soil-soilik balio ote digu euskaldunoi zementuzko eraiketak egiteko ala? Nire ustez, erdaraz antzeko ibilbidea egin du «construir» aditzak. Lehenik, «construcciones» edo eraiketa fisikoak (zementuz, zurez, adreiluz... eginak) izendatzeko sortu zen; eta hortik eraiketa metaforikoak (hitzez, ideiaz, sentimenduz... eginak) adieraztera igaro da. Eta euskaraz, zergatik ez? Eraiketa metaforikoak egiteko ezgauza gara, akaso...? Askotan topatzen dugu osakera fisikotik osakera metaforikora igaro diren hitzak. Eta horrelako kasuetan, ez dakit zergatik jo behar dugun beti erdarara; azken batean, erdararen hitz metaforikoa erabili beharrean, hobe genuke euskararena erabiliko bagenu.

Heroinomanoen artean drogra dohainik ez banatzea gizateriaren aurkako krimenezat jo beharko litzateke. Ez dago eskubiderik: gazteak, gure gazteak, arrazoi batengatik edo besterengatik, gaztaroko armiarmasarean galdu direnak, gaizkile bihurtu ditu Estatuak. Bai, Estatuak gaizkile bilakarazi ditu, gure gazte horietariko asko berez ez baitziren ez lapurrak ez hiltzaileak ez gaizkileak; drogaren hatzaparretan behin eroriz gero, ordea, ez dira euren borondatearen jabe izan; ezin izan dute saihestu jokatzeko duten bezala jokatzeko. Droga

behar dute eta kito. Ez dut esaten *kalean edo* droga dohainik banatzen hasi behar dugunik; osasun-arazoa dela baizik. Eta osasun-arazoa denez, Oskidetzak berak hartu beharko luke bere gain gaixo horien ardura. Eta lehenbiziko ardura izan behar luke txertatu-beharreko dosiak drogazaleen esku jartzea, lapurtu edota delitu egin beharrik gabe droga lor dezaten. Heroinomanoei eta euren familiei Estatuak eta gure gizarte berekoiak, oro har, ezarri dien *zigorra* dela eta, lotsa-lotsa eginda egon beharko luke ondo jaiotako edozein gizasemek.

Oskillasoren ustez, euskara galtzen bada, euskaldunberrien errua da hori. Tira, Justo Urdanga dakarrik gogora gizon honek (Justo Urdangaren «ideologia» barregarriaren arabera, mundua gaizki badabil, hori emakumeen erruagatik da). Bada, nire ustez, euskara pikotara joaten bada, Oskillasoren eta horren antzeko gizon bihotz-ahulekoen erruagatik izango da. Berariaz, Ostielak Oskillasori eginiko elkarrizketa antzeko horretan, zer dela-eta agertzen ziren paragraforik gehienak erdaraz? Beharbada, euskaldun guztion belarri gero eta finagoak batu behar zituen hizkuntza azkenik topatu zuelako: gaztelania alegia...? Oskillasok itzal handiko unibertsitate ikasketak burutu zituen, edozein tokitako edozein gizartetako ateak zabalduko zizkioketenak, hark berak hala nahi izan balu, behintzat... Uko egin zion horri ordea; zeren truke...? Ez nago oso ziur; beharbada... euskal idazlea izatearen truke...? euskara, euskal kultura eta Euskal Herria salbatu behar zituen euskal idazle goren eta txalotua izatearen truke...? Hala balitz, bere frustrazioak zementuak berak baino astunagoa eta lodiagoa izan behar zuen, euskal literaturan zeinen ahazturik egon zen ikusita. Frustrazioak gauza asko argitzen ditu; baita jarrera patologikoak ere. Justo Urdangak ere ederki daki hori. Edonola ere, bihotz-bihotzez diot hau: agur eta ohore zuri, Oskillaso. Eta, gora euskaldun zaharrak!

Oro har, «esaldiak» baino, «asmoak» itzuli behar dira. Bestela, itzultzailea beti ibiliko da hankamotz.

Afganistango gerra dela eta, gogoeta labur bat. Zein da gerraren benetako arrazoa? Erantzutea ez da erraza, ematen baitu gauzak nahiko korapilatuta daudela. Batzuek esplotazioa aipatzen dute; estatubatuarren eta europarren kolonialismoa; globalizazioaren eskutik zabaldutako mixeria. Ados. Horri aurre egitea ondo dago. Elkartasunean sinesten dugunok bat gatoz argudio horrekin. Baina... Ala-ren izenean, «gerra santuaren» izenean funtsatzen den borrokak ba ote du zentzurik? Batzuentzat bai, noski. Baina niretzat, zorionez, ez; bat ere ez. Herri musulman gehienetan mixeria gorrian bizi da herria; eta bien bitartean, herri horietxetako agintariak askotan pagotxa ederrean bizitzen... Erljioa opioa bezala ez ote dute erabiliko herri horietan, geronen herrian bertan behinola erabili zuten bezala?

Batzuetan, literatur itzulpenetan aurkitzen duan akats bat hauxe da. Demagun «X» itzultzaileak «A» egilearen nobela bat itzultzen duela; gero, itzultzaile berak «B», «C» eta «D» egileen beste liburu batzuk itzultzen ditu. Hortaz, «X» itzultzaileak lau egilearen liburuak jartzen ditu euskaraz. Demagun emaitza ona dela, gaur egun izan ohi den bezala. Dena den, badu «akats» txiki bat, nire ustez txit zabaldua dagoena: «A», «B», «C» eta «D» egileak euskaratu eta gero, laurak ia modu berean hitz egiten amaitu direla... Badirudi itzultzaileak hizkera estandar bat aurkitu duela, itzultzen dituen liburu guztietan sistematikoki aplikatzen duena. Hori, neurri batean, ondo dago itzulpen teknikoan (az-

kar itzuli behar da, jatorrizko testuak badaezdako esti-loan landuta daude —edota landu gabe daude— eta abar); baina literatur itzulpenari bestelako irizpidea aplikatu beharko genioke. Alde horretatik, espezializazioa izan liteke biderik onena (egile batengan espezializaturiko itzultzaileak alegia). Zoritxarrez, euskaldunok kopuruz gutxi gara, eta ziuraski gehiegitxo eskatzea litzateke.

Euskal Herrian ez gara guk uste bezain «kritikoak» edota irizpidedunak. Egia esan, taldearen premia daukagu, oro har. Eta behin taldetik urrunduz gero, ia ez gara ezer. Banaka existitzeak beldurra ematen digula esango nuke. Gure euskal bizitza sinbolismoz beteta dago (beharbada, errealitatea ordezkatu diguten sinbolismoz beteta). Egia da, hala ere, hori gabe aspalditik desagertuak egongo ginatkeela. «Eta orain zer?». Galdera ona, bai. Nik nahiko garbi daukat: bilatzen dudana (baldin-eta zerbait bilatzen badut) nire kasa aurkituko dut ala ez dut inoiz aurkituko. Gainera, sinbologiatan ibiltzen denak hipokresian erortzeko arrisku handia du —gezurrarekin antzik handiena daukana horixe da eta: hipokresia—; eta hortik zinismoan amiltzera, tarte txiki bat baino ez dago.

Batzuk azkarrak dira euskarazko lezioak ematen. Baina jar ezazu «buruargitsu» horietariko bat egunean zortzi bat orduz itzultzen, eta holaxe hamabi urtez. Gero, hamabi urte horien buruan jorra ditzagun bere testuak, bere itzulpenak. Emango diogu orduan geure zorrotzasunaren berri, nahi izanez gero! Okerrena, ordea, borondate txarreko euskaldunekin gertatzen da. Txuloak dira; izan ere, txulo linguistikoak ditugu barraskiloak bezain ugariak. Euskararen errealitatea bereztat harturik —eurak bakarrik izango bailiran euskal-

dun—, besteok zapaldu eta iraintzeko baino ez dira hizkuntzaz baliatzen, hizkuntzaren txuloputak direla frogatuz. Horrelakoak izengoitizaleak izan ohi dira; eta laster izengoitiz sinaturiko «literatur kritikaren» bultzatzaile amorratu bihurtuta ere ikusiko ditugu. Etxekalte malapartatu alaenak! Badakizue: lau katu izan eta ezin elkar jasan. Halaxe gertatzen da auzune kazkarretan (mediokritatea herri baten ezaugarri nagusi bilakatzen denean). Keria-mota guztiak antzematen dira tankera horretako «mafiosillo linguistikoengan».

Dorre bikien atentatua gertatu zenean, denok ikasi genuen lezioa uste dut hauxe izan zela: amerikarrek ere badakitela negar egiten. Hantxe ikusi genituen, akaso lehen aldiz, borreroak biktima bihurtuta. Nork ez zuen elkartasunik sentitu hegazkinetako eta dorre bikietako ehundaka, milaka herritarren heriotza zela eta? Hori baino gauza tamalgarriagorik! Dena den, zein da amerikarrek hortik atera duten lezioa? Palestina, Nikaragua, Txile, Vietnam, Kuba... Kanpo politika elkartasunean oinarrituko balute, diru zalekerian eta handikerian oinarritu beharrean...

«*Euskaraz liburu txar asko dago*» esateko esku-bidea daukan bakarra irakurlea da; euskal idazle batek ez luke sekula holakorik bota beharko, hauxe esatea baita: «*Euskaraz liburu txar asko dago; zorionez, hortxe daude nire liburuak...*». Gainera, *Pantxo Panzaren* moduko «*egia biribilak*» botatzen hasita, hobe gauzak diren bezala esatea: «*Euskaraz, ingelesez, gaztelaniaz, frantsesez, alemanieraz...liburu txar asko dago*». Eta irakurleari dagokion bezainbatean, norbaitek hauxe ere esan lezake: «*Euskaraz irakurle txar asko dago*». Dena den, kasu horretan ere ibiliko ginateke oker, nahiz eta nork bere golkorako horixe pentsatzeko eskubidea izan.

Jarrai dezagun aurreko gogoetari tiraka. «*Euskaraz liburu txar asko dago*» esaldiaren ordeztan, baliteke «*Euskaraz gogoko ez ditudan liburu asko dago*» esaldia egokiagoa edo izatea. Dena den, ez da komeni «matazatik» gehiegi tiratzea. Azken batean, «*euskaraz gogoko ez ditudan liburu asko dago*» esatetik «*euskal kultura eskaintzen didana ez dut oso gogoko*» esatera, urrats bat baino ez dago. Eta ildo horretatik jarraituz gero, azkenik hauxe esaten amai genezake: «*Ez dut gogoko euskalduna izatea*». Horregatik, nik nahiago dut beste hau esatea: «*Jende aldrebes, parte txarreko eta ahoberoa ez dut gogoko*». Euskalduna izateko ilusioa apurtzen didatelako.

Euskal Herria nazio bezala bihotzean daramagun sentimendua da. Eta sentimendu hori indartzen dugun heinean, Euskal Herria nazio bezala sendotu egiten dugu; aitzitik, sentimendu hori ahultzen dugun heinean, Euskal Herria nazio bezala ahuldu egiten dugu. Orain geure buruari egin behar diogun galdera hau da: zerk sendotzen duen eta zerk ahultzen duen Euskal Herria? Egia esan, ez zait asko inporta «nazio» kontzeptu pedante eta jasangaitza. Niretzat Euskal Herria nazioa baino gehiago dago. Ez da kontzeptu politiko ziztrin eta horteroa; sendi-mailako sentimendua baizik. Sendi-mailako sentimendu hutsa. Aurkariak euskaldunak izateagatik makilkatzen gaituztenean, euskal sentimendua —Euskal Herria— sendotu eta indartu egiten da; aldiz, euskaldunok aurkariak makilkatzen ditugunean, euskaldunak ez izateagatik, euskal sentimendua —Euskal Herria— ahuldu eta flakatu egiten dugu. Horregatik, euskal sentimendua ahuldu lezakeen ezer ez genuke inoiz egin behar izango. Indarrararen erabilera, izan ere, geure kalterako izan daitekeelako (euskal sentimendua ahul-

tzen duen heinean). Eta hori gertatzen denean, euskaldunok gelditzen gara noraezean, euskal sendia izateko gogorik gabe; espainiarrak, berriz, puztu eta indartsuago egiten ditu ahultze horrek.

Bestelako hitzez ere laburbil daiteke goiko paragrafoan aditzera eman dudana: euskalduna izateko, euskalduna naizela sentitzeko, gure zazpi probintzietako euskaldunei loturik nagoela ohartzeko, ez dut Euskal Nortasun Agiririk behar; bihotzak esaten baitit nor naizen. Aitortu behar dizuet kopetaraino nagoela ekintza sinbolikoetaz. Bihotz-bihotzean daramatzagun sentimenduak ez dira ez fantasia ez sinbologia, errealitate gordina baizik. Eta inongo administrazioak ezta inongo poliziak ere ezin didate bihotzetik erauzi nire bihotzaren tauparen zati dena... bihotza ez erauztera behintzat. Laburbilduz: utz dezagun sinbologia umeen jostagarri, eta has gaitezen euskal sentimendua lantzen, euskal sentimenduen baratzea baitugu sastrakak eta belar txarrek janda.

Euskararen egoera kazkarra euskaldunberriei aurpegiratzen dietenei erabateko boikota egiteko deia egiten diet bai euskaldun berriei bai —euren birtute eta euren akats guztiekin euskaldunberriak maite dituzten— euskaldun zaharrei. Gure herrian —eta berdin ere besteen herrietan— txulopotak soberan daudelako.

Sadomasokismoa: sexu perbertsioa, sexu dibertimendua...? Tira, zenbat buru, hainbat aburu. Edonola ere, nik ez dut sadomasokismoak kitzikatzen dituen pertsonen aurkako ezer, baldin-eta euren sadomasokismo hori fantasiara mugaturik badago. Esaterako,

pertsona batek fantasia sadomasokistak izan ditzake, eta hori berez ez da txarra. Beste pertsona batek bere fantasia errealitate bihur ditzake, eta azken kasu honetan kontuan hartu behar da horretarako gutxienez bi pertsona behar direla, eta beraz, kontuz ibili beharra dagoela hor... Baina, zer gertatzen den «tarteko bidea» aukeratzaren duten sadomadozaleekin? Esaterako, euren zale-tasunari bide emateko pornografiara jotzen dutenekin...? Ea hori, berez, *gaizki* al dagoen? Adin txikikoak badira, ba bai, noski. Hori delitua da eta kito. Bestalde, bideoan agertzen diren pertsoniak pertsona helduak badira eta «muga» jakin bat gainditzen ez badute, orduan ez dut uste gaitzesgarria izan behar denik (mundu guztiak halako fantasiak ulertu eta gozatzeri beharturik egon beharrik ez badago ere). Dena den, hurrengo galdera da: halako bideo batean parte hartzen duenak, zer dela eta egiten du? Nik uste dut diruagatik izango dela. Beraz, borondatez eta diruagatik egiten badu, ondo da. Baina, zer gertatzen da bideo horietariko batean parte hartzen dutenak drogazaleak, esaterako, badira; edota miseria gorrian dauden pertsonak badira? Ba, halako kasu batean, kontua ez litzateke bat ere garbia izango, drogazalea eta mixeria gorrian bizi den pertsona ez baita bere borondatearen jabe, eta beraz, bideo horretan parte hartzeri behartu egin zaie. Kontua da bideoan ikusten dena errealitatea dela, eta beraz, sadomadozalearen fantasia-tik errealitatera ihes egindako egintzat hartu beharreko irudiak direla.

Aurreko hitzen ildotik, beste gogoeta hau: sadomania eta abar jasotzen duten bideoak, aldizkariak e.a. ez dira inolaz ere debekatu behar; baina estatuak kontrol zorrotzak ezarri beharko lituzke «gehiegikeriak», «mafiosoen parte hartzea» eta «jarrera kriminalak» errotik ezabatzeke. Fantasia sadomasokistak «errealitate» bihurtzen dituzten filmak benetako filma-

gintzaren trukoeekin eta teknikeekin eginak balira, hainbat eta hobe («*O-ren Istoria*», kasu).

Patri Urkizuk Ibaizabalen argitara emandako «*Persiar Gutunak*», Montesquieu-ren obra ospetsua, inoiz irakurri ditudan itzulpenik onenetariko bat izan da. Egia esan, zinezko idazlea literatur itzulpen bati ekiten dionean, lanaren emaitza harrigarria izan daiteke. Edo bestelako hitzez esanda, idazlea beti idazle... baita itzul-tzean ere.¹

«*Arratsaldeko Atoiuntzia*», Yukio Mishima idazle japoniarrarena, Ibaizabal bildumako 41. alea. Euskaraz txukun idatzia (horren aurka ezer ez, beraz). Baina, liburuak aurrean jartzen digun amaieraren aurka... den-dena dut aurka. Zerbait gorroto badut, dohai-neko indarkeria, krudelkeria itsua da. Horretarako, ez du merezi bizitzea (eta beraz, ezta idaztea ere). Ez dut ondoegi ulertu egileak «nora» eraman nahi ninduen... Bere obran badago krudelkeriari buruzko halako diskurtso bat, amaiera anker eta ergel horretan zeharo leher-tzen dena... bat ere gogoko ez dudana. Gizon askearen topikoa dastatu nahi duenak hortxe ditu, esaterako, Conraden liburuak, edota Corto Maltesen mitoa. Mishima-ren obran, ordea, nik halako ukitu nazi bat usaintzen dut... Ez dakit, ba. Erabateko heldutasunik eza (ez protagonisten aldetik, zeren horiek haurrak dira eta; baina idazlearen beraren aldetik...). Edonola ere, liburuak merezi du. Baina... halako zapore txarra uzten dizu ahosabaietan... Egia da, bai, arreta handiagoa jarri behar zaiola bihotzari buruari baino, beti (bizitzeko nahiz idazteko); zer gertatzen da, ordea, bihotza lehor dagoe-nean...?

¹ Iritzi honen zama subjektiboa ikaragarria izan daiteke, hau da, sublimaturiko irakurraldi baten ondorio izan.

NBEak Palestinaren eta Israelen arteko gatazkan hartzen duen jarrera zinez oka egiteko modukoa da. Daukan morroi-espiritua inoiz baino nabarmenago jartzen da agerian gatazka horri loturik hartzen dituen — edo hobeto esan, hartzen ez dituen— erabakietan. Borrero isilak, bihotz oneko borreroak, horra zer diren nazioarteko erakunde babo horretako partehartzaileak. Horrela ez goaz inora; elkartasuna, benetako elkartasuna erakusten jakin gabe, beste mundu gerra bat da espero dezakegun gutzia.

Batzuek istorio on bat mesprezatzen dute eta hala ere nobelak, ipuinak, e.a. idazten dituzte. Prosa alegia. Nik hori ez dut ulertzen. Idazlearen begirada? Bai, hori liburuaren arimaren %50 da; baina, zertarako balio du idazlearen begiradak istorio on batean oinarrituta ez badago? Bestalde, zer ulertzen dugu «istorio» on batez? liburuaren «gaiari», «gidoiari» gagozkie? Ez, istorio on bat hori baino gehiago da: liburuaren garapena, estrukturazioa, estiloa eta hizkuntza ereduak, gidoia sortzean idazleak berak erakutsitako irudimena, eta nola ez, idazlearen beraren «begirada». Baina, kontuz, ez ditzagun gauzak nahas: literatura eta arte plastikoak desberdinak dira, bakoitzak bere teknika propioa dauka, eta ez dago gauzak bere errotik zertan atera (zeren idazlearen «begirada» horretan badago halako asmo berezi bat —edo egon daiteke, behintzat—... eta ez dakit nik zergatik izango den baina hurbilago dakusat arte plastikoetatik literaturatik baino). Itxura «absurdua» duen literatura-mota bat, argudio «klasiko» edo hemeretzigarren mendeko eredutik ihes egiten duena? Bueno, bai, XX. mendean denok lortu nahi genukeena. «Rayuela», «Aleph», «Voyage au bout de la nuit» estiloko literatura-mota bat. Jakina. Baina, nork egiten du euskaraz

literatura hori? Istoriarik bilatzen ez duenak egiten al du? Unibertsalari berriro ere helduz, Bucowsky-ren liburu guztiak ez al daude istorioz eta istorio horietan islaturiko begiradaz beterik? Istorioak gainezka dakartzaten eredu behar-beharrezkoak dira; eta horiek ikusten ez dituenak, itsu dago. Beti apaltasun falta hori, euskal idazleoi horren sarritan eta generikoki azaleratzen zaiguna. Denok esaten, «gaitzerdi euskal itzultzaileon ekarpena hortxe daukagun, bestela ez genuke jakingo euskaraz zer irakurri». Estiloko lana, zaborra batzuentzat. Urte luzeetako lanaren emaitza diren lanak kaxoitik ateratzeko ausartasuna, «txapuzak» beste batzuentzat. Kontua da besteen gainetik eta aurretik nor bere burua jartzea; nor bere lana hiperbaloratzea eta gainerakoena zentzugabekeriak gutxiestea. Eta kasurik hobereanean, alde aurretiko justifikazioak prestatu: «Nik gutxi eta ondo idazten dut (gutxi argitaratzeak *berme* hitzaren sinonimoa balitz bezala)»; «nik gogor irabazten dut soldata, baina literaturatik kanpo, e! (soldata literatura idatziz irabaztea lotsagarria-edo balitz bezala)»; eta horrelako hamaika adibide, euskal idazlearen gero eta ahultasun handiagoa eta euskara eta euskarazko lanak maite dituztenen arteko elkartasun gero eta txikiagoa begi-bistan jartzen dizkigutenak (zeren, salmenta jakinak lortzeko premiak akuilaturik —argitaletxeko atearak itxita ez aurkitzearen—, enpresa editorialaren motor gisa gerora jardungo duen taldean babesa bilatzen amaitu beharra dauka idazleak, enpresa horretxan «dinamika», «balio», «etekin» eta «helburu ekonomiko» bilakatuz). Niretzat, ordea, askoz errazagoa da esatea: «Hauxe da nire bidea; eta norbaitentzat baliagarria ez bada, tira... ez da ezer gertatzen». Urtean 1.000 izenburutik gora argitaratzen ditugu. Irakurle bakoitzak bere aukera egitea dauka. Idazle batek ez du zertan bat etorri munduko irakurle guztiekin (hori desiratzea, berez, seinale txarra da-ta). Ni ere irakurlea naiz; eta irakurle eta idazle euskaldun askori bezala, batzuetan, plazer handiagoa kausitzen dut itzulpenaren eskaintzan bertoko eskaintzan baino. Denok hitz egin genezake txapuzei

buruz, liburua —bere balioa— erabat subjektiboa den unetik, eta horretxegatik hain zuzen ametitzen ditu apreziaziorik desberdinenak (irakurle adinako apreziazio). Baina kontuz, gero: egun osoan gaizki esaka eta maiseoan aritzearen poderioz, ea amaitzen dugun euskaraz irakurri eta euskaraz bizitzeko gogorik gabe... Hori bai litzatekeela kristoren txapuz.

Lourdes Oñederrak dio (Euskaldunon Egunkaria, 2002ko maiatzaren 24a): [...] *Euskal irakurle gehienok ez gara arruntak. Arruntek itzulpenetara jotzen dute. Zeren euskarak lana ematen du, hiztegiara jo behar izaten dugu maizegi[...]*. Orduan, itzulpenak berez ez du lanik ematen eta itzultzaileak ez du hiztegiara maiz jo behar...? Ba nik esango nuke alderantziz, hain zuzen, gertatzen dela. Idazleak, ona bada, tripekin idatziko du eta ondorioz ez du hiztegiara maizegi jo beharko. Hiztegiara maizegi jotzen badu, seinale txarra (agerian gertatzen baita inspirazio gutxiko idazlea dela). Itzultzailea, ordea, hiztegiari kateaturik dago. Hark bai daukala hiztegiaren beharra, premia. Dena den, uste dut Oñederra ulertzen dudala; bere asmoa alegia: «*romper una lanza a favor del euskara*», hau da, euskararen aldeko pregoia aldarrikatu² nahi izan du. Ez genukeela geurea gutxietsi behar; bertoko literaturak berezko bidea daukala; eta azken batean, herri bezala daukagun patuari ezinbestez loturik dagoela. Egia esan, denok gaude euskal patuari lotuta: euskaldunok, euskal irakurleak, euskal literatura... Denok. Bilatzen duenak aurkitzen du. Arrazoi bat, kasurik apalenean; estetika bat, kasurik hoberenean. Hizkuntzak fenomeno estetikoak dira; baita literatura ere (hizkuntzaz egina dagoenez gero). Hala ere, komunikazioa ez da baztertu behar. Liburu batean, estetika ez ezik, komunikazioa ere aurkitu beharra daukagu. Eta komunikazio-maila izan daiteke oso altua, oso txikia...

² «romper una lanza por» erdal esaera «-ren alde egin» edota «puja berde eder bat bota» ere esan daiteke euskaraz.

Berdin estetika mailarekin: idazle handiak estetika maila handia sortuko du, eta abar. Baina, batez ere, komunikazioa eta estetika uztartzen dakiena izango da gure arteko «idazlerik onena». Barka, erabil dezagun plurala: «idazlerik onenaK», zeren zeinen aspergarria izango litzatekeen literatura izen-abizen bakan batzuetara mugaturik egongo balitz (horrek argitaletxeei etekin handiak emango balizkie ere).

«Txiliku»k diosku: *«Ez da beti oso erraza samurtasunaren eta kurtsileriaren arteko muga hori ondo bereiztea»*. Eta adibide modura, bi poema jartzen dizkigu, bata Rosalia de Castrorena eta bestea Uxío Novoneyrena. Bigarrena transkribatzen dizuet:

Cain as follas.
Sinto unha cousa
que se apousa en min e no me toca.
Chove para que eu soñe.
Falla a tarde baixinho
i o corazón sínteo.
Cain as follas
i é unha cousa
que se apousa en min
e no me toca...

Uxío Novoneyra.

«Txiliku»k honelako itzulpena egin digu: *«Hostoak erortzen ari dira, nire barnea pausatzen den eta ukitzen ez nauen zerbait sumatzen dut. Euria ari du nik amets egin dezadan. Arratsaldeak ahapeka hitz egiten du eta bihotzean antzematen dut. Hostoak erortzen ari dira, nire barnean pausatzen den eta ukitzen ez nauen zerbait sutatzen dut...»*. Eta ondoren, galde egin digu: *«Zilegi al da, eleberri edo ipuin batean eta euskaldun baten ezpainetan horrelako zerbait jartzea?»*

Ez dakit «Txiliku»ren ideia ondo ulertu dudana, baina aditzera eman diguna da, hain zuzen, niri zilegi iruditzen ez zaidana. Nola aldera daitezkeen bi testu horiek, maila eta kategoria berekoak izango balira bezala?

Uxio Novoneyra-ren poema horixe da, poesia alegia. Baina «Txiliku»rena, ordea, inongo musikaltasunik ez daukan testua baino ez da, prosa hutsa alegia. Uxioren poemak **190** karaktere ditu; «Txiliku»renak, berriz, **297!**

Kategoria bereko gauzak aldera daitezke; baina kategoria desberdinekoak ez, noski. *Nortzuek egiten dute hegan hobeto: oiloek ala arranoek?* Ez du taiurik, ezta? Ba horixe da «Txiliku»ren iruzki horretaz pentsatzen dudana, ez duela taiurik alegia.

«Txiliku»k 190 karaktereko itzulpena egin izan balu, jatorrizko testuaren musikaltasuna hitzez hitz gordez, agian orduan aintzat hartuko nukeen haren iruzkina...

Koldo Zuazok «Euskararen sendabelarrak» liburuan ondo dioenez, euskalkiak ez dira nahastu behar. Hori oso garbi azaltzen zaigu honako adibide honetan: «*Nik uste det onena emon biar dogula*». Tira, oka egiteko moduko esaldia da, bistan denez. Adizkerak (det, dogu, deraut...) edota oso markatuak diren aditzak eta izenak (emon, jin, erdu...) nahastean, garbi dago irudi ezin pobregoa ematen dugula. Dena den, hitz arruntak nahastea —nahiz erabilera urrikoak izan— ez zait iruditzen horren larria, batez ere gaurko euskarak daukan zabalkunde handia kontuan hartuta. Ondoan zerrendatzen ditudan hitzak, esaterako, ez al dira denak euskara batuan erabiltzekoak, elkarrekin nahasita ere?: antzera - modura - gisara // iritzi - uste - aburu - iduri // bezala - legez // ni neu - neroni // erraz - aise // beraz - hortaz - hala bada // hau da - hots - alegia // biloa - ilea // zorte - adur - zori // hitz - berba - ele // behintzat - bederen // begiratu - so egin // bultzatu - bulkatu - bultz egin // lapurto - ostu - ebatsi... Askoz hitz gehiago aipa genitzake, euskaraz ehundaka liburu irakurri eta gero saski berean sar litezkeenak (hitz sinonimoen saskian alegia). Izan ere, gaur egun euskarak daukan zabaltze maila ikaragarria da (telebista, egunkariak, idazkintza, eskola, kalea...) eta horrek han-hemengo hitzak batzera garamatza ia-ia oharkabeen. Bai, badakit «aburu», «iduri» «bederen» «hots» «biloa» «adur» «aise» «berba» «ele» «so egin» «ebatsi» hitzek euren izenkideek baino erabilera murriztagoa dutela, baina horrek ez du esan nahi euskalkira mugatu behar direnik edota «zorte» hitza erabiltzen duenak «adur» eta «zori» hitzak nahasian erabili ezingo dituenik. Nik hor ikusten dut hitz sinonimoen bidea bikain lantzeko modua eta aukera, erdaraz gertatzen den bezala: robar - hurtar - sustraer // opinión - jucio - parecer // fácil - sencillo // suerte - ventura - fortuna // palabra - término - vocablo - voz // pelo - cabello // mirar - atisbar - observar - guipar // empujar - impulsar - impeler - incitar - animar // como - según -

que - a manera de // al menos - por lo menos - cuando menos - siquiera // por tanto - por consiguiente - así pues // es decir - esto es // ... Noski, hitzak erabiltzen jakin beharra dago, «lapurtu - ebatsi» euskaraz eta «robar - sustraer» erdaraz, hitz sinonimoak dira, baina ba-koitzak bere eremua dauka, bai hizkuntza batean bai bestean (lagun arteko hizketan, erdaraz «me han sustraido la cartera» esatea, pedantea da; baina erdal telebistako esatariak «Han sustraido cuatro coches de un concesionario» esatea, egokia da). Eta euskaraz ere, berdin.

Literaturaren alderdi bat bereziki interesatu zait betidanik: hunkimena. Bai, irakurlea hunkitzeko gaitasuna alegia. Esaterako, har ezazue Vivaldiren «*Concerto Grosso Op.3, N° 10 h-moll / in B minor*» delakoaren «*Allegro molto*». Horrek hunkitzen ez duena ez dut uste beste ezerk hunkituko duenik. Baina, tira. Nork bere sentiberatasuna dauka, dudarik ez. Bueno, ba, horixe da askotan nire literaturarekin lortzen saiatu naizena. «*Itasargiko Misterioa*», «*Kosmogonia*», «*olerki anonimoak*... Egin dudan guztia hunkipen hori lortu nahian egin dudala uste dut. Beharbada lortu dut, beharbada ez; beharbada neurri batean lortu dut, beharbada ezta neurri batean ere. Ez dakit. Eta seguraski ez dut inoiz jakingo. Hori da onena, ezetz?

Donostialdean bizi naizenez, ohituta nago bideko seinaleak euskaraz eta erdaraz ikustera. Eta zentzu horretan, erdarazko mezuak apropos ezabatuta ikustera ere ohitzen hasia naiz. Edo hobeto esanda, etsitzen hasia naiz. Ez baiteritzot ongi horrela jokatzeari. Nire ustez, euskaraz eta erdaraz txukun idatzita dauden seinaleak (edota jendaurreko kartelak, mezuak, oharrak, kale ize-nak, e.a.) zorrotz errespetatu beharko genituzke. Beste

kontu bat da erdara hutsean dagoen seinalea edota euskara gaiztoan idatzitakoa kendu edota ezabatzea. Kasu horretan, ondo iruditzen zait eta. Nafarroan eta Iparraldean, esaterako, erakundeek ez diote euskarari ematen zor zaion errespetua, hau da, euskara apropos ezabatzen dute bideko eta kaleko seinale eta kartel guztietatik. Nafarroako kasua zinez larria da. Zeren, azken batean, herritar batek bere kabuz ezabatzen badu seinale elebidun baten mezua, ba, garbi dago hori gaizki dagoela; baina are okerrago dago gobernu batek hizkuntzetariko bat sistematikoki isilarazteko politika bultzatzea, non-eta gobernuko estamentuetatik bertatik! Hori bai dela arbuiagarria. Edonola ere, bakoitzari berea, zer arraio...

Lourdes Oñederraren «*Eta emakumeari sugeak esan zion*» liburuan harritu zait eskriturari darion *bakardadea*, hau da, *bakardade sentimentua* edo *sentsazioa* zeinen garbi helarazita dagoen eskrituraren beraren bitartez. Gogora ekarri dit Kunderaren «*La broma*» kondaketak eragin zidan *erabateko seriotasun sentsazioa*, eskrituran bertan atzemateko modukoa (bi sentsazio desberdin, batean zein bestean islatuak).

Saizarbitoriaren eskola atzematea ere iruditu zait zenbait deskribapenetan, halakoak zorionez neurritz agertzen badira ere. Zeren ez dut uste idazlearen begirada objektuetan gehiegi luzatu behar denik. Horrek kontakeraren erritmoa astundu baino ez du egiten. Kontatzeko modu bat da, dudarik ez. Eta errespetatzen dut modu hori, batez ere ikusita nolako arrakasta daukan irakurle multzo handi baten aldetik. Baina bide hori ez dut asko maite, ez euskaraz ez erdaraz. Istorioaren kalterako delako. Eta liburu guztietan egon behar duelako nobela osoa egituratuko duen istorioren batek. Alde horretatik, nahiago dut 130 orrialdeko nobela arina (deskribapen astunei bidea mozten dakiena) 400 orrialdekoa baino (soberan dagoenari bizkar ematen ez daki-

ena). Oñederrak bere liburuan jakin du harira etortzen. Eta gu, irakurleok, berehala harrapatu gaitu. Hortik aurrera, misterioa hasten da (liburu guztien misterioa).

Esaldien lakonismoa, euskal liburu askoren ardatza... Ez da ona lakonismo horretaz sarritan baliatzea...Esaldi laburrak ondo daude elkarrizketetarako, antzerkirako, bakarriketarako...Kasu bereziak ere badira. Esaterako, Albert Camus-en «*Arrotza*» liburua (batez ere lehen zatia, zeren bigarren zatian prosak bestelako itxura hartzen du; indartsuago azaltzen da). Bai, goi mailako prosak zerbait erakutsi behar badu, indarra da. Indarra.

«*Hezurrezko xirulak*» Sarrionandiaren poema liburua irakurtzen hasi eta berehala otu zait zera: gizon honek inspirazioa, asmamena daukala. Irakurtzen jarraitu eta handik gutxira, berehala konturatu naiz poema bilduma honen sortzailea ez-baizik moldatzailea (edo itzultzailea, eufemismorik gabe esateko) dela. Liburu polita da, zalantzarik gabe; Sarrionandiaren sentiberatasuna, kultura eta gustuak oro har ezagutzeko aukera emateaz gain, beste hizkuntza batzuetako testuak euskaraz irakurtzeko aukera ere ematen diguna. Dena den, uste dut ez dagoela ondo aurkeztuta. Ez zaio argi eta garbi esaten irakurleari zer-nolako liburuaren aurrean dagoen. Nahasketarako bidea ematen du. Izan ere, liburua badirudi Sarrionandiak berak sortua dela; euskaratu baino egin ez badu ere. Akats hau ez da egilearena, noski; argialetxearena baizik.

Liburu gutxi uzten ditut bertan behera amaitu gabe. Baina «*Bihotz bi*» izan da liburu horietariko bat.

Irakurketa *nekosoa* izan zen. Istorioak ez zeukan, nire ustez, ez gatzik ez piperrik. Areago, protagonistak adar kontuagatik bere bizilaguna hiltzea erabakitzen duenean, planteamendu hipertopiko horretan agertzen duen infantilismoa agerikoa da. Umekeria hutsa. Gainera, eleberriak ez dauka ez erritmorik ez *alaitasunik* (paisiaz gozatu gabe mendian gora igotzea bezala —hau da, mendi-, tontor-bilketa huts bat—). Ez, niri literatura-mota horrek ez dit ezer esaten; literatur espiritu horrek ez nau inora eramaten. Egia esan, ate bakarra baino ez du irekitzen: militantzia linguistikoarena. Eta nik ez dut irakurtzeagatik irakurri nahi. Nik gozatzeagatik, plazer hutsagatik irakurri nahi dut. Liburu bati eskatzen diodan gauza bakarra da lepotik niri heldu eta lehen orritik azkeneraino berekin eramatea. Hori da Saizarbitoriaren liburuak nirekin sekula lortu ez dutena. Dena den, haren mundua pixka bat ezagutzen dut: «*Ehun Metro*», «*Ehun Pauso*», «*Bihotz Bi*», «*Ene Jesus*»... Eta oraindik iritsiko naiz idazle horretaz beste zerbait ezagutzera. Zeren, haren estiloarekin bat ez banator ere eta haren jarraitzaile sutsuetariko bat izatera inoiz iritsiko ez banaiz ere, onartzen dut, hala ere, berriro saiatzera bultzatzen nauen *zerbait* dagoela Saizarbitoriaren liburuetan.

Aldiz, Joan Mari Irigoienen liburuekin ez zait gauza bera gertatzen, hain garbi behintzat ez. «*Letra txikiaz bada ere*» irakurri dut eta zenbait momentutan gustatu zait. Oro har, liburuak ez dit oso inpresio txarrik utzi. Baina prosaz idatzi duen obrak, ezagutzen dudanak behintzat, Saizarbitoriarenak baino gutxiago erakartzen nau. «*Consummatum Est*», «*Udazkenaren Balkoitik*», «*Poliedroaren Hostoak*», «*Kalamidadeen Liburuak*»... Niretzat liburu hitsak dira. Ez dute nigan utzi autoreak ezagutzen jarraitzeko gogo handirik. «*Letra txikiaz bada ere*» liburuaren tonu poetikoak, berriz, interesa piztu dit, neurri batean. Saizarbitoriaren munduak halako konplikazioa daukan bitartean, Irigoienen mundu literarioare-

kin ez da berdin gertatzen, amarrugabea baita, alde horretatik.

«*Ostiela*»ren azken zenbakia (2002ko uda) jaso dut —genero erotiko-pornografikoari goitik behera eskainita datorrena—. Eskertzekoa izan da, oraingoan kartazal baten barruan sartzeko molestia hartu izana. Begirada bat bota diot. Egia esateko, egin nezakeen onena zen, zentzumenen inperiora gehien-bat zuzenduriko irudi eta argazki mota guztien ugaritasuna ikusita. Baina ia ez dut ezer irakurri. Ez dut inoiz oso gogoko izan erotismoa edota pornografia irakurtzea. Ez puritanismoagatik edo antzeko arrazoiengatik, ez. Irakurketa —liburuen edukia oro har— pertsonaren alderik intelektualenari zuzenduta dagoela pentsatu dut beti, hau da, irakurlearen alderik adimentsuena du helburu. Erotismoa eta pornografia, aldiz, kontrako norabidean doaz, hau da, zentzumenetara iristen saiatzen dira. Baina hortxe hain zuzen ez dute irudiek (zinemak) lehiakiderik; idatzizko adierazpidea ez da biderik onena (eta are gutxiago gure mendean —komunikabideen, zinemaren, telebistaren, zinekluben mendean—) zentzumenak zirikatzeke orduan. Hizkuntza idatziak adimena zirikatu behar du; eta hizkuntza bisualak, zentzumenak. Hori da oinarria. Gero, hortik aurrera, bien halako nahasketa bat egon daiteke (eta, izan ere, badago), baina beti ere proportzio egokien arabera. Edonola ere, noizean behin kanpaitxo jotzea ez datorkigu gaizki (tentsioak arindu, begitartea alaitu eta bizitzearen plazerra pizten ditu eta).

Afganistanen ezkontza bat ospatzen ari ziren ehun eta berrogeita hamar pertsona inguru hil dituzte Estatu Batuetako gerra-hegazkinek. Ezkontza bat ospatzen ari zirela, Estatu Batuetako gerra-hegazkinak agertu eta 150 pertsona hil dituzte (auskalo zaurituak

zenbat izan diren). Gero, telebistan agertu dira euren buruak zuritzen: *hanka-sartze penagarria izan da; sentitzen dugu; gure doluminik bizenak hildakoen senitartekoei*. Sarraskitzaile aluak! Eta Europa, bien bitartean, ipurdia jartzen, beti bezala. Gauza batzuetarako zeinen «gay» diren gure agintari atzerakoiak.

«*Nerabearen Biluzia*» Xabier Mendiguren Elizegik idatzitako azken liburuetarikoari buruz soil-soilik esan dezaket liburuak «biluztasun» handiko inpresioa egin didala. Ez dakit, beti pentsatu dut biografia bat idazteko bi arrazoietariko baten bat —edota biak— izan behar dituela egileak: ohiko ardatzetik edo egunerokotasunetik kanpo dauden egitateak kontatzea, edo bestela, errealitate jakin bat erretratatzea, ezohiko ikuspegi bat erabiliz. Nire iritziz, azkena da Mendigurenek egin nahi izan duena. Baina lortu gabe. Liburu txepela da; helarazi, gogora ekarri nahi duen errealitate horren gaineko ikuspegi erakargarririk ez baitu gauzatzea lortu. Irakurketa bukatutakoan, hartu dudan inpresioa hauxe da: norbaitek begi-aurrean egitate-zerrenda bat jarri izan balit bezala (*zinemara joan ginen, gero hondartzara eta azkenik afari eder bat egitera. Eta afaltzeko ez dakit zer atera ziguten eta txanpaina edan genuen eta apur bat mozkortu ginen eta...*). Ez, ez da eskola garaiko maisu-erretratu horietakorik. Ezta pentsatu ere. Eta gogora ekartzen dituen egitate eta bizipenei dagokienez, erabat arruntak iruditu zaizkit... Zer du liburu honek bere alde, orduan? Ba, bere euskara. Xabier Mendiguren Elizegiren euskara. Baina, euskal irakurle ona naizen aldetik preziatzen dakidan hizkuntz lekukotasun horretaz gain, ez dut uste liburu honek askoz gehiago eskaintzen duenik.

Hauetxek dituzue 2002ko uztailetik abendura bitartean ikusi ditudan filmak. Bikain puntuazioa eman behar zaio, alde horretatik, "Vía Digital"-en "Cinematik" kanalari (film guztiak Cinematk-en ikusi ez baditut ere):

1. Amores Perros (Zuzend.: A.G. Iñarritu, 2000)
2. Box of moonlight (V.O.S. Zuzend.: T. Dicillo, 1996)
3. American Beauty (Zuzend.: S. Mendes, 2000)
4. Barry Lyndon (V.O.S. Zuzend.: Stanley Kubrick, 1975)
5. Amor y rabia (V.O.S. Zuzend.: Bertolucci / Passolini / Godard / Bellocchio / Lizzani, 1969)
6. Amelie (Zuzend.: Jean-Pierre Jeunet, 2001)
7. American History X (Zuzend.: T. Kaye, 1999)
8. Eyes Wide Shut (Zuzend.: Stanley Kubrick, 1999)
9. Husbands and Wives (V.O.S. Zuzend.: W. Allen, 1992)
10. En construcción (Zuzend.: J.L. Guerín)
11. Estación Termini (V.O.S. Zuzend.: Vittorio de Sica, 1953)
12. El sueño de una noche de verano
13. Nathalie, el amor despierta (V.O.S. Zuzend.: P. Chevalier, 1968)
14. Solas (Zuzend.: B. Zambrano, 1999)
15. Robin y Marian (V.O.S. Zuzend.: R. Lester, 1976)
16. La letra escarlata (Zuzend.: W. Wenders, 1972)
17. Perversiones de mujer (V.O.S. Zuzend.: S. Streitfeld, 1996)
18. El día de la lechuza (V.O.S. Zuzend.: D. Daminai, 1968)
19. Intimidación (Zuzend.: P. Chéreau, 2001)
20. Vidas cruzadas (V.O.S. Zuzend.: R. Altman, 1993)
21. El dilema
22. La maldición del escorpión de jade (Zuzend.: Woody Allen, 2001)
23. Granujas de medio pelo (Zuzend.: Woody Allen)
24. Cachitos picantes (Zuzend.: Alfonso Arau -Woody Allen-, 2001)

25. Lautrec (R. Planchon, 1998)
26. La propietaria (V.O.S. Zuzend.: Ismail Merchant, 1996)
27. Investigación sobre un ciudadano libre de toda sospecha (V.O.S. Zuzend.: E. Petri, 1970).
28. Poderosa afroditá (Zuzend.: Woody Allen)
29. Vidocq (Zuzend.: Pitof, 2001)
30. Misterioso asesinato en Manhattan (Zuzend.: Woody Allen, 1993)
31. Underground (Zuzend.: Emir Kusturica)
32. Los idiotas (Zuzend.: L.V. Trier, 1998)
33. Celebrity (Zuzend.: Woody Allen)
34. El hombre vestido de blanco (V.O.S. Zuzend.: A. Mackendrick, 1951)
35. French Connection 2 (V.O.S. Zuzend.: J. Frankheimer, 1975)
36. The Jar (V.O.S. Zuzend.: E. Forouzesh, 1992)
37. Todos dicen I love you (Zuzend.: Woody Allen, 1996)
38. Cube (Zuzend.: V. Natali, 1998)
39. Very important perros (Zuzend.: C. Ghest, 2000)
40. El club de la lucha (Zuzend.: David Fincher, 1999)
41. Clerks (Zuzend.: K. Smith)
42. Chocolat (Zuzend.: L. Hallstrom, 2001)
43. La Posesión (V.O.S. Zuzend.: A. Zulawski, 1981)
44. Las damas del bosque de Bolonia (V.O.S. Zuzend.: R. Bresson, 1945)
45. Maborosi (V.O.S. Zuzend.: H. Koreeda, 1995)
46. Bedazzled (V.O.S. Zuzend.: S. Donen, 1968)
47. Reflexiones desde el sótano (V.O.S. Zuzend.: G. Alan Malkow, 1995)
48. El inspector General (Zuzend.: H. Koster, 1949)
49. La pianista (Zuzend.: M. Haneke, 2001)
50. Desmontando a Harry (Zuzend.: Woody Allen)
51. Allonsanfan (V.O.S. Zuzend.: P. y V. Taviani, 1973)
52. Tres estaciones (Zuzend.: Tony Bui, 1999)
53. Vuelve a la tienda de baratijas, Jimmy Dean (V.O.S. Zuzend.: R. Altman, 1982)

54. Midnight (V.O.S. Zuzend.: W. Salles / D. Thomas, 1998)
55. El quimérico inquilino (V.O.S. Zuzend.: Roman Polanski, 1976)
56. El quinteto de la muerte (V.O.S. Zuzend.: A. Mac-kendrick, 1995)
57. 200 cigarettes (V.O.S. Zuzend.: R. Bramon Garcia, 1998)
58. Las aventuras de Priscila, reina del desierto (V.O.S. Zuzend.: S. Elliott, 1994)
59. Enemigo a las puertas
60. The camionet (V.O.S. Zuzend.: S. Frears, 1996)
61. La rosa púrpura del Cairo (V.O.S. Zuzend.: Woody Allen, 1985)
62. Hannah y sus hermanas (V.O.S. Zuzend.: Woody Allen, 1986)
63. The book of life (V.O.S. Zuzend.: Hal Hartley, 1998)
64. El agujero (V.O.S. Zuzend.: Tsai Ming-Liang, 1997)
65. The addiction (V.O.S. Zuzend.: Abel Ferrara, 1995)
66. Les sanguinaires (V.O.S. Zuzend.: Laurent Cantet, 1997)
67. White dog (V.O.S. Zuzend.: Samuel Fuller, 1982)
68. Ran (V.O.S. Zuzend.: Akira Kurosawa, 1985)
69. King Lear (V.O.S. Zuzend.: Jean-Luc Godard, 1988)
70. Conte d'hiver (V.O.S. Zuzend.: Eric Rohmer, 1991)
71. L'ami de mon amie (V.O.S. Zuzend.: Eric Rohmer, 1987)
72. Conte de printemps (V.O.S. Zuzend.: Eric Rohmer, 1989)
73. The serpent's egg (V.O.S. Zuzend.: Ingmar Bergman, 1977)
74. Histoires Extraordinaires (V.O.S. Zuzend.: F. Fellini / L. Malle / R. Madim, 1968)
75. The 3d voice (V.O.S. Zuzend.: Hubert Cornfield, 1960)

76. Les parents terribles (V.O.S. Zuzend.: Jean Cocteau, 1948)
77. Killer's kiss (V.O.S. Zuzend.: Stanley Kubrick, 1955)
78. The killing (V.O.S. Zuzend.: Stanley Kubrick, 1956)
79. Les mille et une recettes du cuisinier amoureux (V.O.S. Zuzend.: Nana Djordjadze, 1996)
80. Chicago Cab (V.O.S. Zuzend.: J. Tintori / M. Cybulski, 1997)
81. Night and the City (V.O.S. Zuzend.: Irwin Winkler, 1992)
82. Broadway Danny Rose (V.O.S. Zuzend.: Woody Allen, 1984)
83. China Girl (V.O.S. Zuzend.: Abel Ferrara, 1987)
84. El Padre (V.O.S. Zuzend.: Majid Majidi, 1996)
85. El Cuarteto (V.O.S. Zuzend.: Fábilo Barreto, 1995)
86. The Rocky Horror Picture Show (V.O.S. Zuzend.: Jim Sharman, 1975)
87. El sueño de Arizona (V.O.S. Zuzend.: Emir Kusturica, 1993)
88. Un certo giorno (V.O.S. Zuzend.: E. Olmi, 1968)
89. Il Sospetto (V.O.S., F. Maselli, 1974)
90. El escándalo de Larry Flynt (Zuzend.: Milos Forman, 1996)
91. Un héros très discret (V.O.S. Zuzend.: J. Audiard, 1996)
92. He Liu / El Río (V.O.S. Zuzend.: Tsain Ming Liang, 1997)
93. A scene at the sea (V.O.S. Zuzend.: Takeshi Kitano, 1992)
94. La otra América (V.O.S. Zuzend.: G. Paskaljevic, 1995)
95. Cuatro páginas de la vida (V.O.S.: H. Hathawa / H. Hawks, H. King / H. Coster / J. Negulesco, 1952)
96. Lilith (V.O.S. Zuzend.: R. Rossen, 1964)
97. Zelig (V.O.S. Zuzend.: Woody Allen, 1983)
98. Georgia (V.O.S. Zuzend.: U. Grosbard, 1995)

99. La dama de Shanghai (V.O.S. Zuzend.: Orson Welles, 1948)
100. Los duelistas (V.O.S. Zuzend.: R. Scott, 1977)
101. Kids Return (V.O.S. Takeshi Kitano, 1996)
102. El violín rojo (Zuzend.: F. Girard, 1998)
103. Lenny (V.O.S. Zuzend.: Bob Fosse, 1974)
104. Rogopag (V.O.S. Zuzend.: R. Rosellini / P.P. Pasolini / J.L. Godard / U. Gregoretti, 1962)
105. Daddy nostalgie (V.O.S. Zuzend.: B. Tavernier, 1990)
106. Los aventureros del Lucky Lady (V.O.S. Zuzend.: S. Donen, 1975)
107. Getting any (V.O.S. Zuzend.: Takeshi Kitano, 1994)
108. El árbol de los zuecos (V.O.S. Zuzend.: E. Olmi, 1978)
109. No tocar a la mujer blanca (V.O.S. Zuzend.: Marco Ferrari, 1973)
110. Plan diabólico (V.O.S. Zuzend.: J. Frankenheimer, 1996)

Tira, beste zenbait film ere ikusi ditut, aurreko zerrendan aipatzen ez ditudanak, esaterako: zientzia fikziosko filmak (*X-Men*, *Inteligencia Artificial*, *Pitch-Black*, *Matrix*, *Misión a Marte*, *Supernova*, *Virus*, *La semilla del espacio...*), terrorezko filmak (*Los Otros*, *The Hole*, *Premonición*, *Stigmata*, *Mothman*, *El Sexto Sentido...*), gerra-filmak (*U-571*), ekintza-filmak (*The Score*, *Límite Vertical*, *The Skulls*, *Conspiración en la red...*) e.a.. Halako filmak entretenigarriak izan daitezke. Izan ere, helburu horixe daukate: entretenitzea (baina besterik ez).

«*En construcción*» filma ez zait gehiegi gustatu, baina onartu beharra daukat oinarrizko ideia, abiapuntua, oso originala dela.

Behin, gazte txotxolo batek aditzera eman zidan film onak zer ziren ez nekiela, ez baineuzkan ikusita hark Donostiako zineetan ikusita zeuzkan zenbait zaborkeria. Tira, barre egiteko modukoa da, benetan. Donostiako zineetan astean behin edo ikusten zuen film parearekin uste zuen bazekiela zinemari zergatik deitzen zaion "zazpigarren artea", baina egia esan, iparrorratzik gabe zebilen, ez baitzekien bereizten entretenimendu zinema kultur zinematik. Zinema onak betetzen duen zeregina literatura onak betetzen duen berbera da: munduaz daukagun ikuspegia aberastuz, gu aldatzea. Hori da zazpigarren artearen zeregina.

Orain dela urte pare bat Franz Kafkaren «*Metamorfosia*» izeneko liburua irakurtzeko parada izan genuen Hiria Argitaletxearen eskutik. Rufino Iraola dugu bertsiorearen moldatzaile. Eta esan behar dut bertsiopolita dela (itzultzaileak berak azaldu duenez, gaztelanitik itzulita badago ere). Liburuaren bizkarrean, ordea, «*Metamorfisia*» azaltzen da. Kontuz ibili behar da horrelako akats tipografikoekin. Kasu honetan, liburu polit baten aurrean gaude, bai; baina irakurleak uxa ditzake halako akats batek. Zer esanik ez, mota horretako akatsak sarritan edo gertatzen badira...

Hiria argitaletxearen liburuetakoa azaletan izan dira behin baino gehiagotan goiko paragrafoan aipatu ditudan bezalako akatsak. Ez dut inoiz ondoegi ulertu zer dela eta gertatu diren horren sarritan. Beti harritu naiz horretaz.

«Agirre zaharraren kartzelaldi berriak», Koldo Izagirrearen nobela. A ze-nolako indarra daukan liburu honek!

Hirurgarren atala bukatu eta gero, pentsamendu bat etorri zait burura: Agirretar horrena baino porrota handiagorik...

Jergari dagokionez, ez nau asebate. Ez dakit... «Urte»aren ordeztu «breja», «emakume»aren ordeztu «egaxí» edota «hanka»aren ordeztu «pindro» jartzea... baina aldi berean «urte», «emakume» edo «hanka» hitzak txertaturik ekarriko zituen joskera berberari eustea, errazegia iruditzen zait. Nik, behintzat, ez dut lortu euskaraz birsortzea ondoko erdal esaldi honek aurrean jartzen didan pintzelkada: «*Hazte a un lado, gachí de tres al cuarto, o te doy una sarta de aguapones que te dejo las labiales como un kefir de Birmania*». Koldo Izagirrek antzeko efektua bilatu nahi zuen, baina nire ustez ez du lortu. Eta ez du lortu hitz bat kendu eta horren ordeztu beste bat jartzea nahikoa ez delako. Hizkuntzaren bihotzera jo behar da: syntaxira, joskerara alegia. Eta «calé» hizkeraren kasuan, ez dira hitz soilak kontuan hartu behar direnak, baizik-eta adierazpideak, esaerak, esamoldeak, e.a. Hogeita hamar hitzen ordeztu, Mokoroaren hogeita hamar perla nahiago izango nituzkeen, argi eta garbi esatearren. Areago, argot akastun eta bihurria —baina graziaz eta berezitasunez bete— lortzeko, biderik zuzenena «azpieuskalkiaz» baliatzea izan liteke, nik uste. Argot horretatik gustatu zaidan hitz bakarra «txori» hitza izan da, «lapur» hitzaren ordeztu. Hor bai asmatzen duela.

Jakina, liburua argot-bildumatxoa baino askoz gehiago da. Gorengo-unea 218 orrialdean lortzen duen eleberri on bat da, Agirrek epaiketan erantzuten duenean: «*Bai, bai, nik ihes egiteko izan ditut zulo guztiak*».

Zertarako dira ba zuloak, ez bada ihes egiteko? Nik ihes egin behar nuen zuen mundu ustel horretatik, eta pertsona garbien eta kontzientziadunen lagungiroa bilatu nuen. Alegia, gizatasunaren baloreak epaileek kondentzen dituzten gaztaginen artean baino ez direnez aurkitzen, mundutik presondegira egin nuen ihes.» Ideia, berez, zoragarria da, bai literaturaren ikuspegitik bai poesiaren ikuspegitik (eta batez ere, poesiaren ikuspegitik), hau da, tunel batean diharduen presoa, baina ez kartzelatik askatasunera (mundura) ihes egiteko, mundutik kartzelara (askatasunera) ihes egiteko baizik.

Edonola ere, liburuaren amaiera alderantz (eta jada azken orrialdera iristeko irrikaz, irakurle bezala), eszena horretan, kartzelatik joateko komentitu nahian dabiltzala eta *aittitte* lurrean oinaz marrazkitxoak egiten ari dela... Tira, Obelix ekarri dit gogora eszenak horrek. Eta orduan patetiko, hutsal bihurtu zait pertsonaia; sinisgarritasuna galdu du une horretan.

Azken iruzkin bat. 1996. urtean, Erein argitaletxeak «*Itsasargiko Misterioa*» izeneko liburua argitaratu zidan. Ipuin horretaz F. Juaristik esandako hitz batzuk ditut gogoan. Juaristik topikotzat jo zuen ipuinaren ardatz nagusia; eta literatura oro har kontuan hartzen badugu, ba ez nintzate harrutuko hala balitz. Hala ere, *Agirre Zaharraren kartzelaldi berriak* eleberriaren gaia bai topikoa iruditu zaidala, eta gainera erreferentziatzat harturik ez literatura oro har, baizik euskal gizartearen errealitatea, oro har. Ez dakit, gerra-giroan giro hori islatuko duen literatura sortzea normala izango da, noski. Baina, zeinen urrun *Xveik, soldadu onaren* espiritutik.

Francorekin debekaturik egon zen euskarazko liburuak plazaratzea. Kultura, berriz, liburuen bidez helarazi behar zen eta horrek sekulako hondamendia

ekarri zion euskal kulturari. Gaur egun oso zaila izango litzateke horrelakorik gertatzea. Badakit euskarri informatikoa ez dela euskarririk erosoena; baina beharrezkoa izanez gero, liburuak bezain ongi bete dezake bere helburua. Edozein liburu argitara daiteke hiru t'erdiko diskete batean, edo CD ROM batean, edo Interneten... Nolatan eragotz lezakete garaiz garaiko diktadoreek euskarri informatikoen bidez kultura zabaltzea? Ezin izango lukete horrelakorik egin. Euskaldun guztiak banan-banan preso hartu eta fusilatu beharko gintuzkete. Eta hala eta guztiz ere, gutako batzuek modua aurkituko lukete, euskaraz hamaika kontu plazaratzen jarraitzeko. Bai, euskarri informatikoak zapalkuntza kulturala ia-ia ezinezko bihurtu du. Bejoindeigula!

«*Zazpi kolore*» Jon Arretxeren liburuarekin ari naiz orain. Itxura aldetik paregabeko liburua izateaz gain, edukiak guztiz harrapatu nauela ere aitortu behar dut. Aurreneko 47 orrialdeak irakurrita dauzkat eta ez dakit zer akats atera liburuari. Zoragarria da, besterik gabe. Argitaletxeak paratu dizkion aurkezpen eta itxura ezin ederragoak ongi mereziak ditu, dudarik ez. Irakurtzen hasi baino lehen, beldur nintzen «itxura eder» horren azpian «asto zahar, makilatu eta gaixoa» topatuko ez ote nuen. Eta inondik ere ez. Liburuak du urrea balio (edo zilarra behintzat).

«*Amildegiairen ertzerik*» izeneko atalak sortarazi didan inpresioa apur bat zalantzarria izan da. Azken batean, zertaz ari gara? mistizismo suerte bati buruz, apika? ala droga batzuen indarrari buruz? Ez bata ez besteak ez naute balio. Eta esperientzia pertsonal modura onargarria baderitzot ere, atal horrek aurrean jartzten didan bideak nahastu baino ez nau egiten. Horrez gain, drogadikzio mistikoa arriskutsutzat eta ezeredugarritzat ere jotzen dut.

Cristina Fernández Blancok eginiko marrazkiei eta lan-margoei buruz esan behar dut guztiz zoragarirak direla, eta askotan artelan ere badirela.

Liburua amaitu dut hasierako sentipen berberekin: «*Zazpi kolore*» ez dela nire bizitza goitik behera kordokatuko duen liburua, baina bai liburu atsegina eta ederra. Azken batean, bidaiariak begiratzen jakin behar du, turista huts izango ez bada. Jon Arretzek badaki ezagutzen dituen pertsonen bihotzera iristen eta bera ere emateko prest dago. Beharbada, eta zoritxarrez, gertzen diren azken bidaiari erromantiko horietariko bat da (eta «erromantiko» diot, inolako isekarik gabe). Jarraitu bidaiatzen, lagun, eta segi zure bidaien kontakizunetaz gure irudimena oparitzen.

«*Egonean doazen geziak*». Ozta-ozta irakurria dut hitzurre antzekoa, eta apur bat handinahia iruditu zait; barrokismo ukituak hizkeran; zirikagarria. Uste dut liburu honetaz asko gozatzeraz noala.

«[...] *Estimatzen diat, hala ere, hire aitortzena, nazionalista nazionalista denak behar omen duen gisakoa ez haizela aitortzean niri ere, definizioak definizio, erosoago gertatzen baitzait nazionalista izatea.*» Ez dakit, ba; ez ditut oso gogoko tankera horretako esaldiak. Burua nekatzen dute benetako beharrik gabe, ematen duten mezua ez baita berez ulertzen zaila, baina erretorikak ordea, bai, mezua erraz ulertzea zaila du.

Dena den, ez naiz tronpatu esatean liburua oso zirikagarria dela. Egia esan, liburuko pasarteetan oinarrituta, erraza izango litzateke beste liburu bat sortzea. Liburuaren kontraliburua, nolabait esateko. Hori ondo dago. Azken batean, zertarako irakurtzen dugu pentsamendu arrotz batekin dialektikan jarduteko ez bada?

Gure pentsamendutik tiraka aritzen den liburuari haxe baino ezin diogu esan: “Harrapatuko haut”.

Batzuetan, bertsolaria nagusitzen zaio filosofoari, edo bien arteko halako sinbiosia gertatzen da: *Konponbidearen lehen erdiarekin konforme dago mundu guztia. «Bidea» kenduz gero, ordea, hor «konpon» baino ez da geratzen.*(78. orrialdea)

Eta beste batzuetan, olerkari petoa:

Gauetz bezpera nauzu. Egunez oraina.

Hiriko zakurrek xerkatzen nautena.

(Hitz antolamenduari gehiegizkoa baderitzot ere —zer esan, berriz, *xerkatu* estridenteari buruz...).

Edonola ere, Joxerra Garziaren euskara ildo honetatik doa ia-ia uneoro: [...] *Papera eskuratzeko ezinbesteko zaizkizun egitekoak burutu bitartean garunetako atea itxita edukitzea erabaki duzu, haizelasterrik sor ez dakizun. [...] Hori ia matematika da; zaila hordago handiagorik botatzea.*

Ondo erabiliak, zalantzarik gabe, liburu honen truke ordaindu ditudan 15 euroak 60 zentimorekin.

Bidaiatzeko nire modua haxe duzue: hartu liburu bat eta hasi irakurtzen. Garraiorik azkarrena eta aldi berean motelena, ezetz?

Batzuetan, irakurtzen ari garenean, gogoja joaten zaigu beste nonbaitera. Hori gertatzen denean, hiru gauza egin ditzakegu: 1) irakurketa bertan behera utzi, 2) automatikoa jarri eta irakurtzen jarraitu, 3) aditasuna

zorroztu eta irakurtzen jarraitu. 1) eta 3) aukerak onak dira; 2) aukerak, ordea, galbidera darama irakurlea (hor hasten baita alienazio kulturala).

Zer egin euskaldunberriek euskaldun zaharren euskararen aldean? Ezer ez. Burua jaitsi eta nork bere bidetik segi. Baina euskaldunzaharrek ere erakutsi behar lukete apaltasunik, erakutsi beharrekoekin.

Tamalez, betiko kontua da: euskaldunzahar askoren euskara euskaldunberri askorenaren parekoa dela. Eta hori ere edonork daki (zer da gaur egun “euskaldun petoa” izatea?).

«*Xake Mate*» eleberria, Alberto Ladron Aranak idatzia. Nobela arina da. Bere prosa ez da bereziki zaila, baina esaldi bakoitza bat dator beti euskal senarekin. Liburuaren erdarara pasatzea ez litzateke bat ere konplikatu izango. Beraz, hor garbi gelditzen da prosa apal bati buruz mintzatzen ari garela («*Egonean doazen geziak*» liburuari buruz ezin esan gauza bera!). Batzuetan nola izaten den behar-beharrezkoa liburuaren egilearekin harremanetan egotea, egile horren liburuaren egoki itzuli ahal izateko? Beno, ba kasu honetan hori ez litzateke beharrezkoa izango. Begi ireki-itxi batean irakurtzen diren liburu horietarikoak da.

Graham Greene-ren «*Hirurgarren Gizona*» eleberriari hainbat gauza hartuak dizkio Padronen liburuak; baina onartu beharra dago kontu historikoak direla (penizilinaren kontrabandoa, esaterako, benetan —eta tamalez— gertatu omen zen Alemaniako —eta segu-

raski Europako— hainbat hiritan, bigarren mundu gerraren osteko urteetan—). Ia-ia esan liteke «*Hirurgarren Gizona*»ren beste bertsio bat dela; alde horretatik, ordea, originaltasun handixeaa erakutsi du Alberto Padronek, ez baita erraza bertsio zaharrak berri bihurtzea.

Familian erdal giroan bizi den euskaltzalea erbesteturik bizi da, horrek berez dakarren infernu txikiarekin.

«*Taxi bat Hamletentzat*» eta «*Elurrezko Eskeletoa*» (Hiria, 2002), Bata Aritz Gorrotxategi Mujikarena eta bestea Karlos del Olmorena. Bi liburu, biak oso desberdinak: poesia da Aritzek aurkeztu duena eta saio/antzerkia Karlosena. Biek utzi didate inpresio ona. Aritzen poesiak abiapuntu naif batetik harrapatu nau; haren poesia bakoitzak beti izan ohi du ustekabe bat edo beste. «*Elurrezko Eskeletoa*», berriz, liburu tinkoa iruditu zait. Batez ere, egilearen pentsamenduan dago tinkotasun, indar hori. Liburu luzea bada ere, pentsamendu horren tentsioak ez du amore ematen une bakar batean ere. Ez nago oso ziur, hala ere, antzetzua izan dadin pentsaturik ote dagoen... luzeegi joko bailuke halako obra baten antzesprenak (hiru orduko irakurketa bada, bost orduko ikuskizuna izango litzateke, gutxi gorabehera, antzokiko taula gainean). Liburuak elkarrizketak besterik eskaintzen ez baditu ere, aurrera eraman nau arin eta aspertu gabe.

Orain dela gutxi arte, ez nuen Woody Allen-en mundua ezagutzen; edo, hobeto esan, ezagutzen nuen baina ez nion estimu handiegirik. Berriki, ordea, Amerikar Zinemagintzaren zuzendari eta aktore original honen

lana baloratzek ikasi dut. Bere filosofiaren oinarria «konformismo eraginkor eta sortzaile» bat dela esan liteke, den-dena hankaz gora jartzera eramaten duena — itxuraz, behintzat—. Baina konformismo horixe bera da bere alderik ahulena eta ez-erakargarriena. Edonola ere, beti merezi du haren filmak ikustea.

Generoak ezin dira elkarrekin nahastu, genero batzuek beste batzuek baino balio handiagoa daukate-lako. Horregatik, genero desberdineko bi filmaren gaineko balorazioak ez du orokorrean esangura bera izango, *puntuazio* antzekoa izan arren. Terrorezko film arrunt batek entretenitzen bagaitu eta asmo oneko beste film batek aspertzen bagaitu, balorazioak hala ere bigarrenaren aldekoa izan behar du beti, bere abiapuntua zuzena delako. Azken batean, garrantzitsuena asmoak eta abiapuntuak dira, helburuak bete ala ez (azken kasu honetan, aspertzetik ezerk libratuko ez bagaitu ere).

Ez dakit Anglada zergatik molestutzen den bote-rea lortzen. Muturreko eskuina aspaldian dago-eta bote-rean. Ala akaso pentsatu duzue Cope-ko *ternulianoak* kasualitatez daudela... dauden tokian?

«*Zenbaki Sorginduak*» liburuaren aurkezpen ekitaldian (Koldo Mitxelena) irakurritako testua:

Katutxo bat agertzen da liburuaren aurreko azalean; marrazo batek irentsia izateko trantzean... Liburua bera ere azal hau bezalakoxea da: «naïf», amarrugabea, inuxentea... Baina, aldi berean, baditu hamaika xehetasun edo nabardura, biziak eta bitxiak batzuetan, motelak eta kementsuak bestetan. Liburua hainbat kontakizunet

osaturik dago. Ipuinak dira *edo*; elkarren artean zerikusirik gabeak. Fantasiako literatura; irudimen piska bat ba omen daukana. Batez ere, distraitu edota denbora pasatzeko liburua da (ia-ia bizitza den bezala, seguraski). Liburu batzuk etxeko idazmahaiaren aurrean irakurtzekoak dira, flexoak ematen digun argitan. Baina liburu hau ez; liburu hau, esaterako, hondartzara eraman eta bertan irakurtzekoa da, lasai, gauza handiak berataz espero izan gabe (bizitzaz gauza handiak espero ez ditugun bezala...). Txapuzoia hartu eta lehen ipuintxoia (gazte edo ume literaturako ukitua daukana) irakurriko dugu. Gero, eguzkitan erdi lo geratu eta esnatzean, bigarren ipuintxoari, euskal literaturako lehen *striptease*-a izan litekeenari, helduko diogu. Beste txapuzoi bat eta segituan ametsez (benetako ametsez) osaturik dagoen hirugarren kontakizunean eta darion giro onirikoan barneratuko gara. Orain, barkiloa jaten dugun bitartean, Donostian eta San Telmo museoan giroturik, izu tanke-rako ipuin honek zer dakarkigun ikusiko dugu. Ostean, beste txapuzoi bat —azkena— eta «Zenbaki Sorginduak» izeneko kontakizunean murgiltzen gara, hondartzan gaudela ia-ia ahaztuta. Eta holaxe, liburua eta goiza bukatu arte. Azken batean, goiza hondartzan igarotzea edota nire liburua irakurtzea bi ekintza oso antzeko baitira: ekintza intranszendentek, garrantzi gabeak (bizitza den bezala, nik uste). Ordu eta erdiko irakurketa, eta listo; ia-ia film bat ikustera joatea bezala.

Aurkikuntza zoragarria uda honetakoa: Gonzalo Rojas.

Juan Navarro Baldeweg-en iritziz: «Arkitektura artea da». Nire iritzi apalean, ordea: «Bai, baina batzuetan ez da ia nabaritzen; areago, askotan hurbilago dago

zabor funtzionala izatetik, flipatzeko artea izatetik baino».

Arturo Pérez-Reverte-ren hitzetan (*El Semanal*, 2002ko abuztuaren 17a, *Patente de Corso, Beatus Ille*): «[...] o por esos ilustrísimas y párrocos que sólo se sienten pastores de ovejas vascas, y a los demás que les vayan dando el materile [...]». Entzun, harroputz horrek, ni zu bezain paganoa naiz —Kavafis-en paganismoak alde ederra ateratzen badit ere—, eta esango dizut zuk ausartasun handia daukazula etxetik kanpo harrapatzen zaituen kaka salatzerakoan, baina zeure herrian gertatzen ari dena epaitzeko orduan garbi dago zeintzuk hartzen dituzun erreferentziatzat: Antena 3, Tele 5, TV 1, TV 2..., hau da, informazio poliziala, interesatua eta gobernuaren aldekoa. Jarrai ezazu, bai, zeure etxean heroiarena egiten, betikoen aurrean bizkarra makurtzen eta eskubiari (PPri) zein esker deskafeinatuari (PSOeri) ohore egiten —euskal gatazkari begira bi alderdiok eskuin-muturrekoak badira ere—. Horrela, lasai biziko zara, soldata ona jasoko duzu eta arazoak saihestuko dituzu, hipokrita horrek.

Komunikabide handietako «profesional handiak» hortxe ditugu orain: altxor-bonuak, salva-slipak eta marka oneko autoak iragartzen. Uuuuuuuuhh! Zeinen profesional handiak, komunikabide handietakoak!

Aritz Gorrotxategi Mujika idazlearen «*Egurra Pinotxori*» liburua (Alberdania, 2002 urtea): ongi idatzitako eta ongi garatutako ipuin bilduma. Aritzen prosa sendoa da, euskaldunzaharraren arnasaz jantzia, zenbait momentutan (gutxitan) halako monotonía formal bat

antzematen bazaio ere. Dena den, une bakan horiek berehala geratzen dira atzean, esaldi azkar eta ongi erai-
kiek ordezkaturatu. Horri esker, irakurlea ipuin batetik
bestera doa ia konturatu gabe. Ipuin arteko loturek «no-
bela» ukitua eman diote liburuari, guztiz egokia irudi-
tzen ez zaidana, eleberri bati batasuna ematen dioten
loturak askoz konplexuagoak baitira. «*La Torre*» *ize-
neko fikziozko hiriaren inguruan garaturiko batasun
lauso bat, erlauntz-ukitu eta guzti daukana?* Bai, hori
bai. Eta primeran. Baina harantzago iritsi nahi ukan
gabe. Labur esanda, ipuin liburu polit bat.

Esaten du —edo esaten zuen— B. Atxagak:
«Hizkuntzari dagokionez, nahiago nuke euskaldunbe-
rriek jarrera pasiboa erakutsiko balute». Eta esaten dut
—edo esaten nuen— nik: «Nahiago dut hizkuntza zi-
kindu, hura garbitasun handiz hil baino».

«*Odolbidea*», Josu Landa idazlearena. Zenbait
iruzkin:

«[...] atsegin zuen *jabegoarekiko harrotasun
nardagarria* [...]». Baina, zergatik «*nardagarria*»? Bere
etxeari buruz mintzatzen ari da; pertsona baten ongita-
sunerako ezinbestekoa den ondasunari buruz. Egia esan,
garrantzirik gabeko kontua da, baina apur bat harritu
naiz (Lenin baino komunistagoa ote...?)

«[...] *Kexu gehiegi duzu ahotan* [...]» (12. orr.).
Bai, esaldi oso jatorra da, baina testuingurutik kanpo
dago. Kontrabandisten arteko solas baterako ez da ego-
kia. Hiztegitik, edo Orotariko Hiztegitik, edo Auspoa-
tik edo ez dakit nondik ateratako esaldiak dira horiek.
Artifizialtasun hori soberan dago, nik uste. Gainera,
idazle bakoitzak —euskaldunzaharra edo euskaldunbe-

rria izan— bere berezko hizkera sortu behar du beraren kultur eta hizkuntz bagajearen oinarrituta, besteen erreper-toriotik ezer atera gabe (oso klasikoa izan arren).³

«[...] *Eskaileran zur-hotsa sentitu zuelarik irra-tiaren bolumena jaitsi zuen Antoniak, eta galtzerdi ba-tzuen sarea birjosten jarraitu [...]*» (17. orr.). Nik ez dut esaldi horren edertasun formala guttiz harrapatzen...

«*Odolbilda*»*k* bat-batean indarra hartu eta le-potik harrapatu nau. Badirudi bukatu arte ez dudala liburua bertan behera utzi ahal izango. Biba! Hori, gai-nera, lehenbiziko atalean bertan gertatu da, aurrez ni-tuen iritzi kaxkarrak uxatuz. Egia esan, zeinen subjeki-boa den liburu baten irakurketa. Nola, unean-uneango gogo-aldarteek, garamatzaten albo baterantz eta beste-rantz...

Prosa monotonoa berriro; espejismoa izan ote da aurreko une suharra...?

Mota honetako argumentuak zinemarako na-hiago izaten ditut, literaturarako baino.

Liburua ez da inoiz hasten.

Irakurketa bertan behera uzten dut 65 orrial-dean. Ez dakit berriro helduko diodan...

Josu Landaren liburua irakurtzen jarraituko dut. Euskaltzale ona da eta bere liburuaren irakurketan biz-pahiru ordu erabiltzea merezi du (zer dira hiru ordu idazle honek egindako ahalegin handiaren aldean?). Badago zer ikastekorik liburu honetan, dudarik ez.

³ Antzeko zerbait irakurri nion behin Villasanteri; eta irakurri nuenean, garai hartan gainera, «errudun» sentitu nintzen.

Donostiako su artifizialak ETBn. Aurkezle gehiegi su artifizialak komentatzen, denak aldi berean mintzatzen eta elkarren lehian, ea nork botatzen duen *txisterik txistosoena*. Hobe pertsona bakar batek suei buruz hitz egitea, suak garatu ahala. Ahal izanez gero, su artifizialen mundua, teknika, e.a. ondo ezagutzen duen norbait bilatu beharko litzateke zeregin horretarako. Bestela, apur bat *txabakano* gelditzen da.

«*Homo Faber*», Max Frisch-ena eta Joxe Austin Arrietak itzulia. Zenbait iruzkin:

Liburuak hasieratik bertatik harrapatzen nau. Eta «gertaerak» aurrera doazen heinean, gero eta gehiago gustatzen zait.

Primeran itzulita dago (inoiz ez nuen ondoegi ulertu M. Yourcenar-ren itzulpena zela-eta sortutako liskarraren arrazoia, aldi hartan ere lan ona egin baitzuen Arrietak —«Adrianoren Oroitzapenak» liburuaren irakurle modura diot hori, hau da, ez nintzen ibili bertsoiak elkarrekin alderatzen ezta antzeko lerdokerietan denbora alferrikatzen ere).

Bat-batean esnatu eta pentsatzen dut: «Nahi nuke Homo Faver izan!». Nobelako pertsonaia batekiko identifikazio ia erabateko hori da literatur obra batek lor dezakeen arrakastarik handiena, obra bezala zerbait izango bada —eta batez ere, den-dena izango bada (literatura den makineria berezi horren zati bezala, jakina).

Nobelaren une jakin batean (hasiera, hegazkineko gorabeherak, oihana...), XX. mendeko nobelarik onenetariko bat etorri zait gogora: «*Gauaren muturre-rainoko bidai*a».

Nartziso hutsa da Homo Faver (ia beti berataz hitz egiten du).

Esaldi batek harridura sortu dit, honetxek: «*Gi-zona bere buruari es besteri dagokio beti adi, Hannaren iritziz, eta beraz, gizonak uler dezan nahi duen emakume baten bizitza nekez izan daiteke porrot hutsa besterik*». Azpimarraturiko esaldiaren zatia da ondoegi ulertzen ez dudana; beharbada, «emakume baten bizitza» esan ordez, «emakumearen bizitza» esango balu...

Dena den, zorte txarra dakarten horietakoa da gure Homo Faver...

«*Pasión Taurina*» deritzote batzuek; «primitibismo historikoa» deritzot nik. Betiko Espaina panderojolea. Cope-ko tertulianoek halako gauzak apur bat siki-
era kritikatu balituzte, agian zerbaitetarako balioko lieke kazetariak izateak.

Batzuetan, lehiora agertzen zen, gauez, eta galde egiten zion bere buruari: «*Ama, hor al zaude?*». Eta umorez edo, hauxe erantzuten zuen hark berak: «*Hala bada, ez esan ezer, mesedez. Bihotzekoak emango lidake eta*». Haren amak urte batzuk baitzeraman hilda.

«*Pasión Taurina*» programaren irudiak ikus-tean, ulertzen dut zergatik ez dudan Espaniaren zati izan nahi.

Batzuek diote: «*Nik ez dut elebitasunean sinesten*». Baina hori da hauxe esatea bezala: «*Nik ez dut espazioko bidaietan sinesten*». Barka, baina espazioko bidaiak hor daude, elebitasuna hor dagoen bezala. Bata eta bestea errealitate dira, ez posibilitate.

Sexua bizitzari buruzko gazte ikuspegia baino ez da. Eta inork ez du zahartu nahi.

Agian konbinazio ederra izan liteke honako hau: Carmina Burana entzuten dugun bitartean, film erotiko bat ikustea. *J.S. Bach-en San Mateoren araberako Pasioa*-rekin ere funtziona lezake (baldin-eta filme erotikoa ondo egina badago, noski).

Sexuan errealitatea da gutxienekoa. Sexua berez fantasia da (kimera hutsa; horregatik, sexu bila abiatzen diren guztiak lezio ederra hartuta amaitzen dira, existitzen ez den Urrezko Paradisu baten aurka jota — gehienera, *urrezko euria* topatzen dute eta—).

Purutasunaren bilaketa ez da aldarrikapen hutsa; beharra baizik. Edozein bidek balio du hartara iristeko, baita zikinena ere. Zitalkeriak purifikatu egiten gaitu (kontuak txantxarako aukera ematen badu ere).

Filmagintza erotikoa diharduten *aktorea* ederak (baldarkeriaz eta karikaturez harantzago, jakina)

gizakiak direnik ere ez du ematen. Erotismoaren idealizazioa da. Inork ez lituzke mesprezatu beharko.

Sexuak halako antzekotasun bat dauka drogekin. *Engantxatu* egiten gaitu. Eta graduazio bat dago; beharbada, baita degradazio bat ere; ez bata ez besteak bizitza normala eragozten ez badute ere (itxuraz, behintzat).

Gauzei begiratzeko nire modua aldatu zuten film bat, nobela bat eta poesia liburu bat: «*Izatearen arintasun jasanezina*» Kunderaren liburu ospetsuaren bertsio zinematografikoa (Viscontiren «*El Inocente*» ere aipa nezakeen arren); Céline-ren «*Gauaren muturrerainoko bidaiia*»; eta Pessoaaren «*Artegatasunaren Liburua*». Gainerantzekoa ezer gutxi izan da: hainbeste asmakeria eta hainbeste gezur irensteko gai izan nintzeneko une hura betiko ez izanak sortu zidan asperdura gainditzen baino ez baitzidan lagundu, nolabait esateko. Esan nahi dut bidea hortik aurrera zabaldu zitzaidala.

Nire garaiko euskaldunberririk onenetariko bat izan naizela uste dut. Baina barkaezinezko hutsa egin dut: politikan sekula *busti* ez izana. Noski, horren falta putarik ere ez zegoen (beste batzuek normaltasuna errendikatzen zuten bitartean, ni normaltasunez bizitzen saiatu naizela esan nahi dut).

«*Traizioak*», Iban Zaldua. Ipuinez osaturiko liburua. Euskara aldetik ez zait oso berezia iruditut; isto-

rioak, berriz, ongi daude oro har (batzuk beste batzuk baino hobek dira).

«*Alkimista*», *Paulo Coelho*. Literatura sinbolista ez dut oso gogoko. Sinbolismoa ongi dago margolaritzarako, edo poesiarako. Baina, prosan, ez dut oso gogoko. Apur bat «akaramelatua». Dena den, ez zait damu liburuak irakurri izana. Itzulpena oso ondo egin dago.

Orain arte, zenbait euskaldunentzat erdaraz idaztea tabu izan da. Ni ez nago ados horrekin. Hizkuntza bakoitzak ate bat irekitzen du; bidaia desberdin batera garamatza, horrek berez dakartzan inplikazio guztiekin. Areago, bidaia horretan ezagutzen ditugun pertsonak ere bestelakoak dira, aldatu egiten dira hizkuntza batetik bestera. Beraz, zergatik uko egin bidaiatzeari? zergatik esan behar dugu «nik bidaia hauze baino ez dut egingo nire bizitza osoan»? Tira, hori egin nahi duenak, ba aurrera, egin dezala; zergatik ez. Baina ingelesak, frantsesak, gaztelaniak edota euskarak aurrean jartzen didaten bidaiari uko egiteko prest ez nago ni, behintzat. Gainera, jarreraz itxia eta begiradaz itsua izan behar du batek, halako gauzak proposatu ere egiteko. Dena den, egia da jende xumeari ez zaiola exijitu behar ez dakit zenbat hizkuntzatan bizitzea. Baina unibertsitateko irakasle batek, intelektual batek edota itzultzaile batek hainbat hizkuntzatan hitz egin, idatzi, irakurri eta azken batean bizi dela esaten badigu, zergatik harritu behar dugu? agirika egin behar al diogu horrengatik? Batzuen ultraortodoxia oka egiteko modukoa da, benetan.

Gogoan dut gure amak erdaraz bere aitari (gure aitonari alegia) zuka egiten ziola: "Siéntese aquí, pa-

dre"; "¿desea un poco más de ensalada?"; e.a. Gaur egun, gaztelaniaz mintzatzen den zenbait herrialdetan, nekazari giroko lurretan batik-bat, ohitura hori oraindik bizirik dago, hau da, seme-alabek zuka hitz egiten diote euren gurasoei. Aipatu ohiturak, halere, harridura sortzen digu askori; zer esanik ez, kaletar giroko familietan hazitakooi. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak aldatu egin dira, malguagoak intimoagoak eta samurragoak dira gaur egun lehen baino, zorionez. Eta zukako tratamendua erdaraz arkaismo hutsa izatera igaro da. Nik planteatzen dudan zalantza euskarari loturik datorrigu. Jakina denez, hika tratamendua oraindik bizirik dago euskaldun batzuen artean, eta hikak dituen hizkuntz arauetariko batek eragin zuzena du, hain zuzen, gurasoen eta seme-alaben arteko tratamenduan. Badakizue: seme-alabek beti zuka gurasoei, eta gurasoek beti hika seme-alabei. "Siéntese aquí, padre"; "¿quiere un poco más de ensalada, madre?". Efektu bera al da? Bai ala ez? Euskara normaltasunez bilakatu izan balitz, zertan egongo litzateke gaur egun gurasoen eta seme-alaben arteko hizkuntz berezitasun hori? Zera, pentsa al dezakegu une batez ea posible ote den gaur egun euskaraz guraso baten eta bere seme-alaben artean hika mintzatzea? Ala hizkuntza lehertaraztea izango litzateke hori? Horren haritik, hona hemen beste gogoeta bat: hika galtzeko zorian badago, ez al da izango etxean bertan galdu delako? eta batez ere, galdu dela gurasoen eta seme-alaben arteko harremana, berdintasun ikuspegi batetik, kolokan utzi duelako?

Ez dakit zer gertatu zaidan J. Sarrionandiaren «*Lagun Izoztua*» liburuarekin. Ez naiz zentratu irakurketan eta ondorioz ez dakit zehatz-mehatz zer pentsatzen dudan liburu honi buruz. Filmak ikusten joan zait denbora azken boladan, eta alfer ibili naiz irakurtzeko orduan. Aurreneko bi atalak gustatu zitzaizkidan, baina hortik aurrerakoa nire begien aurretik igaro da... nola

esango dut...? Zerbaiti begira bezala...Irakurketan sartu gabe. Gero, inprentako akats handi batek apur bat ilundu zidan liburua irakurtzeko gogoia (81 orrialdearen ondoren 97 orrialdea agertzen da nik daukadan alean; beraz, aurrerago jo behar izan dut falta diren orrialdeen bila eta gero berriz atzera egin). Atal batzuk, Nostromoren iragarpen modura eginak daudenak, horiek badakit asko gustatu ez zaizkidala. Esaldiak monotonoegiak egin zaizkit eta. Hori bai, han eta hemen, detaile polit askotxo atzeman ditut, baina hala ere ezin izan dut kontzentrazioa bildu irakurketa osoan; liburuak ez nau harra-patu. Hiriak izeneko atala falta zait bukatzeko. Baina ez dut interes berezirik... Amaierara iristen saiatuko naiz, bukatu arteko orrietan ea argirik kausitzen dudana...

Hobe da Jainkoa hitzez iraintzea, egiteen bidez iraintzea baino. Kristau askok alderantziz egiten dute, ordea. Beraz, baliteke ni hitzez erabat paganoa izatea; baina egitez, badakit besteenganago elkartasuna — maitasuna— sentitzen. Alde horretatik, «kristaua» naitzela esan dezaket. Tenpluak eta, berbontzientzat.

Erromako etxeari su eman beharko genioke, benetako kristautasuna bultzatzeko. Edo, agian, nahikoa izango litzateke etxe horri bizkar ematea (nerabezaroa igaro eta gero, putetxei bizkar eman genien bezala).

Mundua ibilarazten duen indarra samurtasuna da; ankerkeriak moteldu baino ez gaitu egiten eta.

«Filosofia apaingelan», Sade. Liburu txukun-
txukun egina, Txalapartak plazaratzen dituen liburu
guztiak egon ohi diren bezala. Egia esan, liburu honetaz
gehien gustatu zaidana liburuaren hitzaurrea izan da.
Sade-ren munduak jada ez dit gauza handirik esaten.
Haren krudelkeria eta zinismoa begi-bistakoak dira.
Baina... benetakoak al dira? Deliturik egin gabe, kartze-
lan 28 urte igaro dituen gizon baten aurrean gaude.
Epaiketak gabe bizitza osoa izan dute kaiolaturik. Ba-
rrutik ozpinduta baino, pozoituta dago jada. Sade-ren
gaiztotasuna, ankerkeria fantasiakoa da halere. Nik,
behintzat, ikuspegi horretatik ulertzen dut haren mun-
dua. Hortaz, Sade-ren *errebindikazioa* argia da: mugarik
gabeko adierazpen-askatasuna. Ea fantasia horiek eragin
txarra izan dezaketen? Bo, horiek ergelkeriak baino ez
dira. Begira diezaiegun munduan gertatzen diren izuga-
rrikeriei. Fantasiek ez dute inor kaltetzen; benetako
egintzek bai ordea. Esaterako, Sade-k ez zuen inoiz inor
lepamoztu. Haren garaiko agintari *zintzoek*, berriz, mi-
laka pertsona lepamoztu zituzten ez dakit zeren izenean
edota atxakiatan. Hala ere, ankerkeria leporatu zioten
Sade-ri, sexu fantasiak besterik izan ez zituen gizara-
joari! Esaten denez, mundua poliki-poliki aldatzen doa;
baina, kontuz gero! atzera egiten ere badaki eta. Sade-k
mundua ikusi zuen mende batzuk barru izango zen be-
zala. Bera bezalako jende gehiago bazen garai hartan,
baina Sade bakarrik ausartu zen pentsatzen zuena ozen-
ki aldarrikatzera. Eta larrutik ordaindu zuen, ordaindu
ere. Eta orain, galderatxo bat: Saderi bere garaiko gizar-
tean berriro bizitzeko aukera eman izan baliote, modu
berean biziko zatekeen? Ala, eskarmentua gogoan har-
turik, egingo al zituen gauzak *beste modu batez?* *zuhur-
tasun* handixeagoz adibidez...? Nik ezetz uste dut.

Deprabazioa denok barruan daramagun mons-
truo txiki bat da. Harekin jaiotzen gara; harekin bizi
gara; harekin hil. Ez dago erabaki pertsonal baten men-

dean; borondateaz harantzago dago. Izanaren fatalitate orbanik gabea.

Sexualitatea freskotasun tanta bat bezalakoa da basamortuaren erdian. Baina tantatxo bat baino ez. Inoiz ez digu egarri izatetik sendatzen. Beti mortifikatu egiten gaitu harekiko premiak. Garena gara, larrua jotzeko premia ezinbestekoaren pean. Bestela, hil egiten gara. Egarriz.

Horra zoramena: errealitatea beste modu batez hautematera garamatzen sentsazioa. Ez hobea ez txarragoa da (antzeko egoerak eta jarrerak elkarrekin alderatu izan ezik). Ero egotearen sentsazio orok eta horretxen onarpen lojikoak zuzen-zuzenean jartzen gaitu harremanetan bizirik egotearen alaitasun itzalgaitzarekin (arrazonamendu-mota guztiez harantzago, zentzumen-mota guztiez harantzago). Nik zoramenaren ongizatean sines ten dut, zentzumenaren gaizkizatean baino. Batez ere, errealitateak merezi ez duenean.

Izan ote da inoiz frantses zibilizazioarekin — letretakoarekin— alderatzeko moduko zibilizaziorik? Ni ezetz nago. Naturako mirari bakarra dela uste dut. Ez ahal dugu inoiz ikusi beharko haren zenita, haren edertasun hila lur biluzian sakabanatua, hondatua!

Beti ote dago azalpen bat? Ala, akaso, galdera bera ez al da izango isiltasun tragiko bat, erantzunaren emaitza dena?

Ez da on goiz-goizero errepikatzea; baina gure halabeharra horixe da: errepikatzea beti, errepikatzea beti, errepikatzea beti... Uste dut Jainkoari zerbait ahaztu zitzaiola: diskoz aldatzea, noizean behin. Tira, gaur aldarte onez eta aldarte txarrez nago. Bitxia, ezta?

W. Allen-en Husbands and Wives ikusten ari nintzen eta, halako batean, pentsamendu bat etorri zitzaidan gogora: «Aberaskume puta hauek inoiz ez daukate nahikorik»

Gortina alderantz begiratzean begitarte geldi bat ikusi nuen haietan zirriborraturik. Gero ohartu nintzen itzal apetatsu bat baino ez zela. Eta jarraian, ezetz, benetakoa aurpegia zela, eta nirekin zegoela, han.

Ongizatearen arazoa da beti behar duela ongi zate gehiago. Eta inoiz nahiko ez duenez, gaizkizateari ematen dio bide.

Edertasuna, nola engainatzen gaituen! Edertasunak ahoa irekitzen duen arte...

Euskal Herrian famili planifikazioa bultzatu beharko genuke, eta beharrezkoa izanez gero —eta beharrezkoa da— agintarien laguntzarik gabe (printzipioz, behintzat). Zerrenda bat, errolda bat zabaldu beharko

genuke familia bat sortzeko euskal herritar guztiekin; baina familia bat ez zentzu tradizional batean, zentzu askoz modernoago batean baizik, bide iraultzaile eta ausarta bultzatuz: bakarrik bizi diren pertsonak, sexu batekoak eta bestekoak, bi sexuetaoak, Euskal Herrira lan egitera etorritako etorkinak, seme-alabak izaterik ez daukaten bikoteak, famili unitea zabaldu nahi dutenak, adineko jendea (baina seme-alabak izateko oraindik ilusioa daukana), e.a. Euskal Herria —atzazkazalekin, beharrezkoa bada— aurrera ateratzeko prest dauden pertsona guztiekin osaturiko errolda bat. Eta diru fondo bat eta laguntza sare bat haientzat bakar-bakarrik sortu. Izaera bortitzeko beste edozein talde edo ekimenetik kanpo eta baita sarritan inguratzen gaituen trakestasun gubernamentaletik kanpo ere. Ergelak izan behar gara Euskal Herriak daukan benetako arazoa ez ikusteko: lau katu baino ez garella! Hiru milioi biztanleko herrialdea da gurea, eta horietatik milioi batek gainera ez du euskalduna izan nahi. Orduan, irtenbide bakarra dago: gure biztanle kopurua handiagotzea. Baina azkar ibili behar dugu. Eta egin behar dugu geure asmamen osoa erabiliz, geure baliabide guztiez baliatuz. Behar izanez gero, uko egin behar diogu autoa erosi, oporrak hartu, zinera joan edota markako arropak erosteari. Inberti dezagun Euskal Herrian, eta berrogeita hamar urte eskasetan hirukoiz dezagun Euskal Herriko biztanleria. Sor dezagun errolda bat horretarako prest dauden pertsonekin. Eta ez dezagun inor bazterrean utz hau edo hura izateagatik. Homosexuala, bisexuala, heteroa, ezkondua, ezkongabea, gaztea, zaharra, heldukotea, jatorriz afrikar/marokoar edo poloniarra... Berdin dio. Egin dezagun aberri handi bat euskal herritarrak zinez izan nahi dutenentzat, eta aberri horren izena eta izana izan dadila: Euskal Herria. Eta eraikitzeko lur eskasiarik izango bagenu, orduan eraiki dezagun gorantz, Ipar Amerikan bezala. Gure lurra maite duten arkitektoak eta aparejadoreak ditugu, eraikinik onenak, ederrenak proiektatuko dizkigutenak, paisaia edozein inpaktu mota ezabatuz. Nolatan ez dugu Europako jaiotza tasarik baxuena edukiko gure

gazteek ez badaukate, hasteko, etxebizitzarik? Hain da erabatekoa gure gazte batzuen despistea ezen horietariko asko hogeita koska urte izan arren oraindik sartuta dabilzan «gaztetxe»en aldeko borroka antzuetan — etxebizitza, lanpostua eta euren familia aurrera ateratzearen alde borrokatu beharrean—. Helburu bat finkatu beharko genuke: urte jakin batera zazpi eta hamar miloi arteko biztanleria kopurura iristea, eta herri eta nazio kontzeptuak abiapuntutzat harturik Euskal Herriak ematen digun kontzientzia sozial eta politikoa behin batez lantzen hasi, baina oraingoan seriotan. Bada garaia eta.

Bizitzako behar guztiak —personaren alderdi fisikoari dagozkionak— erabat ongi beterik dauzkagunean, desolaturik bizi garelako sentsazioa barruan daramagun barne bizitzaren isla baino ez da, inkontzienteki ere ez gauza garelarik hura isilarazteko (are gutxiago, hura erreprimitzeko).

Pentsamendua izanaren arima da. Hura gabe, deus baino deusago gara.

Geure guraso eta arbasoetaz daukagun ziuertasuna geronetaz izan dezakeguna bezain espektrala da. Gure existentzia zer da, gau erdian itzal batek jaurkitako itzala baizik? Eta orduan, beldurrak ez gaituela abandonatu ulertzen dugu, etxea gailuz beterik izan arren.

Harrapaturik nago hizkuntza baten barruan. Zer egin dezaket?

Charles Bukowski-ren *El Capitán salió a comer y los marineros tomaron el barco* bukatu orduko burura etorri zaidan pentsamendua: "Ez dago gaizki kabroïtxo hau", Bukowski-z. Horrez gain, liburua ez dago gaizki; egia esan, nahiko ondo dago. "Adina" apurtxo bat nabaritzen bazaio ere. Baina merezi du, bai horixe.

Eskuinekoak edo zentro-eskuinekoak izango ziren pertsonak (zentro-ezkerrekoekin alderik ez dutenak) aurkitzen ditugu sarritan; aldiz, euren euskaldun idisionkrasia dela eta, ezkerrean militatzen — hegaldatzen— amaitu dira.

Umeen beldurrak direla-eta egiten dugu barre; egiatan, geroen beldurrak direla-eta barre egiten ez badugu ere.

Kopetaraino nago historialari faszista guztiorietaz: Alexandro Handia, esaterako, aurkezten digute heroiotasunaren eredu balitz bezala, jendea hiltzen jo ta ke jardun zuen putakume bat besterik izan ez arren, bihotz zimikorik gabeko sarraskitzailea bat izatea beste *meriturik* ez zuen izan eta. Gure planetako sarraskitzaile guztiek beste xederik ez dute buruan: Alexandro, Karlomagno, Hitler edo Sharon bezalakoak izatea. Putakume aldra galanta, haiek guziak eta euren historialari zorritsuak.

Soldadutxo heroikoz beteriko film heroikoz josita dago Hollywood-eko filmografia. Soldadutxo heroiko horiek, ordea, eskrupulurik eta harrik gabeko erahiltzaile sorta bat baino ez dira. Amerikako etxekal-terik malapartatuenak US Army-n dira.

Estatuak eta herriak Joko Olinpikoetan baino ez lirateke borrokatu beharko. Eta ados ez zegoenari lepoa moztu beharko zitzaion... zorrozkaile batez. (armarik ez!).

Euskaldunberri askok oraindik ez dakite euren ipurdia non hasten den eta euren hizkuntza ezaupideak non amaitzen diren.

Euskaldunzahar askok oraindik ez dakite euren ipurdia non hasten den eta euren hizkuntza ezaupideak non amaitzen diren.

Euskaldun askok zinez jasaterik ez daukatena ez da euskara gaiztoa, disidentzia baizik (jende ergela nonahi dago eta).

Euskal idazle eta itzultzaile kazkar batzuk euren lanbidean benetan onak izatera heldu dira, disentitzeko erakutsi duten gaitasun eskasari —edo gaitasunik ezari— esker.

Borondate handiko euskaldunberri asko daude; borondate txikiko euskaldunzahar asko daude (lerdo faltarik ez daukagun seinale).

Begira zeinen *idiotas del culo* diren zenbait euskaldun, orritxo erdia ere ez baitira idazteko gai *sin cagarla*; aldiz, horietxek jartzen dute gogorik biziena besteok eriaz seinalatzen. Eta zu, horietariko al zara?

André Maurois-en *Climats* eleberria irakurri berri dut frantsesez. Maitasun eleberri guztiak tankera horretakoak izango balira, ez litzaidake inportako genero horretan izena ematea.

Zorionez, literatura daukagu, bizitza petral honetaz ahazteko.

Ez legoke gaizki Donostialdeko Euskal Idazle eta Itzultzaileen Etxea errealitate bihurtuta ikustea. Etxe honetan, debekaturik egongo litzatekeen gauza bakarra sukaldea eta taberna jartzea izango litzateke, ageriko arrazoiengatik. Donostialdeko Euskal Idazle eta Itzultzaileen Etxeko gelak honela banatuko nituzke:

- 1) Liburutegia: liburu plazaratu berriak, harpidetzak, Donostialdeko idazle eta itzultzaileek argitaraturiko liburuak...
- 2) Hemeroteka: Musika erreproduzitzeko aparatu ona, gela hosgabetu edo intsonorizatu batean, eta kalitateko musika soil-soilik:

klasikoa, folk-a, euskal musika, blues & jazz... Soinu-mota guztiak, ohiko banapen komertzialetatik kanpokoak eta kalitateredunak.

- 3) Zinematea: filmak erreproduzitzeko aparatu onak (telebista, bideoa, e.a.). Antena paraboliko baten bidez, Via Digital-eko Cinematik edo antzeko kanalak ikusteko aukera ere barnean sarturik.
- 4) Kultur Aretoa: mahai batzuk, aulkiak, mikrofono eta megafonia sistema...hainbat ekitaldi antolatzeko (liburu aurkezpenak, literatura mintegiak, itzulpen ikastaroak, e.a.)
- 5) Egongela: leku honetan, idazleak eta itzultzaileak (edota bisitariak) denbora pasan airtzeko hainbat erosotasun (mahaiak, aulkiak, edari-altzari bat, kafemakinatxoren bat...), baita jokoak ere (xakea, mahai-jokoak, e.a.).
- 6) Erakusketa Aretoa: margoak, eskulturak, eskulanak, monografikoak, e.a.

Tira, amets polita, ezta?

“Bertso askeak, kateatuko nautenak” liburuaren aurkezpen-ekitaldian irakurritako testua:

Ez dakit poesiaren arrazoia zein den, baina nork daki zein den ezeren arrazoia? Arrazoiak bilatzea, adieraztea ez da erraza; entretenigarria bai ordea. Bizi gara, idatzi egiten dugu... Bai, teorizazio ariketak egin ditzakegu edozein gauzari buruz. Eta galdetu ere egin diezaikegu geure buruari zer dela-eta orrazten dugun ilea goizean edota zergatik hiltzen ari garen minbiziz. Galdera txikiak edo galdera handiak egin ditzakegu. Baina

erantzuna beti eratzun bera da: guk nahi duguna alegia. Erantzunak bilatzen ditugu baina... geure neurrira eginak badira, hobe. Egiten ditugun gauzak zergatik egiten ditugun pentsatzeko astirik ez daukagu. Nik ere ez daukat astirik idatzi ditudan poesia liburuen arrazoari buruz pentsatzeko; zer esan nahi duten zer ez duten esan nahi... Tira, idatzi ditut eta gero lotara joan naiz. Eta bi ekintza horiekin berdin-berdin konformatu naiz. Galdegarrik egin gabe. Baliteke liburu horiek galdera luze bat baino ez izatea, hasieratik bukaeraraino. Eta azken orrira iristean, nituen susmo txarrak egiaztatu ditut penarik eta loriarik gabe: berriz ere orri zuri baten aurrean nongoela. Horra erantzuna. Horra nire poesia liburuen zentzua, paradisuaz mozorroturiko infernu light bat. Eskerrik asko.

*Borroka*ren baitan, Iñaki Irasizabal (Hiria, 2002. urtea). Hasieran, mesfidantzaz ekin nion irakurketari, eta bi arrazoiengatik: euskararen aldetik, oso apala edo iruditu zitzaidalako; eta gaiak, berez, edozertarako bide eman zezakeelako. Zorionez, azkenean ez bata ez bestea: Irasizabalen euskara ez da bere erretorikagatik gailentzen, egia da hori, baina bere zeregina betetzen du, eta egiten du gorabehera handirik gabe. Euskara laua baina eraginkorra da, kontatzen duen istoritxorako egokia; areago, bat dator liburuaren giroarekin eta pertsonaiekin. Bestalde, istorioaz gehien gustatu zaidana datzekion errealismoa izan da. Bai, pertsonaiak hezur eta haragizkoak dira; ez dago inongo idealizaziorik, ez alde baterantz ez beste alde baterantz. ETako militante baten ohiko bizitza izan daitekeena jartzen dizu aurrean naturaltasun handiz. Bai, hori da liburuaren birtuterik handiena: naturala izatea. Ez dago artificio handirik, ez kontaktan ez hizkeran. Noski, itzultzeko lan gutxi emango lioke liburu honek itzultzaileari. Euskal filmagintzan entzutetsu bihurtu izan diren mota horretako istorioa planteatzen du, neurri handi batean. Helburu handiosoen

gainetik gizakion grina askoz apalago baina indartsua-
goak nagusitzen dira liburuko pertsonaiengan; eta une
jakin batean, goi-helburu nazionalak zokoraturik geldit-
zen dira, militanteen barne gatazken ondorioz.

Gu geu ez garen edozeren aurrean beti agertzen
dugun mesfidantza hau —izatearen fortuna norberaren
nortasunari eta gu geu izatea erabaki genuen uneari
loturik egongo ez balitz bezala—. Beharbada, erantzuna
—erreakzioa— bezalakoa da errealitatearen aurrean —
ustekabeko gertaera gisa gertatu zaigunaren aurrean—,
bakoitzari suertatu zaion patuaren arrakastaren arabera-
koa, noski. Eta patua aipatzen dudanez gero, azter deza-
gun gure benetako egoera, zinez bizi duguna, tokatu
zaigun esperientzia izanak izan (merezi baitu horrela
jokatzea).

Bideko prosak, L.M. Mujika Urdangarin (Hiria,
2002. urtea). Oso liburu ederra da. Klasiko bat. Gezurra
badirudi ere, orain ezagutu dut Luis Mari Mujika. Eta
euskal klasiko baten aurrean gaudela esateko dudarik ez
dut. Lehendik irakurria nion *Memoria Galduak* izeneko
eleberria, eta aitortu behar dut ez zitzaidala oso erakar-
garria izan. *Barne Ibilerak* poesia liburuan, ordea, Luis
Mari Mujikari bere benetako tamaina hartzen hasi nin-
tzaion. Formalki oso poema ederrak iruditu zitzaizkidan,
barru-barruraino iritsi ez bazitzaizkidan ere. Hiru liburu
aipatu ditut beraz: *Bideko prosak*, *Memoria Galduak* eta
Barne Ibilerak. Lehena prosa da eta gure literaturan
tradizio aski luzea daukan generotik (nolabait deitzeko)
heltzen zaigu: kontaketa generotik. Baina kontaketa
hitzez hitzeko zentzuan; eta gure lurrari loturiko konta-
keta gainera. Hor, Luis Mariri hegalak ateratzen zaizkio.
Gustura dabil; izadiaren erdian zoriontsua da; eta hitza
erreztasun handiz dario, ahaleginik egin gabe, ikusten

duena eta sentitzen duena azaldu eta gozatuz. Niretzako klasiko bihurtzen da hor. Poesian ere kontuan hartzeko tamaina hartzen du; beharbada, formalki sendoago ikusten dut, helarazi-beharreko beste alderdi horien aldetik ahulxeago ikusten dudan legez. Baina, edonola ere, ezgutu beharreko poesia da Mujikarena. *Memoria Galduak*, berriz, gaurko eleberria da; esan nahi du horrek hor, genero horretan, Luis M. Mujika hanka-motz dabilela? Ez dakit, bere obra osorik ezagutu beharko nuke halakorik baieztatu ahal izateko. Dakidana hauxe da: *Bideko prosak* liburuarekin bakarrik, Mujikak ohorezko lekua irabazia duela euskal letren paradisuan (eta oker ez banago, Txindoki inguruetan legoke paradisuaren euskal bertsioa, ezta?).

Ensayo sobre la ceguera, José Saramago (Punto de Lectura, año 2001). Liburuak hasieratik bertatik harapatu nau. Eta lauhun eta koska orriko liburua izan arren, ia-ia ez naiz enteratu ere egin. Beharbada, horixe da euskal literaturan oraindik huts egiten diguna: liburu luzeak, *bukatzeke zenbat orri falta zaizkigun* pentsarazten ez digutenak. *Ensayo sobre la ceguera* liburu kaotikoa da. Badago film bat, zaharra, *La semilla del espacio* deritzana, eta hor ere antzeko zerbaite gertatzen da, hau da, lurreko biztanlerik gehienak atmosferan izaniko fenomeno baten ondorioz itsu gelditzen dira. Gidoi aldetik, horixe da burura datorkidan parekotasun bakarra. Gero, ezaguna da Sabatok itsuekin zeukan... obesioa (nolabait esateko). Egia esan, idazleen —eta intelektualetan— gaitz bat, oso zabaldua, itsumena da (Borges itsu hil zen), bizitzan gehien darabilten zentzumena ikusmena delako. Baina liburua harantzago doa; badago halako... parabola bat: errealitatean ez ote dugu jokatzen itsu egongo bagina bezala? hau da, munduan gertatzen diren izugarrikerien aurrean, gizateria osoa ez al dago itsu? Dante ere datorkit burua nobela honetaz pentsatzean, bere orrietan deskribatzen digun egoera infer-

nuaren aurrean jartzen baikaitu. Gizakia zeinen suntsibera den konturatzeko gara, eta zer gutxi behar den paradisuatik infernu gorrira igarotzeko.

Ez nago ados Donostiako Bilintx Liburudendaren sistemarekin. Hau da, sartzen zara dendan eta liburu bakar batean ere ez dago prezioa jarrita. Liburu "jakin" bat erostera sartzen bazara, tira, ez du garrantzi handirik: prezioa galdetzen duzu, eta kito. Baina kuxkuxean aritu eta hainbat liburu eskuratzeko asmoz joaten bazara liburudendara, sistema horrek ez duela balio garbi dago. Ordaindu arte ez dakizu zenbat kostako zaizun liburu bakoitza; edo hobeto esan, erosketa-txartela irakurri arte ez dakizu liburu bakoitzaren prezioa zein den. Bai, egia da han norbait dagoela, liburu bakoitzaren prezioa zein den argitzeko; baina ezin zara ibili behin eta berriro "ea liburu honek zenbat balio duen" galdetuz. Badakit, hala ere, liburu bakoitzean prezioa jartzea zeinen lan eskerga den; eta alde horretik, ez dut esaten lehengo sistemara berriz itzuli behar denik, beste irtenbide batzuk bilatu behar direla baizik. Esaterako, prezioak kontsultatzeko ordenagailuak jendearen esku uztea; edo bestela, apalategi bakoitzaren ondoan (gaikako apalategien ondoan, alegia) liburuak izenburuen edo egileen arabera sailkatu eta bakoitzaren prezioa jarri. Horrela, liburuetan ez lirateke prezioak jartzen ibili beharrik izango, baina bai jendaurreko taula batzuetan edo. Noski, diru aldetik baliteke sistema berriak nahiko emaitza onak ematea; hau da, marketing teknikei aplikaturiko trikinuela psikologiko horietariko bat izatea. Edonola ere, gauzak dauden bezala, gaizki daude, dudarik ez.

"Prestige"-ren hondamendiari buruz... zer esan dezaket? Hitzak berak argi dio eta: hondamendia. Egoera hobeto azaltzerik ez dago. Eta ados nago, bai: la-

gundu egin behar zaie; Galiziak denon elkartasuna behar du. Hala ere, ezin diot pentsatzeari utzi Galiziako Xuntako Lehendakaria nor den, eta urte luzeetan (lehenbiziko hauteskundeak egin zirenetik, oker ez bano) nor izan den: Manuel Fraga Iribarne. Ez du aurkezpen beharrik euskaldunon artean, aspalditik dakiguetan frankista horren berri. Baina, Galiziako Lehendakaria bada, ez da kasualitatez izan, ezta bortxaz ere: galiziarren gehiengoaren borondateaz baizik. Eta, zer daki multzo fazista horrek elkartasunari buruz? Ikusita, frankismoak nolako tratua eman zigun euskaldunoi —eta, gaur egun ere, *korronte* horretakoek nolako mesprezuz eta berekoikeriaz tratatzen gaituzten—, horiei ere elkartasuna erakutsi behar diegula pentsatzeak sutan jartzen nau. Egia esan, nigatik balitz, hatz bakar bat ere ez nuke mugituko fazista eta koldar horiei laguntzeko. Gainera, Galiziako jauntxoek boluntarioen bizkar barre egiten ez ote duten ere susmoa daukat: «*Hau bai laneku merkea, halafede!*» Dena den, ez dugu itsu jokatu behar. Hondamendi baten aurrean, denak biktimak dira, bai... Hala ere, ezin burutik kendu Galiziako Xuntako Lehendakaria nor den... nork jarri duen hor... nolako *elkartasuna* jasotzen dugun tipu horrekin identifikatzen direnengandik...

Idazleak saihestu egin behar du «idazle erretxina» izatea; hortxe agertu behar ditu, hain zuzen, bere tamaina, bere gizatasuna, bere maila... arrakastan edota saldutako ale-kopuruan baino. Eta hori ez dakien idazleak ez daki ezer; idazle analfabetoa da.

Donostiarra banaiz ere, beti erdeinuz begiratu diot gure hiriko donostiar multzo tipifikatu bati. "Donostiarismo" palurdo eta klasista, erdal giroari lotutakoa gehien-bat, Donostia hiria ia-ia zeharo hondatu eta

alferrrik galdu duena...dut bereziki gogoan, noski. Zer esanik ez, Donostia hori ez dut inondik ere maite; sekula ez dut maite izan: espekulatzailen Donostia, "pepero"-ena, burgesia koldar eta palurdo batena... Aspalditxo honetan, espiritu horren adibide ezin garbiago bat (beste bat) aurkitu ahal izan dut; oraingoan, trafikiko kontuei lotua. Antigua auzoan, betidanik, ez da aparkatzeko arazo handirik izan; "villa" auzo horren inguruan, esaterako, goizeko bederatzietatik gautu arte, oro har, ez da inongo arazorik izan aparkaleku bat aurkitzeko. Salbuespen bakarra, udako hilabeteetan, noski. Baina urteko gainerako hilabeteetan, aparkatzeko arazorik ez. Beno, ba. Donostiako Udalak bere ohiko jarrera klasista eta apartheid-en aldekoa erakutsiz, Antiguako eremu handi batean aparkatzea debekatu du. Beraz, lehen espekulazioaren bidez bertan bizitzeko eskubidea kendu baziguten, orain kaleaz ere jabetu egin dira musutruk donostiar jauntxo eta andere txit gorenak. Egoera zinez adierazgarria da: toki piloa aparkatzeko libre, baina lurrean pintaturik mezu bat: erReserbatua. Tira, halako gauzak Donostiako erdialdean (Askatasun hiribidean eta Artzain Onaren inguruko kaleetan) egitea, ba ulertzekoa da, zeren han ez baitago, egia esan, aparkatzeko leku handirik eta trafikokoaren joan-etorria izugarria baita; nekez ikus daiteke han leku bat bera ere libre. Baina Antiguako eremu horretan, alderantziz hain zuzen gertatzen da: leku guztiak libre daudela baina ez dizutela aparkatzen uzten, "erreserbatua" delako. Zuek imajina dezakezue unetxo batez ere donostiar batek Astigarragara edota Hernanira etortzea, aparkatzeko ehunka toki libre egotea baina hala ere Donostiara itzuli beharra izatea bertako toki guztiak "erreserbatuak" direlako? eta bai gaez bai egunez... libre, ia denak? Aizue, OTA sistemak aplikatzea gauza bat, eta beste gauza bat da toki batean etxea erosi duenari kalea ere oparitzea. Antiguana, behar izanez gero, OTA sistema ezarri beharko zuketean, Donostiako hainbat eta hainbat auzotan egin duten bezala. Sistema hori sistema ona delako; mundu guztiari aparkatzeko aukera ematen diolako; eta bertan bizi den

auzokidea kontuan hartzen duelako. Antiguako eremu hori, ordea, aparkatzeko ez zuen lehendik arazorik; baina erabakirik muturrekoena hartu dute: erabateko debekua, bertan bizi diren jauntxo ez-solidarioen mesedetan. Tira, Odon Olorza, badakizu: Astigarragara etortzen zarenean, etorri autobusez, oinez edo astoz; zeren leku guztiak "erreserbatuak" aurkituko dituzu (ea geuk ere ikasten dugun zerbait, donostiar txulapa eta klasista horiengandik).⁴

Euskal Herriak zor bat dauka euskaldunberriekin. Eta batzuk oraindik ere zain gaude, noiz kitatuko. Herriaren aldetik jaso beharreko ezagutzaz, aitortzaz edo errekonozimenduaz ari naiz, euskaldunberri onei euskaltzale guztiek zor dietena. Noizko, urteko euskaldunberririk onenari emandako saria, eta horrelakoak? Nik uste dut horrek harrera ezin hobea izango lukeela, bai jendartean bai euskal erakundeen artean. Azken batean, zer sinbolizatzen du euskaldunberriak, hizkuntzaren berreskurapena eta hizkuntz iraultzarik erradikalena baino? Eta iraultza diodanean, egoera bidegabe baten aurkako iraultzaz ari naiz. «Egoera batzuk bidegabeak dira, baina horrek ez du esan nahi ezer egiterik ez dagoela; beitu, gu hemen gaude», diosku euskaldunberriak. Eta holaxe da, bai, euskaldunberria hortxe dago: unibertsitatean, ikaskuntza- eta irakaskuntza-maila eta mota guztietan, euskal literaturan eta itzulpengintzan, kalean, komunikabideetan eta batez ere... famili giroan. Nire ustez, Euskal Herriko herri bakoitzak, bizpahiru urtean behin edo, euskaldunberri bat saritu beharko luke (herri bakoitzak berea); saritu edo omendu, nahi duzuen bezala, beste batzuen eredugarri eta pizgarri izan dadin.

⁴ Berriki, Amara Berrin ere agertu dira "R"ak. Komentariorik gabe.

Uste dut Jainkoak gu ikusten gaituela guk inu-
rriak ikusten ditugun bezala: txeratsu eta indiferentziaz.

Euskal Karma, Jon Alonso (Susa argitaletxea).
Liburua ez dut gozatu; zentzu handirik gabeko nahas-
keta handi bat baino ez zait iruditu. Nobelan zehar hain-
bat hari agertzen dira, agertu bezala desagertu egiten
direnak. Ona da, bai, Jon Alonsoren euskara (nirea
baino hobea), baina hori ez da nahikoa literaturaz goza-
razteko. Itzultzailea naizen aldetik, irakurketa baliaga-
rria zait, Jon Alonsoren euskarak daukan indarra neren-
onen euskara indartzeko balio didanez gero. Baina betiko
kontuaren aurrean gaude: hizkuntz arrazoiengatik ira-
kurtzea da hori (irakurketa *militantea*, alegia). Eta nik
gozatzeko nahi dut literatura irakurri. Gozatzeko, soil-
soilik.

Euskaldunon Egunkaria, 2003ko urtarrilaren 2a.
"Galdegiozu...?" zutabetxoa. Itxaro Bordak "%100
basque" kaleratu du Interneten eta horren haritik hauxe
dio egileak: "[...] *Zintzilik dago autore eskubideena;*
baina alor horretan segur aski kultura munduko legegi-
leek zer edo zer asmatuko dute. Tasa arin berezi bat
gehi liteke ordenagailua eskuratzekoan edo konekta-
tzeko sistema erostean. Musikan nola, literaturan hala,
arazo bakarra idazlearen deretxoetan datza". Baina,
"ordenagailua eskuratzean edo konektatzeko sistema
erostean" tasa arin berezi bat gehitu behar dela? Hori
zentzugabekeria galanta da. Musikan ez da horrela egi-
ten gainera. Musika eskaintzen duen webgunean sar-
tzeko, ba bai; jendea diru kopuru bat ordaintzen hasi da.
Baina... webgune horretan sartu nahi duenak bakarrik
ordaindu behar du; sartu nahi ez duenak ez du ezer or-
daindu behar —zorionez—. Eta liburuekin, gauza bera.
Liburuak eskaintzen dituen webgunean sartzeko, diru

kopuru bat ordaindu eta diru kopuru horren truke bertan dauden liburu guztiak jaisteko aukera izatea, adibidez, arrazoizkoa izango litzateke; edo liburu bakoitzaren truke, diru kopuru bat ordaindu; ez dakit... Hainbat bide egongo dira, noski. Baina ordenagailua eskuratzean edota konexio sistema erostean, zenbateko bat eskatzea ba zentzugabekeria iruditzen zait. Ordenagailuak ez dira fotokopiagailuak. Bakoitzak ordain dezala eskuratu nahi duena; agintariak lapurtzen digutenarekin, denok badugu nahikoa eta. Zerga gehiagorik ez, Itxaro, mesedez.

El Círculo (V.O.S. Zuzend.: H. Nakata, 1998 - Cinematk).- Terrorezko film honek bere helburua lortu du, nirekin behintzat, benetan ikaratu baininduen filmeko izaki ikagarriak. Oro har, nahiago izaten dut istorioak kontatzen dizkidan zinema fikziozko istorioak kondatzen dizkidana baino. Dena den, generoak ere ez dago zertan mesprezatu. Eta kasu honetan, filmak ongi lortuak zituen bere helburuak, eta ia-ia odolik bat ere isurik gabe (ea ikasten duten Hollywood-eko tontolapikoek). Ez dakit, baina une batez zera pentsatu nuen, gidoiaren mamia ez ote zegoen Japoniako elezaharren batean oinarrituta. Jakina, amaiera apur bat *lukurrero* gelditzen zen, mundu guztia gonbidatzen baitzuen filma ikustera...

Den-dena galduta dago ilusioa hiltzen denean; aitzitik, den-dena irabazteko dago bizirik dirauenean. Bestalde, oraindik ez da jaio herri oso baten ilusioa hiltzeko gai den armadarik, estaturik (horretarako, genozidioaren muga zeharkatu behar da: eta halako izugarrikeria batean parte hartzen duenak badaki zer itxarongo dion haren heriotzaren orduan; bai, jantzi ditzala orduan bere dominarik distiratsuenak, askorako balioko diote han, bai...).

Badago euskal idazle mota jakin bat nire mesprezu osoa daukana: haren taldetik urrunduz gero, gorroto izugarria hartzen dizuna. Izan behar duzu haren *kastakoa*, haren *argitaletxekoa*, haren *ibilkidea* (eta haren *herrikidea* bazara, hainbat hobe). Baina arrazoi batengatik edo besterengatik beste bide bat hartu baduzu, edota darakutsazun espiritua berearekin bat ez badator, orduan benetako gorrotoa hartuko dizu. Zenbait idazlek (agintari prepotenteekin gertatzen den bezala) bestelakotasuna jasaterik ezin dutelako (hori bai, ahoa beti ongi beteta izango dute halakoek "errespetu", "benetako demokrazia" "askatasun" eta antzeko hitzekin). Euskal Herria eta euskal literatura galbidera daramaten halako *nazkagarri* asko dira gure artean. Baina primeran disimulatzen dute, hizkuntza edota gizarte kontuetan iraultzailearena eginez. Euskal intelektual poteatzailearen profilarekin bat datorren euskal idazle andana dago, zoritxarrez, bestean *eredugarri*: idazle eta intelektual ahobero, mihiluze, harroputz eta liskareroak. Hori bai, gero lanak dauzkagu euskal liburuen bertsioak beste hizkuntza batzuetan argitaratzen. Eta ez horretarako ongi prestaturiko itzultzaileak falta zaizkigulako; baizik eta, askotan, maila falta zaigulako. Maila, idazle onen aurrean azaltzeko.

Baina, sufritzeko daukagun joera hau, geure kristau tradizio eta kulturaren emaitza al da? Hala balitz, hobe genuke lehenbailehen horietatik askatzea.

La casa de juegos (V.O.S. Zuzend.: D. Manet, 1987 - Cinematk).- Oraingoan, suspense film baten aurrean gaude. Ondo egina dago eta aspertu gabe egon

naiz telebista aurrean. Une jakin batean, ikusleak barruntatu egiten du zer-nolako jukutria egin dioten neska gaixoari, eta hori ez dakit ona ala txarra den mota horretako filmen kasuan. Dena den, beti da hobe suspensea bukatu arte gordetzea... Edonola ere, neska ez zen horren gaixoa, eta ederki jakin zuen mendeku hartzen. Egia esan, bukaera nahiko tremendista iruditu zait, baina tira...

La balada del viejo marinero, Egilea: S.T. Coleridge / Marrazkiak: Gustave Doré / Itzultzailea: Jaime Siles (Círculo de Lectores).- Erromantizismoaren garaiko poesia-liburu zoragarri hau edonozetini gomendatzeko modukoa da. Poemak daukan indarra eta Gustave Doré-k eginiko ilustrazioak bananduezinak dira; argi baino argiago dago elkar osatzen dutela. Eta bata bestea gabe, emaitza asko jaisten dela. Jaime Siles-ek eginiko itzulpenari dagokionez, hitzik ez dut egin duen lana goraiatzeko, zinez zoragarria baita. Ingelesetik gaztelaniarako itzulpena ez da mugatu mezua lekualdatzera; aitzitik, poesia sortu du. Oso zailak dira mota horretako itzulpenak. Beraz, poema zoragarria, marrazki liluragarriak eta itzulpen mirezgarria. Den-dena liburu berean. Nork ematen du gehiago?

Ez da maitasuna mundua ibilarazten duena, sexua baizik. Baina, nori interesatzen zaio errealitatea? Sexuan gizabanakoaren aldakuntza gertatzen da; hura bera izateari uzten dio eta daukan sentsazioak izatera igarotzen da, haren buruaren sentsazio bihurtzen delarik. Sentimenduekin zerikusirik ez, beraz. Sentimendu gorrotagarriak, hortxe beti, sudurluze baten antzean... Ferekatik abiatzen den emultsioa, plazerraren olatuaren aurka lehertarazten gaituena. Eta gero, gorputzen eder-

tasun biguna, itsu eta kezkarik gabe garraiatzen gaituena...

Eta mintzatu eta mintzatu egiten da gure egunotan. Eta nola mintzatzen den! Benetako hitz jarioa da...

Risa en la oscuridad, V. Nabocov (Círculo de Lectores).- Nabocov-ek ez du aurkezpen beharrik, Lolita-ren sortzailea denek ezagutzen dute eta. Liburu hau erraz irakurtzen da; ez dio irakurleari aparteko ahaleginik eskatzen. Arina, ongi idatzia (ongi itzulia, beraz) eta arrapaladan gertatzen diren istorio horietariko bat. Honaino, dena ondo. Nik, hala ere, *baina* bat ikusten diot nobela honi: sinesgarritasun falta piska bat alegia, batez ere liburuaren amaiera aldean (protagonista itsu gelditzen denetik aurrera) agerian gelditzen dena. Literaturatik zinemara erraz salto egiten duten liburu horietakoa ematen du. Nahigabe atera al zitzaion horrela Nabocovi? ala aldez aurretik izan ote zituen kontuan alderdi zinematografikoak, eta batez ere, Hollywood-eko zinemagintzak propio dituenak?

Kobazuloan bizi garelako sentsazio nekagarri hau... ibaian gure benetako irudia islaturik ikustez beldur, seguraski...

Eta nolako plazerra hartzen dugun pertsona maittea zauritzen dugunean, eta maitatzeko daukagun ahalmen suntsigarria bera umiliarazteko erakusten dugunean...

Fantasia erotikoak bide ezin hobe dira eguneko tentsioa berriro *bideratu* eta *birziklatzeko*.

Bizitzako premia oinarritzko guztiak — gizabanakoaren alderdi fisikoari dagozkionak— erabat asebeteta daudenean, isolaturik bizi garelako sentazioa ez da barruan daramagun beste bizitza horren isla baino, zeren inkontzienteki ere ez baikara hura isilarazteko gauza —are gutxiago erreprimitzeko gai.

Pentsamendua existentziaren arima da. Hura gabe, deus baino deusago gara.

Inguratzen zaigun bakardadea txakurraren lepoko bezalakoa da: jabeak baino ezin dio kendu.

365 *Ipuin*.- Testua: L.G. Corella / Euskaratzaila: I. Mendiguren (Susaeta argitaletxea). Gaez ipuinak kontatzeko ohitura daukagu gure etxean; seme txikiarekin holaxe egin dugu aspalditik (ipuinak entzuteko gai denetik). Beraz, ipuin askotxo kontatuta eta entzunda dauzkagu, lotarako baino lehen beti. Liburu honek 365 ipuin dakartza, urteko egun bakoitzeko ipuin bat alegia. Guk erdia edo irakurri dugu. Eta egunean bizpahiru ipuin, edota batzuetan baita lau ere. Oro har, ongi daude. Eta edozein gurasori gomendatzeko moduko liburua da. Ni, hala ere, pagano samarra naiz. Ez naiz oso jainkozale. Eta nik liburu honi horixe ikusi diot: halako asmo *irakasgarri* bat, *eredugarri* bat beti, edo behintzat,

bai askotan. Azkenean, sei urteko semea eta biok ironia piska batez hartzen genituen liburuko ipuinak, eta "ipuin maitagarriak" deitzen genizkien, asmo txar apur batez. Dena den, esan bezala, oro har ongi daude. Hori bai, batzuetan ipuina birkontatu behar nion semeari; eta ipuinak ongi itzulita daude (oso ongi itzulita daude, egia esan). Gertatzen dena da idazkera batzuetan jasoeegi gertatzen zela; beraz, nire sei urteko semeari berriro kontatu behar nizkion gauzak, baina nire erara, hizkera apur bat erraztuz, alegia. Nik uste dut honako akats hau (zeren akatsa baita) oso zabalduta dagoela haur literatura osoan. Iruditzen zaigu testu bat egoki idatzita egoitea nahikoa dela, eta batzuetan bai, nahikoa da. Baina urte gutxiko haurrekin ari garenean, den-dena aldatzen da; 8 edo 10 urteko haurrekin balio duten irizpideak handiegi datozkie 6 urteko umeei. Azken batean, umeak ez du ipuina hartzen leitzeko, baizik eta entzuteko. Hor dago koska...

Amets egiteko ipuinak.- Hainbat irudigile (Susata argitaletxea).- Liburu zinez miresgarria da. Dakartzan marrazkiak eta margoak txapela kentzeko modukoak dira. Batzuk, benetako arte-lan. Istorioak ere politak dira; baten bat, aluzinatzeko modukoa. Liburu eder honek arrakaska handia izan zuen nire semearekin.

Ezin dugu ihes egin geure esklabo izaeratik. Horregatik, nik uste dut, ezen, Jainkoa existitzen bada, fetitxista izan behar duela —sado-masokismozale horietariko bat—. Eta gu, Haren isla fidela, nola ez... Hala balitz, sadomasokistak izango lirateke Jainkoaren esentziazatik hurbilenik daudenak; eta are hurbilago, zaletasun sadomasokistak dituzten begiluzeak. Zeren, azken batean, zer da Jainkoa begiluze bat baino...?

Maitalearen nostalgia sentitzen dugu. Eta, egia esan, haren hutsunea sumatu dugu urte guztiotan... haren isiltasuna gorabehera eta haren erabateko urruntasun konponezina gorabehera. Maitasunari buruzko ideia *loratua* —idealizatua— ez da inoiz hiltzen. Nork jakin...

Idatzizko hitzen premiaren esku bere burua uzten duenak hausnarkariak belarraz duten premia berberari jarraikitzen dio (premia berbera da; zentzu berbera). Hortaz, premia animikoa eta premia fisikoa elkar erakartzen duten aurkariak baino ez dira... biak batzen diren arte (bizia iraungi eta herioa berriz ere sortzen denean). Azkenean, badirudi anarkistek arrazoi zutela.

Klaseen arteko borroka espezieen arteko borroka bezalakoa da: krudela eta saihestezina. Bizirik ateratzea berez garaipenik handiena da eta.

Aurkitu animaliak lurrean.- Ttartalo argitaletxea (Girotxea eta Testua: P. Rovira / Itzultzailea: J. A. Sarasola / Ilustrazioak: F. Arredondo). Liburua oso ongi dago. Umeei gustatzen zaie halako ariketak egitea: zenbat animalia dauden bilatu, sarkinak aurkitu... Ilustrazioak kalitate handikoak dira, eta umei ez zaizkie oharkabean pasatzen horrelako gauzak. Hiztegia eta begia aberasteko pentsatua.

Asterix eta La Traviata.- Alberdaniak argitaratua. Itzulpena: Joxan Elosegi. Nik lehendik hainbat Asterix irakurrita neuzkan euskaraz. Batez ere, Joxemari Azurmendik eginiko itzulpenak ziren eta beti iruditu zitzaizkidan oso ederrak, ongi eginak, kultuak eta ulerterrazak. Joxan Elosegiren lana oso ondo dago, baina erraztasunaren aldetik, nik uste dut Joxemari Azurmendik hobekixe asmatu zuela. Esaterako, Azurmendik itzulitako zenbait Asterix semearekin irakurri nituen, eta oro har, ongi ulertzen zituen ozenki irakurtzen genituen biñetak. Asterix eta La Traviata-ren kasuan, ordea, ulerkuntza apur bat zaildu zaigu. Izan daiteke hitanoaren erabilpenagatik. Nik ez dakit zein punturaino ote zen komenigarria Asterixen kasuan hitanoa erabiltzea, zeren kontuan harturik euskararen egoera eta hitanoaren zabalera-eremua, ba garbi zegoen gazte asko (eta zer esanik ez, ume asko) irakurketa horretatik kanpo geldituko zirela. Gainera, Asterix-en komikietan lagunarteko giroa da nagusi, beraz hitanoaren erabilera etengabea da liburu osoan. Nik esango nuke horrek zailtasunak areagotu dituela, eta gazte jendeari zuzendutako liburua izanik, gehiago jo beharko litzateke —nire ustez— erraztera, zailtzera baino.

Egun batean, nire liburuak nortzuei oparitu aukeratu behar izan nuen: editoreei, ahantziari ala irakurleei oparitu. Eta noski, nire liburuak irakurleei oparitzea aukeratu nuen. Geroago, ordea, gauza bera egiten amaitu nuen editoreekin. Eta ziur nago noizbait ahantziak ere izango duela nire eskuzabaltasunaren berri.

Ocho sentencias de muerte (V.O.S. Zuzend.: R. Hamer, 1949 - Cinematk).- Umorezko istorio polit eta entretenigarri honetan, zinema zaharra «sasoian» agertzen zaigu. Gidoia oso ongi garatuta dago eta filma be-

raz gustura ikusten da. Film gutxitan bezala, off-eko narratzailearen ahotsak kontakizunaren ardura dauka. Eta esan behar dut narratzaile horren hitzak oso dotoreak iruditu zaizkidala, hau da, ongi idatzita zeuden ingelesez eta ongi itzuli dituzte gaztelaniara. Filmeko protagonistak zortzi lagun hilobira bidaltzen baditu ere, inongo bortxakeriarik gabeko film entretenigarria da, umorez kontatua (egungo zine zuzendari batek baino gehiagok izango luke zer ikasirik halako film batetik, zeren entretenitzeko filmak ere onak izan daitezke, baldin-eta gidoi on batean oinarriturik badaude — nazkaturik gaude zineman hainbeste karatedun eta pistoladun ikusteaz—).

Eta egun batean, eguzkiaren iraungitzea ikusiko dugu. Eta jakingo dugu gure bizitzako azken eguna dela. Animalia basatiaren antzera biziko ditugu azken une horiek; azkeneko aldiz begiratuko diogu paisaiari. Eta harrotasuna sentituko dugu gure barruan hedatzen; eta bihotza pozak harturik lehertuko zaigu eta zoriontsu sentituko gara. Holaxe nahi dugu hil; eta holaxe hiltzen gara.

Askatasunez pentsatu behar dugu, beldurrik gabe. Ez dugu hizkuntzekin kartzelarik egin behar. Ezta ahaztu ere ez garela gu hizkuntzen zerbitzuan gaudenok, alderantziz baizik. Hizkuntza batean baino gehiagotan bizi diren herriek bide bat aurkitu behar dute euren hizkuntza bakoitzarentzat (normalean bi hizkuntza izan ohi dira, askoz zailagoa baita bi hizkuntzatan baino gehiagotan bizitzea ama hizkuntzak ematen duen segurtasun eta eraginkortasun berberaz). Hizkuntza guztietan dena esatea posible da; baina denok ezin dugu berdin hitz egin hizkuntza guztietan. Bietan ere, alderik badago. Edo, hobeto esan, nahiagotasunik. Hizkuntzen

erabilgarritasuna —eta bestelako esparruetan haiek erabiltzeko dugun gaitasuna— dira herri elebiduna finkatzen dutenak —eta batzuetan galdu ere egiten dutenak—

«Hizkuntza guztietan den-dena esatea posible da». Gezurra. Hizkuntza bakar batean ere ez da posible ia ezertxo ere esatea (esan nahi genukeenaren %1 baino ez gara adierazteko gai —beharbada, %1 asko da—).

Eta bere biktima nola itzaltzen den ikusten duen hiltzailea. Eta biktima, bere bizitza nola itzaltzen den beha ari den hiltzailea ikusten duena. Eta biktima, haren arrenkura ulertzen ez duena. Eta hiltzailea, bere biktimaren arrenkura zaharra orain ulertzen ez duena. Heriotzaren misterioak den-dena berdintzen baitu. Eta azkenean, hiltzailea eta biktima gauza bera dira. Biak, basatiak... Eta haien harridura... Eta haien desespero trastornatua... Neguko egun batean umeei kontaturiko ipuin baten amaiera.

La mirada de Ulises (Zuzend.: T. Angelopoulos, 1995 - Cinematk).- Aspaldi honetan ikusi ditudan filmik ederrenetariko bat da. H. Keitel aktorearen magiak markatzen du film osoa, hasieratik bukaerara arte. Balkanetan gertatzen da dena. Gerra-hotsak, beraz, nonahi. Eta guztiorren erdian, gerraz ahaztu nahiz baina aldi berean ahaztu ezinean, hiru bobinaren bila dabilen gizona. Hiru bobina: filmategi nazionaleko lehen filma! Eta hiru bobina horiek lortu nahian, benetako epopeia biziko du Keitel-ek. Bidaia horretan denbora izango du denetarako: maitasuna aurkitu eta galtzeko, lagun zaharrekin elkartzeko, polizien eskuetan erori eta berriz ere eskapa-

tzeko, Sarajevon dantza egin eta malkorik mingotsenak isurtzeko... Jaun-andreok, haxe da zinema: zazpigarren artea.

Esatekorik ez eternitateari buruz. Gainbehera guztiak holaxe hasten dira. Isiltasunari lotuta. Gero, airea galtzen doan globoaren parekoa da errealitatea. Baliteke errua gurea izatea ala ez. Iradokimenak antz handia du fatalitatearekin: ez dago inoiz —erabat, behintzat— norberaren esku. Badator eta badoa. Edo badator eta ez doa. Edo ez dator.

Bai barregarria, idaztearekiko grina ergel hau...

Maitasuna ikaragarri sakona da, barrutik ikusita; eta ergelkiro azalezkoa, kanpotik ikusita.

Bidaiak eragiten digun harridura besteei helarazteko gauza garenean, orduan hasten da bizitzako bidaia; ordura arte, bidaiatzen egon izanaren sentsazioa baino ez dugu izan bidaia osoan, hortxe, eroso-eroso jarrita gure 1., 2. edo 3. mailako bagoian.

Zahardadeak heriotzaren edo gaixotasunaren sentsazio berbera eragiten digu: besteei baino ezin zaie gertatu, baina inoiz ez geuri. Segurtasun horixe da izadiak eman digun babes mekanismorik handiena, suizidioaren aukera bera ere hutsal bihurtzeraino.

Europa... Europa zaharkitua. Traizioz, hilketaz eta erlijio faltsuez jositako bere historia nola jaurkitzen digun txu antzo. Europarra izatea eta burtsaren gorabeherak pairatzen dituzten akzio batzuek izan dezaketen balioa antzekoa dela uste dut.

Lehenago jarri dudan film zerrenda pedante horretatik 15 film aukeratu behar izango banitu, honako hauek aukeratuko nituzte (zerrendako beste filmak inolaz ere mesprezatu gabe): Barry Lyndon, Vidas Cruzadas, Underground, Amores Perros, Allonsanfan, Night and the City, La otra América, Zelig, El árbol de los zuecos, Les mille et une recettes du cuisinier amoureux, Chicago Cab, El sueño de Arizona, Los Duelistas, Ran eta La mirada de Ulises —adibidez.

El gran Houdini (Zuzend.: G. Marshall, 1953 - Cinematk).- Film honetan, mago ospetsu baten bizitza kontatzen zaigu gutxi gorabeherako egiaztasunez. Filma berez entretenigarria da eta Toni Curtis aktore ez oso konplikatuari ongi datorkio roll-aren antzespina. Houdinik magiarako benetako grina zeukan; bere lanbidea maite zuen eta hortik kanpo zorionsua izaten ez zekien. Agian, hori izan daiteke film honetatik atera dezakegun leziorik ederrena: geure buruarekin zintzo jokatzeko, izan nahi dugunari eutsi behar diogula. Bestalde, pertsonaiaren beste birtute batzuk ere goraipatzekoak dira: apala baina ausarta, bihotz eta temple onekoa, apur bat bihurria...Film atsegina, denbora pasatzeko.

Giza harremanek barrutik zikintzen gaituzte, baita bakardadeak ere. Harrapaturik gaude.

Jaioberriaren begirada lainotsuak kordokatu egiten gaitu darion egiazkotasunagatik, itsuen mugimenduaren antzeratsu. "Geu gara errudunak" pentsatzen dugu. Eta maitasunez eta gorrotoz begiratzen diogu apur bat gehiago gu sufriarazteko heldu berria den izaki txikiari (lehendik genuenarekin nahiko ez bagenu bezala).

Merezi duen pentsamendu bakarra pentsamendu intelektuala da. Gainerakoa, zarata baino ez da —pentsamendu errutinarioa.

Idatzita geneuzkan lau lerro zorritsuak galtzen zaizkigunean, gu ere galdurik sentitzen gara (gu beti gure banitatearen esklabu; eta batez ere, gure ñimiñotasun hilezkorren esklabu).

Eta azkenik europarrak Amerikara heldu ziren, eta kristautasunari buruz, maitasunari buruz eta anaitasunari buruz zinez zer ulertzen zuten erakutsi ziguten inongo herabetasunik gabe. Erakundeturiko kristautasunaren emaitza horixe da: arimaren perbertsioa; edo okeragoa oraindik, giza duintasunaren eta maitasunaren (elkartasunaren) perbertsioa, lagun hurkoari dagokionez. Emaitza zein izan zen kontatzea ez da beharrezkoa.

El club de las Strippers (Zuzend.: Ice Cube, 1997 - Cinematk).- Stripper deitzen zaie striptease egiten dutenei. Badakizue, jendaurrean biluzik dantza egitea. Filma halako leku batean kokatzen da eta klub horretako stripper bat dugu filmeko protagonista. Neska polit bat. Normalean, horrelako filmak zaborra izatetik hurbil egoten dira ia beti, "eros"ari baino ez baitiote erreparatzen gehienetan. Kasu honetan, berriz, bestelakoa da. Protagonista haurdun zegoela, gurasoen etxetik alde egin eta unibertsitateko ikasketak bukatzea erabakitzen du. Beraz, diru asko behar du. Eta diru asko irabazteko topatzen duen biderik azkarrena Stripper-ren Klubean sartzea da. Beltz arrazakoak dira protagonistarik gehienak. Beltz arrazako jendeak daukan jeinuaren aurrean jartzen gaitu filmak, beraz. Protagonistak dantza baino ez du egiten; ez du bere burua prostituitzen. Klub barruan ere inork ez du bere burua prostituitzen, dantzan aritzen diren nesketariko batzuk bide horri loturik badaude ere, baina dantzalekutik kanpo beti. Sexu eszenak oso bakanak dira filmean, eta inoiz ez dira agertzen ikuslea "berotzeko" —sexua beti present badago ere, noski—. Filma ez da jeniala, baina ezta oso txarra ere. Stripper-ren mundua hurbiltzen digu, bere alde on eta bere alde txar guztiekin. Protagonista pertsona "garbia" da; ez du bere "lanbidea" maite baina dirua behar du, behintzat ikasketak bukatu arte. Berak borroka egiten du; muga garbi bat jartzen du mundu horren eta bere artean. Baina zipristinetatik libratzea ez zaio erraza gertatuko... azkenean dena "ondo" amaitzen bada ere.

Gu, gizakiok, ideiak izateko benetako makina gara. Ez daukagu gelditzerik. Pentsamendua bere kasa dabil, gutaz harantzago. Automatikoa da, independientea, "auto". Giza edertasunaren espresiorik handiena da. Baina ia inoiz hura ikustera iristen ez garenez, horregatik estimatzen dugu hain gutxi.

Zirrara handia eragiten diguten ekintza kriminalak gertatzen dira. Hala ere, beti dago barkatzeko prest dagoen norbait... nork bere burua sikiera (hiltzailearen kontzientzia eskuzabala) barkatzearren.

"Gizarteko albiste"en kontakatilu bihurturik dabilta hainbat eta hainbat filosofo. Bistan denez, unibertsitatea ez da den-dena (areago: askotan, den-dena baino, deusagoa da).

Klimax delakoa existitzen da haren beharra dugun artean. Behin eskuratuta, ordea, zitalkeriaren zati izatera igarotzen da. Beharbada, bide bakarra eternalki desiratzea da, desira inoiz gauzatu gabe. Seguraski horretan datza dena-delakoaren «objektuaren idealizazioa».

«Nik ez dut inoren bizitza suntsitu; nirea baino ez dut suntsitu eta», esaten zuen zorionsu zorigabeko batek. Zeren bakardadeko bizitzak norberaren suntsipena dakarren bitartean, gizarteko bizitzak ordea beste suntsipena baino ez dakar. Horregatik maite dugu izugarri —eta aldi berean, izugarri gorroto— familiko ordena (beste kontu batzuk aipatu gabe gelditzen badira ere, konplexuagoak izateagatik; edota, soil-soilik, onartzen zailagoak izateagatik).

Hementxe, ezerezaren erdian, den-dena aurkitu dut.

Juego peligroso (Zuzend.: Abel Ferrara, 1993 - Cinematk).- H. Keitel aktoreak ondo aukeratzen ditu gidoiak, eta film honetako protagonistetariko batenez, filmak ezin zigun huts egin. Film apur bat "arraroa" da halere; nahiko "arraroa", egia esan. Seguraski, zinemagintza esperimentalaren ildotik abiatzen diren horietariko delako. Eta emaitza, nik ez nuke esango guztiz txarra denik; baina ezta guztiz ona denik ere. Interesgarria; merezi du ikustea; mezu eta iradokizun asko aditzera ematen dituen filma da. Hala ere, apur bat nahasita agertu zait dena. Noski, hori horrela egina dago nahita; baina, hala ere, ez nau guztiz konbentzitu, asebeste. Gidoi batek erabat harrapatu behar nau, hasieratik bukaerara arte. Eta hasieratik bukaerara arteko bidean, tentsioari eutsi behar dio uneoro. Erdiko bidean atzeman ditut nik halako puntu ahul batzuk. Baina, hala ere, gustatu egin zait. Asmoa, batez ere. Desesperazioa, kontsumismoaren salaketa, sexua eta drogak, genero bortizkeria, hutsune existentzialak, beranduko "damuak", hilketa, sentimendu paraleloak, infidelitateak, tokiz kanpoko "aitortzak", bakardadea, alkohola, egoera absurduak... Plan teamendua ere nahiko berezia egin zait: film bat errodatzen ari dira, baina aktoreen eta zuzendariaren bizitzak filmarekin zeharo nahasten dira; azkenik, zaila da benetakoa bizitza filmetik bereiztea. Areago, filmeko bukaera bera ez dakigu benetan gertatzen den ala filmaren bukaera den. Sinbiosi horretan datza filma ulertzeko giltza. Film on bat, bere gorabeherekin.

Egunkaria, 2003ko urtarrilaren 9a: Barakaldoko gazte bat koma egoeran gelditzen da ertzainek emandako kolpeen ondorioz; gaztea mozkorturik zegoen gertaerak izan zirenean.

Egunkaria, 2003ko urtarrilaren 10a: Iruñeko bi udaltzainek 16 etorkin jipoitzen dituzte basakeriaz.

Antza denez, poliziak bere «egutegi» berezia egiten dihardu. Hori al da agintarien aldetik jaso behar dugun «eredu demokratikoa?» Hala jarraituz gero, Aljerian bezala bukatuko dugu.

Baina, non arraio daude epaileak?

«Perdonavidas: harroputza». Elhuyar Hiztegia. Ba ni ez nago ados horrekin. Egia da, bai, «perdonavidas» delakoa harroputz hutsa dela. Baina «perdonavidas» hitza eta «harroputz» hitza ez dira kategoria bereko bi hitz. Nik uste dut halako ordainak bilatzeko orduan, hizkuntz jeinuaren sakoneko erroetara jo behar dela. Beharbada, euskaldun guztiok ez gaude ongi prestaturik mota horretako irtenbideak bilatzeko, baina nik uste dut zenbait euskaldun halako irtenbideak (halako hitz ordainak) bilatu edota asmatzeko ongi prestaturik daudela. Mota horretako hitzetan hizkuntza baten "grazia" dagoela esango banu, seguraski ez nintzateke oso erraturik ibiliko.

Hombres de Arán (V.O.S. Zuzend.: R. Flather-tay, 1934 - Cinematk).- Film zahar honek oso oroitzapen polita utzi dit. Egia esan, ez dago oso garbi filma ala dokumentala den. Edo hobeto esan, filma da, bai, baina dokumentalaren teknika —neurri batean, behintzat— erabiltzen duen filma. Film on guztiok beti ematen dute lezio bat edo beste aditzera, eta kasu honetan ere araua bete egin da. Horra lezioa: gizakiok itsasoa bezain gogorrek garela. Oso ederra.

Izugarri maite dut ezustean harrapatzen nauen poesia-mota hau. Poesia denik ere ez du ematen, prosa-mozorro horrekin...

Jakinarazi nahi dugun guztia ideia-merkatuetan dago salgai. Azoka zaharra da, mende luzeetako antzinakotasuna duen. Eta beti izan du aurri-itxura bera, azkenetan egongo balitz bezala... Egia esan, horrek on eta guzti egiten dio.

El hotel de los líos (Zuzend.: W.A. Seiter, 1938 - Cinematik).- Film zaharrekin jarraituz, hona hemen beste perla bat: Groucho Marx anaien film zahar bezain ospetsua. Pena bakarrarekin gelditu naiz: filma azpitu-laturik ez egotea, txit atsegina izango baitzen Marx anaiei jatorrizko bertsioan entzutea. Noski, filma lehen-dik ikusita neukan; eta seguraski, behin baino gehiagotan ikusiko nuen, aspaldi-aspaldian, hori bai. Hasiara batean, lehenbiziko ateraldiek susmo txarra eragin bazidaten ere (errazegiak nonbait iruditu zitzaizkidalako), berehala susmorik txikiena aienatu eta gustura handiz sartu nintzen filmaren barruan. Tamalez, auzokoaren telebistak apur bat izorratu zidan dibertsioa. Nik hura ez molestatzeko aurikularrak erabiltzen nituen bitartean, besteak —auzokoak— altuegi jarrita zeukan bere telebista. Egia esan, gaua zen; eta gure eraikina akustikoki ia ez du balio ezer (eraikin askorekin gertatzen den bezala). Horregatik, gauez, gaueko 10:30etatik edo 11:00etatik aurrera, isiltasuna erabatekoa izan behar luke. Eta horretarako biderik onena aurikularrak erabiltzea da telebista, irratia eta mota horretako aparatuek entzuteko. Esaterako, nik gau-gauero film bat ikusten dut; eta beti aurikularrak erabilia. Horri esaten zaio solidarioa izatea. Solidarioa eta *ekologikoa*, kutsadura

akustikoa horixe baita: beste kutsadura mota bat. Eta beraz, saihestu beharrekoa.

Masturbazio mentala masturbazio fisikoa bezain orgasmikoa da; askozaz lurarago zutik badirau ere.

Zenbat alditan, ezetz esatean, ez al dugu baietz esaten, eta alderantziz? Ez, ez dut mundua hankaz gora jarri nahi; mundua den hori —edo hori dela dioten hori— da hankaz gora jarri nahi dudana.

Amateur (V.O.S. Zuzend.: Hal Hartley, 1994 - Cinematk).- Film estrainoa da, baina polita. Ez dakit, badu halako ukitu absurdu bat, atzera eragiten dizuna eta aldi berean harrapatu egiten zaituena. Badago aktore sekundario bat, espresibitate handiko aurpegia daukana eta inpresio ezin hobea utzi didana. Ez dakit haren izena; erreseinan protagonista nagusiaren izena baino ez dator eta. Baina nik gustura ikusiko nituzte hark eginiko film guztiak. Mundiala da. Filmaren sentsualtasunak ere erakarri nau, orekatsua, neurritsua eta kitzikagarria baitzen.

Zeinen zorionsua naizen, neure pentsamendua-
ren jabe naizenean! «And a botle of run!!!», oihu egin
zuten nire lagunek, horditurik (beti bezala).

Jainkoak ahaztutako pentsamendua gara. Hortik, kobazulo batean bizi garelako sentsazioa. Eta filosofia, Sortzaileak gutaz gordetzen duen oroitzapen inkonstzi-

entea baino ez da (berariaz, zer zen gure Sortzailea? meea ala arra? Auskalo!).

Contra el imperio de la droga (Zuzend.: W. Friedkin, 1975 - Cinematk).- Film hau The French Connection izenpean ere nahiko ezaguna da. Bi atal izan zituen gainera (The Franch Connection II), irudi ahaztezin bat utzi zidana: mafiosoek protagonista harrapatu eta "yunky" bihurtzen duten sekuentzia. Gogorra bezain ahaztezina. Egia esan, gehiago gustatu zitzaidan bigarren partea lehena baino. Apur bat topikoa da dena: polizia onak, narkotrafikante gaiztoak, auto jazarpenak, ankerkeriak *a gogó*... Tira, mota horretako filmetan erruz agertzen diren osagaiak. Badu, hala ere, meritu bat film honek: biolentziazko filmagintzan aitzindaria izatea, antza. Eta beste pasadizo bat: film hau egiteko, benetako polizia bat kontratu zuten, filmeko zuzendaria zenbait momentutan aholkatu behar zuena; esaterako, poliziaren "metodoak" nahiko gordin erretrataturik azaltzen dira. Beno ba, polizia hori kuerpotik bota egin zuten erretiro hartzeko zazpi bat ordu bakarrik falta zitzaizkionean. Zergatik? Ba, imajina ezazue: poliziaren metodoak, basakeria polizialak...Nolabait esateko, trapu zaharrak etxetik kanpo haizatu zituelako! Eta hori, noski, ez omen zitzaion gustatu *etxeko nagusiari*.

Batzuetan ez dakit nor den zoritxarrekoagoa, preso dagoen gizakia ala aske dagoena.

Denbora da garrantzitsuena; horixe da gure desesperazioen benetako arrazoia. Suntsitzen gaituen denbora...

Beste bi film, arinki komentatuak: El baile de los vampiros (Roman Polanski-rena) eta El Cohecito (Marco Ferreri-rena). Biak erabat bestelakoak baina sinpatikoak. Jakina, lehena ezin da bigarrenarekin inolaz ere alderatu, balio askozaz handiagokoa da eta. Baina Ferreri-ren filma ere, bere tipitasunean, ikusteko modukoa da, espiritu latinoen mediokritatea beste behin egiaztatu beharrak edonor bere senetik ateratzeko modukoa izan arren. Polanski-ren filmak, berriz, hamaika detaile ditu, denak oso politak, oso kontuan hartzekoak. Banpiroen dantzaldia, amaierako ihesaldia eta jazarpena, banpiro guztiak esnatzen diren unea... Baina, batez ere, filmeko protagonisten amarrugabetasuna da gehien erakarri nauena. Lagun batek kontatu zidanez, hasiera batean filmak, dibertitu ez ezik, beldurtu ere egiten zituen ikusleak. Gaur egun zailagoa dauka azken hori lortzea. Baina, edonola ere, film polita da, entretenigarria, eta batez ere, oso sinpatikoa.

El año de la muerte de Ricardo Reis, José Saramago (Punto de Lectura).- Beti izan dut gogoko poesia. Eta liburu hau, prosa bada ere, poesiaren barnertzea eta begirada ditu, bat ere harrigarria ez dena, kontuan hartzen badugu protagonista nagusia nor den: Ricardo Reis, hau da, Fernando Pessoaen heteronimoetarikoa; areago, Fernando Pessoa bera ere agertzen zaigu noizean behinka liburuko orrietan zehar, jada hilda baina bizirik balego bezala. Kontuan harturik nolako debotzioa izan diodan nik beti Pessoaen oleritari, bultzada handirik ez dut behar izan liburu honen irakurketan murgiltzeko. 600 orrialde inguru, nahiko gustura irakurri ditudanak. Zeinen desberdina, *Ensayo sobre la ceguera* liburuarekin alderatuta! Nire ustez, indar handiagoa zeukan azken honek besteak baino; nondik-norakoa garbiagoa zen behintzat. *El año de la muerte de*

Ricardo Reis liburuak, ordea, beste jarrera bat eskatzen dizu; ez da bestea bezain apokaliptikoa; edo, bestelako apokalipsia da, sutilagoa, zorrotzagoa... Hiltzeko modu asko daude: istripuz, zerrakote batek lepoa moztuta; edo isilka-misilka, ia-ia oharkabea, minbizi sorgor batek irentsita. Irakurketekin ere antzeko zerbait gerta daiteke. Eta niri, behintzat, halako sentsazio eragin dit liburu honek, hau da, Saramagok ezin dio (bere) apokalipsia bizitzeari utzi, baina apokalisi hori interpretatzeko hainbat bide eskura dituela behin eta berriro frogatzeko gai da.

Castillo plazan manifestatu zirenetariko hamar bat gazteri 15 urteko kartzela zigorra ezarri die Nafarroako auzitegiak. Hau da, lehenik poliziak bortizki jo eta orain Nafarroako epaitegiak polizien lana errematatu du, zigor harrigarri eta ulertezin bat ezarriz. Horrela doaz gauzak Nafarroan... Horiek etorriko zaizkigu gero, demokrazia irakaspenak ematera, edota kontu eske...

Los sueños de Akira Kurosawa (V.O.S. Zuzend.: A. Kurosawa, 1990 - Cinematk).- Film eder hau duela hainbat urte ikusi nuen; seguraski, estreinatu zenean edo. Orduan ere ederra iruditu zitzaidala badakit; baina orain berriro ikustean, are ederragoa iruditu zait, gaur egun duela hamar urte baino ikuspegi hobegoan nagoelako, zinemaren balioak juzkatzeko. Irudimen bizi-bizia duela eta burutik pasa zaizkion irudi ederrak zinema bihurtzeko inongo arazorik ez daukala frogatu zuen film honekin Japoniako zuzendari jenial honek. Gainera, harrigarria da mutur batetik bestera nola igarotzen diren Kurosawa-ren ametsak. Esaterako, mertxikondoen filma eta hondamen nuklearrarena bi muturretan daude, eta hori ere harritzeko modukoa da, esan nahi baitu azken batean denok barruntatzen duguna: gure

barruan mota guztietako paradisuak eta infernuak dar-
matzagula; eta paradisu-infernu horietatik ihes egiterik
ez daukagula. Ametsetan nahiz gogoetan galtzeko film
ederra.

Gutaz daukagun sentipena gutaz izan nahi ge-
nukkeen desira bezain bizia da. Nork bere burua engaina-
tzeak mugak ditu eta...

Errealitate bihurturiko ametsa gara: hodeia ze-
harkatzen duen abioia.

Mi vida como un perro (V.O.S. Zuzend.: A.
Berliner, 1998 - Cinematk).- Aspaldi honetan ikusi di-
tudan filmik onenetariko bat. Oso ederra. Filmeko pro-
tagonistari (8 urteko ume bati) ingurutatzen zaion trage-
dia (haren amaren heriotza hurbila) dotorezia handiz
jartzen digu aurrean, baina dramakeriatan erori gabe.
Haurtzaroaren amarrugabetasun eta xalotasun zoraga-
rriak ezin hobeto erretrataturik ikusi ditut suediar zine-
magile trebe honek landutako irudietan. Bati geratzen
zaion inpresioa da hauxe: paradisia existitzekotan,
haurtzaroan behar duela izan. Eta hala ere, paradisu
garratz bezain miresgarri izan behar horrek ere. Zenbait
tokitatik behin baino ez gara igarotzen, dudarik ez.

Eta lurak dei egiten badigu, zer egin dezakegu
deiairi jarraitzea baino?

Musika espirituaren elikagaia da, hala nola irakurketa buruarena den.

Historias de Nueva York (V.O.S. Zuzend.: M. Scorsese / F. Coppola / W. Allen - Cinematk).- Hiru laburmetraia; hiru harribitxi. New York-i buruzko hiru ikuspegi, desberdinak hirurak baina ezaugarri komun batekin: hirurak oso une ederrak helarazteko gauza izatea. Zein gustatu zitzaidan gehiago? Agian, lehena, Scorsese-rena. Coppola-renak ere hamaika detaile ditu, eta goi mailako gizarte horretatik erabat urrun banago ere, onartu beharra daukat mundu honetan klaseen arteko borroka harantzagoko beste zerbait dagoela: giza-klasea, esaterako (goi mailako klasekoa nahiz behe mailako klasekoa izan —dena den, Scorsese apur bat insolidarioa edo azaldu zait...—). Eta W. Allen-en filmaz zer esango dizuet nik? Zuzendari honek egiten duen guztiak beti dauka halako ukitu berezi bat, eta irria jartzen digu aurpegian inongo ahalegin berezirik egin gabe. Berriz ikus daitezkeen film zahar horietariko bat da Historias de Nueva York. Klasiko bat.

Asmamena da honaino ekarri gaituen giza ezau-garririk nabarmenena. «*Baina, ez gaitu inora ekarri...*», esango didazu. Eta bai, baina ez...

Uste dut nonbait zulo bat daukadala eta nire barne-ahotsa hortik eskapatzen zaidala. Sentsazio bitxia da; ahotsaren hegaletan isurtzen den pentsamendua zirikatu horretatik eskapatzen dela sentitzea...

Egia esan, ez dut ulertzen ETBk zer dela eta ez duen bultzatzen goi mailako zinema baina azpituduekin. Hau da, atzerriko filmak (ia denak, alegia) azpituduekin ikustea da niretzat zinema ikusteko modurik onena. Bestalde, bikoizketak sortzen dituen gastuak nabarmen murriztuko lirateke, azpitudulatzea nik uste dut askoz merkeagoa izango delako. Ez da nire asmoa bikoizketa etxeei kalterik egitea. Alderantziz, bikoizketa etxeen zereginetariko bat da, hain zuzen, filmak azpitudulatzea. Beraz, orain arteko lan bolumenarekin (bikoizketa lanekin, alegia) jarraitzeaz gain, bultzada ezin hobea emango lieke filmak azpitudulatzeko lan bolumenaren gorakadak. Gainera, azpituduluaren eskutik ETBk zinemazale amorratuentzako zinema eskaintzeko aukera ere izango luke, bikoizketa kostuak —film batzuetatik, behintzat— ezabatuta.

Zinemari buruz hitz egiten jarraituz, kontuan ere izan behar dugu zinemagintzan beste artegintzetan bezala gertatzen dela, hau da, kalitate handieneko filmak ohiko bide komertzialetatik kanpo daudela. Gauza jakina da bigarren Erdi Aroa bizitzen ari garela. Eta gustu txarreko adarazpideak, tamalez, nagusi dira gure egunotan. Baina gauza oso onak eta ederrak ere egiten dira. Eta horiek askotan ordaintzeko moduko prezioetan eskura daitezke; kalitaterik txarreneko produktuak ez bezala. Beraz, ETBk nire ustez begirada jarri beharko luke beste zinema mota horretan. Adibidez, S. Stalone-ren film bat emititzeko, diru piloak gastatu beharra dago, S. Stalone-ren filma zabor hutsa izan arren. Hau da, entretenimendu zinema txarra bezain garestia da; kalitate oneko zinema, ordea, askoz diru gutxiago balio du (berrez dauzkan arte balioak handiak izan arren). Parada ezin ederragoa izango litzateke, telebista publikoa gustu ona landu eta erabiltzeko. Gehiegi eskatzea ez bada...

Blue in the face (V.O.S. Zuzend.: P. Auster / W. Wang, 1995 - Cinematk).- Berriz ere H. Keitel agertzen da film honetan. Badirudi aktore hau agertzen den filmen kalitatea ziurtaturik dagoela. Gidoiak-eta aukeratzeko dakien seinale. New York eta batez ere Broklyn auzoa da film honen oinarria. Protagonistak auzo horretan erroturik daude. Eta bizitza ulertzeko, auzo horretan errotuta jarraitzea ezinbestekoa zaiela ematen digute aditzera. Ez dakit nik, errotze horren atzean ez ote dagoen deserrotze-sentimendu handi bat. Egia da, hala ere, Broklyn auzunean mota guztietako etniak, hizkuntzak, kulturak eta abar elkarrekin bizi direla; baina, askotan, elkarrekin ez ezik, elkarren aurka ez ote diren bizi susmatu dugu batek baino gehiagok. Film polita da, zinemagintza independente delakotik sortzen diren horietarikoa. Badirudi ez dela ezer gertatzen baina aldi berean gauza asko gertatzen ari dira. Nik, filma ikusi ahala, pentsatu nuen: hor agertzen den mundua Donostiako Amara Zaharrera eramateko, zer beharko litzateke? Abiadura piska batez bizi, seguraski... pentsatu nuen irriz.

Egun batean, orain dela urte asko, uste dut euskaldunberria izan nintzela. Baina aspalditik ez naiz sentitzen euskaldunberri. Horrek esan nahi du hizkuntzan barneratzeko orduan, mugarik ez dagoela. Eta neurri handi batean, gure esku dagoela hau edo hura izatea. Kafka errealitatean oinarritu zen, bere "Metamorfosia" idazteko. Zalantzarik gabe.

Vor "El Ladrón" (V.O.S. Zuzend.: Pável Chujrai, 1997 - Cinematk).- Film gogorra; ikustea merezi duten baina ahosabaian mingostasuna uzten dizuten horietarikoa. Sobiet Batasunean kokaturik —eta Erru-

siatik askotan iristen zaizkigun irudiekin bat—, esperientzia batzuk zeinen gogorak izan daitezkeen gogorazten digu. Bigarren Gerra amaitu berrian eta Stalin-en agintaldi gupidagabeen lekuturik dago filma. Lazerian hazitako jendea sentipen aldetik sorgortu egiten zela bagenekien, baina hala ere ez gara inoiz horretara ohi-tuko (zorionez). Bitxia da; "Mi vida como un perro" eta "Vor" filmetan haurrak protagonistak izan arren, biek ez dute zerikusirik bata bestearekin. "Mi vida como un perro" filmeko haurrak bazeukan gauza garrantzitsu bat: berataz arduratzen zen gizarte inguru bat, sendi bat (bera maite zuen jendea alegia). "Vor" filmeko haurrak, berriz, den-dena galtzen du, umezurztegiko bakardean amaitu arte. Bi errealitate, bata ona eta bestea gaiztoa. Bi burdin, bestelako forjaketa izan dutenak. Irakaspenik...? Bai, noski: maite dezagun. Maite dezagun, bihotza gogortu baino lehen. Zeren hori gertatzen denean, akabo. Ez dago salbaziorik.

Zain daukagunaren beldur gara. Normala da; saihestezina da.

Nire inguruan zinemaren pertzepzioaz begiratzeari gustatzen zait. Garrantzitsuena ez da zer dakusazun, nola dakusazun baizik. *Idazlearen begirada* ere deitzen zaio, nik «giza begirada» deitzea nahiago badut ere. Objektuen arimara iristen gara orduan. Kubismoa, surrealismoa, arte abstraktua... begiradaren transformazioaren ondorio baino ez dira, edo agian, objektuei begiratzeko abiapuntu berriak estraineko aldiz topatzea. Geroni geronen objektu bihurtuak. Gizakiaren kosifikazioa. Baina ez alienazioaren ondorioz, errealitatea gure egitearen ondorioz baizik (zer da errealitatea gure egitea, gure adimenaren proiektzio den fantasiaren eraldaketa baino?).

Arco de triunfo (Zuzend.: L. Milestone, 1948 - Cinemat).- I. Bergman aktorea beti izan dut gogoko. Ez dakit, agian ohiko superaktore erotiko horien este-reotipotik aldentzen zelako. C. Deneuve, J. Birkin, S. Signoret... Horiek ere gogoko izan ditut, begirada bere-zia zutela iruditzen zitzaidalako. Beno,ba. "Arco de Triunfo"k bigarren mundu gerraren atarira eramán nau. Gerra artean hasi gabe dago, baina gerra-hotsak nonahi entzuten dira. Parisen lekaturik, errefuxiatuen giroa birsortzen du filmak. Protagonistak patuaren eskuetan daudela argi eta garbi ikusten da, hau da, *Jainkoak* la-gata daude. "Errefuxiatuak ez gara existitzen gobernu-entzat; beraz, gutaz nahi dutena egin dezakete". Holaxe adierazten du protagonistak berak. Eta zoritxarrez, men-de erdia igarota egon arren, esaldiak gaurkotasun osoa dauka oraindik. Une ederrak ditu; esaterako, Francoren aldeko jarraitzaileak ahoa bete hortzekin uzten ditue-nean gure protagonistak; norbait laguntzeagatik atxilotu eta berriz ere deportatua denean; kontzentrazio zelaieta-rara doazenen ilaran jartzen denean; torturatzaile nazka-garria garbitzen duenean... Film ederra da, garaiko este-reotipoak gogora dakartzan film hau. Liburu ofizialetan normalean agertzen ez den beste Historia hori hobeto ezagutzeko.

Eta gero... zer? Milaka urte gure buruari egiten daramagun galdera da. Izurri berbera; indiferentzia ber-bera. Galdera larruazalari josita eramango bagenu be-zala.

La Gran Comilona (V.O.S. Zuzend.: Marco Ferrari, 1973 - Cinemat).- Sekula ez ditut hainbeste

puzker entzun film batean, benetan. Zer-nolako puzkerak eta nolako ozenak! Marcello Mastroniani, Michel Piccoli eta beste... Ikusteko moduko filma da, helarazi nahi didan mezua garbiegi ikusi izan ez arren. Garbi dagoena da hiru protagonistak bizitzaz nazkaturik daudela. Beraz, euren buruaz beste egitea erabakitzen dute... ase eta bete janez! Bai, asteburu batean bildu eta lehertu arte jaten hasten dira. Emagalduek, jaiarekin bat dagien maistra potzolo eta jator bat... Mastroniani lorategian kotxe barruan izoztuta, hilda, agertzen den irudia ahaztezina da. Ez dakit. Filma apur bat ganberroa iruditatu zait, baina hala ere, jatorra. Pertsonaia guztiek posizio ona dute gizartean; horrek, ordea, ez omen ditu asebetetzen. Izan ote daiteke hori filmaren mezua? Jabetza materialak ez direla nahikoak existentziako zenbait hutsune betetzeko, eta horrek ezinbestez suizidiora garamatzala? Auskalo...

Abiatzen denetik milaka kilometro egiten dituen pentsamendua ez dago gizaki hilkor guztien eskura. Eta ni ez naiz, alde horretatik eta zoritxarrez, salbuespena. Izango banintz, benetan hilezkorra izango nintzateke. Zentzu klasiko batean esanda. Baina, konforma gaitezen une batez itsu uzten gaituen erreberberazio horrekin.

Olatuen aurka lehertzen den eta itsasoak zeharkatzen dituen ontziak jarraian desagertzen den uhara uzten du. Gure patua halakoxea da. Irauten tematzen gara. Eta porrotak mintzen gaitu. Lehortek artista mintzen duen bezala... edertasunari inoiz uko egin gabe ere. Heroismo ergel hau... hain patetikoa beti... hain saihestezina...

El Muro (V.O.S. Zuzend.: Alain Berliner, 1998 - Cinematk).- Euskaldunoi primeran datorkigun filma da hau. Belgikan lekaturik, bertako bi talde etnikoen arteko liskarrak eta gorabeherak jartzen dizkigu aurrean. Oraingoan, flandestarren eta waloniarren arteko hikamikak urrunegi iritsi dira eta gauez bi etniak bereiziko dituen murrua altxatu dute isilka-misilka. Film laburra baina ederra. Ikusten da, zuzendaria borondate oneko gizasemea dela. Egia esan, filma ikusita, agian guk geuk ere (euskaldunok alegia) zer-edo-zer atera genezake garbi guztiorretatik. Izan ere, filmean planteatzen den problematika gure eguneroko errelitatearen ogi eta jaki da. Batzuetan nire buruari galde egiten diot zer dela-eta bilatzen dugun beti besteengandik urruntzen gaituena, besteengana hurbiltzen gaituena bilatu beharrean. Film bitxia da. Polita (filmeko neska protagonista bezain polita —a, ze begiak!—).

Euskaldunak oro har ez du bere buruan sinetsi, eta horregatik uko egin dio mendeetan zehar bere nortasunari, bere identitateari. Batzuetan, badirudi zinez ahalgintzen dela, baina nik ez dut hori oso garbi ikusten. Aitzitik, badago halako hipokresia bat, herri bezala irauteko ezinbestekoak diren kultur mekanismoak ikur edo sinbolo bihurtzera eraman gaituena. Hori dela eta, galararik handienak gugandik —euskaldunongandik— dira sortuak, *etsaiengandik* baino. Edo bestelako hitzez esanda, gu geu garela gure etsairik gaiztoena. Noski, baliteke natura horrelakoa izatea...Edota euskaldunak existentzia ulertzeko daukan bidea horixe izatea: etengabeko degradazio, endekatze egoera bat, batzuetan oso azkar batzuetan oso poliki gertatzen dena, baina halabeharrez gure jatorrira garamatzana: ezerezara, desagerpen hutsalera. Horregatik diot litekeena dela gure jarrera naturaren zati izatea. Eta hala balitz, ezin izango genuke ezertxo ere egin gure patua saihesteko. Borrokatu... baina besterik ez.

El Gatopardo (V.O.S. Zuzend.: L. Visconti, 1963 - Cinematk).- Liburu batzuk denboraz kanpo daude. Onak dira. Jenialak dira. Eta horregatik, luzaro irauteko gai dira. Gizakiok —alferrik— desiratzen dugun hilezkortasun horretara hurbildu diren artelanak dira. Eta horixe da El Gatopardo, artelana, maisu-lana. Zinemari zergatik deitzen zaion zazpigarren artea ulertzen laguntzen duten film horietariko bat da. Egia esan, nik ez dut gogoko, oro har, ikusitako filmak berriro ikustea. Eta berdin gertatzen zait, esaterako, nobelekin. Hala ere, salbuespen batzuk badira. Eta Viscontiren lan hau salbuespen horietako bat da. Ez dakit zergatik izango den, baina filmaren zenbait momentutan, Cesare Pavesez oroitu naiz... Ez dakit... paisaia desolatu horiek... denboratik kanpo bezala bizitzeko burugogorkeria hori... izadiak den-dena baldintzatzen duen indar jarkiezin baten modura azaltze hori... Filmeko protagonistak, Burt Lancaster eta Alain Delon, esaterako, ezin hobeto karakterizaturik daude. Aktore horiek, askotan, film arruntetan agertu izan dira, industria zinematografikoak izar bihurtzearen ondorioz. Baina, goi mailako film batean zenbateraino emateko gai ziren ikusten da argi eta garbi. Film oso ederra. Italia hegoaldea, Sizilia alde bereziki, apur bat ulertzeko zenbait klabe ematen dituena (aristokraziaren gainbeherak antzeko bidea egingo zuen Europa osoan ere, neurri handi batean).

Herioak bere gorputz osoaren zati diren hegaltzak hedatzen ditu. Begitartea besoaz babesten du. Baina, alferrik. Haren harrapari gara. Hilda gaude.

Pertsona bakoitzak bere heriotza dauka, talaia batetik zain. Eta orduan, norbaitek agindua ematen du; eta figura izugarria aireratu eta erabakitasunez harrapariaren aurka jaurkitzen da. Eta ez ezerk ez inork geldiaraz dezake ordurako. Jada abiatua den bala bati esatea bezala da: *itzul zaitzez!*

Al borde del peligro (V.O.S. Zuzend.: O. Pre-minger, 1950 - Cinematk).- Thriller zahar horietako bat da. Ondo egina eta ondo antzetzua (apur bat zaharkiturik gelditu bada ere). Poliziak atxilotuak jipoitzea kontu txarra da, dudarik gabe. Eta hori da film honetako protagonistak egiten duena. Ez da ikusten, hala ere. Areago, polizia buruak berak gaitzetsi egiten du —itxuraz— horren jokabidea. Hala ere, filmaren amaiera aldera, tratu txar horien aldeko apologia egiten da, lotsa handirik gabe. Tira, film poliziako batzuetan, lotsagabekeria nabarmenez jokutzen da. Batez ere, egungo film poliziakoetan.

Lan egin eta bizi izateko ordutegi bat daukagu. Bizitza erloju erraldoia da, non harrapaturik gauden. Borroka ezin latzagoan ari gara beti, erlojuko orratzek euren joan-etorri etengabea zapaldu ez gaitzaten.

Barruan ahots bat daramagu, noizean behinka galde egiten diguna: «Zergatik ahaztu zara bizitzeaz?» Eta orduan, erantzuten dugu: «Baina, noizbait bizi al ginen?». Egiatan, badira zenbait une, Kasualitatearen fruitu direnak. Eta hauxe da horietariko bat.

Akats guztien artetik gustu txarra da akatsik larriena (horrek bai ez duela azalpenik behar).

Ezertan pentsatzen ez dugunean eta burua hutsik daukagunean, zuhaitz batek zer sentitzen duen jakin dezakegu. Dena den, oraindik urrun gaude harria izate-tik.

Goi-mailako espektatibak ongi daude eskrupu-lorik gabeko enpresarientzat (erezeta honek ez du balio enpresari eskrupulodunentzat, noski). Baina gu — anbizio ekonomiko handirik gabekook— gure arra-zoizko existentzia kimerikoaren lokatzean eta lainoan galtzen den bideari jarraitzen lanpetuegi gaude nonbait.

Nire bizitzan idatzi ditudan lerro guztiek izango balute aurreko paragrafoak daukan bizitasun berbera...

Homicidio (V.O.S. Zuzend.: D. Manet, 1991 - Cinematk).- Film estrainoa da, arraroa. Hala ere, irudiek harrapatu egin naute. Elkarrizketak, iruzkinak, gertae-rak... askotan oso esanguratsuak dira, ironia edo zi-nismo handikoak, edo harrigarriak besterik gabe. Filma gustura ikusi dut; arretaz jarraitu dut filmaren garapena. Hain garbi ikusten ez dudana amaiera da. Film estraino honek ezin zezakeen amaiera estrainoagorik izan. Egia esan, haserratzeko modukoa eta guzti iruditu zait, ez baitakit zehatz-mehatz zer eman nahi zuen aditzera amaiera arraro horrek: protagonistak den-dena asmatu duela (burutik jota dagoela alegia)?... lankidearen he-riotza aurpegiratu diotela eta horregatik bota dutela

"Erailketak" ataletik?... argazki konprometagarriak iritsi direla nagusiaren eskuetara?... Ez dut ulertu, benetan. Eta ez dut gogoko film baten amaiera ez ulertzea. Zeren, horrek esan nahi du zuzendaria oso azkarra dela eta ni oso tontoa naizela, edo bestela, esan nahi du zuzendaria oso tontoa dela eta ni oso azkarra naizela. Eta aukeran, nahiago dut bigarrena pentsatzea lehenengoa baino. Dena den, merezi du filma ikustea. Benetan.

Mutil gaztea suak harturik dagoen itsasontzitik uretara jaurki eta olatuen esku gelditzen da. Ez du flotadorerik eta inguruan beste itsasontzi batzuen arrastorik ez. Badaki heriotza gain-gainean duela; oraindik ingurutzan zaion bere bizitzako azken uneak behatzen ditu begi-galduz. Gero, behin-betiko desagertzen da ur azpian.

«*Baina, zergatik niri?; zergatik niri?*», hori da gure buruari beti egiten diogun galdera, zorionak edo zoritxarrak gugan arreta jartzen dutenean.

Pentsamendua behartu, bortxatu nahi dut; gulgandik erauzi nahi dut eta gero hantxe abandonatu, ma-reak hondartzara ekarritako enborra bezala.

Eta zergatik atera behar dugu argitara egia, egin nahi dugun guztia hura ezkutatzea denean?

Historias naturales, Jules Renard (Círculo de Lectores, 160 orri).- Egia esan, nik ez dut asko-asko maite Círculo de Lectores delakoa; zabor asko eskaintzen du eta gainera "bazar" itxura ere badu. Dena den, batzuetan gauza oso-oso politak eta bereziak eskaintzen ditu. Eta argitaraldi hauxe da horietariko bat. Liburuak dakartzan marrazkiak Toulouse-Lautrec-enak dira; horrekin dena esanda dago, marrazkien kalitateari dagokionez. Baina gauzak ez dira, ez, hor bukatzen. Azal gogorreko liburu honen barruan, CD bat dator: Ravel konpositoreak lau historia natural hartu baitzituen oinarri, konposizio musikal bat sortzeko; Ravel-ek ere ez du aurkezpen-beharrik, ezta? Liburuari berari dagokionez, ba liburu atsegina da, oso azkar irakurtzen diren horietarikoa, itxuraz xaloa baina sinplekeriatan erortzen ez dena. Harribitxia.

Ezertarako borrokatzen gara; denetarako borrokatzen gara.

Gaztaro zeharkatuaren eta deseginaren egun galduetako glamourra —duela hamarkada asko tximistak zauritutako zuhaitz usteldu eta ederraren pareko.

Zerk egiten digu ondo? zerk egiten digu gaizki? «Den-denak», erantzun zuen alaiki erresinul batek (bena, agian katamotz bat zen...; ez nago ziur... hain gutxi dakit nik natur zientziei buruz...).

Zatozte, zatozte... gure sententziorik onenetariko en oroigarriok... Zatozte eta ez joan inoiz berriro...

Kasu-marken erabilera izen-kordinazioan, Alex Bengoetxea (Senez aldizkaria, 25 zbk.)- Hau ez da liburua, artikulua baizik. Badakizue Senez aldizkaria EIZI-Eak ateratzen duela. Hainbat artikulua dakartza zenbaki bakoitzak eta nik hemen aipatzen dudana Alex Bengoetxeak eginikoa da. Kasu-marken erabilerari buruz egiten duen azterketa interesgarria izan arren, niri egia esan gehien gustatu zaidana Alex Bengoetxearen euskara izan da. Ez dakit. Oso ederra iruditu zait. Euskara matematikoa. Indar handikoa. Ia-ia berdin zitzaidan kasu-marken erabilerari buruz, izen-koordinazioari buruz ala Afrikako tximeleten migrazioei buruz ari zen. Hizkuntzak eskaintzen zidan edertasun formalarekin nahikoa nuen eta. Eta pentsatu dut: «Itzultzaile hau lanean jartzen denean, izan behar du gauza zinez mirezgarria». Tira, idazkerak gustura sentiarazten gaituenean, berdin dio zeri buruz ari garen irakurtzen.

«Oi, maitasunak min egiten du! nolako mina eragiten duen maitasunak!». Negar egiten zuen futbolariak, genitalei bi eskuekin eutsiz, baloikada izugarria jaso ostean.

Inguraturik gauzkazuen sentsaziook, halako gizatasunez janzten gaituzuenok! Batzuetan, pozak hariturik erauziko nuke nigandik pentsamendua, sentsazioekin bakarka gelditzeko (ai, sentsazioak... bizio guztien ama —mundu guztiak dakien bezala...—. Lastima!).

Zinismo apur batek ederragoak egiten gaitu.
Behintzat, kanpoaldetik...

Batzuetan, aurrera jarraitzeak ala ez, ez du garrantzi handirik. Berdin-berdin bukatuko baitugu ergelarena egiten. Aspertasun bera da; indiferentzia bera da. Gaina hartzen digun erabaki ergel eta gorrotagarri bera da.

Ordinaria locura (V.O.S. Zuzend.: Marco Ferreri, 1981 - Cinematk).- Film honetako protagonista ez dut inoiz gogoko izan, beste arrazoi batzuen artean, "b" saileko hamaika filmetan agertu delako eta beraz sinesgarritasun handirik gabeko aktoretzat daukat. Filmak, bestalde, zerbaitetara iritsi nahi zuen, baina nik uste dut ez duela asmatu. Une jator batzuk baditu; eta konturatzeko zara filma istorio baten atzetik dabilela, baina... mataza askatzeko behar zuen haria aurkitu gabe. Ni, behintzat, inpresio horrekin gelditu naiz. Bukowsky-ren nortasuna eta bizimodua islatu nahi omen zituen filmak. Eta, ez dakit, beharbada, neurri batean hori egingo du, bai... Dena den, niretzat film hitsa da. Indarra falta zaio; halako bizimodu batek berez daukan poesia ez du jakin harrapatzen.

Hain biziz irrikatzen dugun oasiak badu izen bat: «pentsamendu». Hortik edaten dugunean, gure salbazioa errealitate bihurtzen da.

Idaztea lanbide bat da. Beraz, ordutegi bat eta diziplina bat behar ditu, baita indiziplina bat ere.

Bizitzako aparra hori da: gure erabakien emaitza onak eragiten digun hazkurea.

Dibagatzea da bide osoan zehar —hasieratik bukaeraraino— egin dezakegun gauza bakarra.

Horra zer den bidean eskuratu dugun izaera pentsakor hau: markako arropetikiko gure grinak ekarri digun itxura histrionikoa baino ez.

La promesa (V.O.S. Zuzend.: Luc eta J.P. Dardenne, 1996 - Cinematk).- Oso film ona iruditu zait. Errealitatean oinarrituriko istorioak sinesgarritasuna galdu gabe pantailaratzea baino meritu handiagoko filmik ez dut uste egin daitekeenik. Hori gertatzen da film gris honekin. Eta "grisa" deitzen diot, ez kalitatearen aldetik, txertaturik dagoen giroaren aldetik baizik. Belgika, legez kanpoko etorkinak (arraza eta nazionalitate guztietakoak), eskrupulu handirik gabeko etorkin-trafikariak, ustelkeria horren aurrean amore eman nahi ez duen gazte bat eta emakume afrikar bat. Hortik aurrera, istorioa berez doa. Eta giroa, esan bezala, grisa: industrialdeak, bazter-auzoak... Interesgarria filma.

Bohemiaren eskuetara jaulki gintezke, bai... Baina, jada ez gara bizi mutilzaharrentzako gela batean, eta hor dago koska. Hala ere, tentazioa hain da handia...

Isilik itxoiten dugu, zain, pentsamendurik sumagaitzena noiz pasako... Kontua ez datza ideiak harapatzean, ideiak garraiatzean baizik. Berdin dio *ideia handiak* diren. Batzuetan, beharrezkoarekin eta... nahi-tasunarekin nahikoa da eta. Azken batean, ba al dago ezer atsegingarriagorik giza baliabideen bila buru-belarri aritzea baino?

Lekurik ezkutuenean, erantzuna zain daukagu. Leku horretara iristeko, ordea, Star Trek espaziontzia eta Odiseako ordenagailu eroa behar dira. Bidaia luze eta abenturaz bete!

Filosofia —berdin dio *zein* filosofia eta *norainoko* filosofia den— gizakiaren bilakaeraren zati da. Gizateria suntsituta, lekukotasun filosofikoa baino ez da gelditzen.

Hitzekin jolasean ari naiz bertsolariaren asmo berberaz: hitzei heltzen diet eta hortik tiraka hasten naiz, terminoen jurisprudentzia apurtu arte (edota gainditu arte). Ariketa ona da, bizikleta estatikoan egunero ordu-betez pedalei eragitea bezain ona ia (pentsatzea ere ariketa estatikoa baita).

Ideien zahartasuna haragiarena bezain izugarria da. Lehenek hobeto eusten badiote ere denboraren iragarteari. Ala ez...?

La noche americana (V.O.S. Zuzend.: F. Truffaut, 1973 - Cinematk).- Hasiera batean, "txapa" baten aurrean nengoela pentsatu dut. Baina, zorionez, berehala konturatu naiz ezetz, film adimentsu eta polit baten aurrean nengoela. Film baten errodatearen istorioa kontatzen zaigu; eta film horri loturik, errodatzen ari diren filmaren istorioa. Tira, anabas itxura badu ere, dena da oso lojikoa. Eta batez ere, oso ongi antolatuturik agertzen dira gauza guztiak. Erreportaje batean konta zitekeena-ekin film bat egin du Truffaut-ek, non hura bera den protagonista.

Ideiak elkarlotu eta pentsamendua katramilatu. Ba ote dago ezer ederragorik eta alferrikakoagorik?

Hitez mozkorturik egotearen sentsazio gozoa... ez nuke ezeren truke aldatuko.

Den-dena da denbora alferrik galtzea. Baita presaka ibiltzea ere.

Horra zer den fantasia: errealitate trabestitua. Eta erridikulua zelatan da...

Bizitzan egindako gauza guztien konputoa ateratzeko premia sentitzen dugu, amaieran ongiaren eta gaizkiaren, onuragarriaren eta kaltegarriaren, zuzenaren

eta okerraren auditoretza gainditu beharko bagenu bezala. Haur-sentipen horrekin bizi eta hiltzen gara... salbatzen gaituena eta aldi berean alferrik galtzen gaituena.

SPrako tranbia, Unai Elorriaga (Elkar argitaletxea, 151 orr.).- Tira, halako sona izan duen argitalpena eskuratu eta horren irakurketan murgildu naiz, aurkitu dudana baino gehiago espero. Ez da horrela izan ordea; nire iritzirako, liburua nahiko "laua" delako. Irakurri dut zist-zast batean; irakurriz baino, irentsiz apika. Baina asebate gabe; amaitzea desiratuz. Hitzaurrean, ironia aipatzen zen tokian, nik umorea baino ez dut topatu. Eta orokorrean, bai istorioaren aldetik bai euskaren beraren aldetik, nahikoa apala iruditu zait. Dena den, poztu egin naiz milaka irakurle dantzan jartzeko indarra izan duen liburu honen berri izan eta berau irakurtzeaz.

Den-dena esan dugulako sentsazio barregarri hau, zinta agortzen zaigunean edota nekeak atseden hartzera behartzen gaituenean...

Haiztoz mozturiko esaldiak, hitz trenkatuak, hizkuntz esapide urkatuak, eraiketa sintaktiko elbarrituak, aditz abstraituak, freskotasun formala, geldotasun prosistikoa, ele xamurrak, sintagma lorifikatuak, eraiketa zapaltzaileak edota zapalduak, abandonaturiko terminoak —zahazkabeak, erraldoiak, trinkoak eta konkordunak—, hitz gozatuak, zoraldi gramatikalak...: zenbat maite izan zaituztedan!

Arazoa ni neu naiz, ez bestea. Onerako eta txarrerako.

Ez da ona libidoaren ontzia gainezka izatea; noizean behin, edukia isuri behar da eta. Beteko da berriro, lasai...

Hitzen ordena esaldian, Victor Hidalgo Eizagurre (Senez aldizkaria, 25 zbk.)- Aspaldidanik susmatzen genuen guztiok euskal esaldiaren sintaxia uste baino malguagoa zela; eta batez ere, aditzaren eta galdegaia-
ren ordenari dagokionez. Artikulu honetan, berriz, berritzi baino ez dugu egin lehendik susmatzen genuen hori. Niretzat argigarria izan da, esaldien zurruntasuna zertxobait malgutzearen aldera, eta batez ere, aditza eta galdegaia lekutzeko orduan beldur gutxiagoekin eta askatasun handiagoarekin jokatzearen aldera.

Batzuetan, ideiak dabilzan hoditeria libratu beharra dago.

Ez egotea inoiz zuzen beti zuzen egoteko modurik onenatariko bat da. Ez diot nik; esperientziak dio.

Berriz ere elkartzea ideiekin, ahaztuta geneukan maitagarri-ipuina bezain zehazkabeak diren hitzekin, egiazko gauzen kontzientzia erreklamatzeko diguten horiekin, alderik alde zeharkatzen gaituzten gauza txiki horiekin guztiekin... Inperfekzioaren perfekzioa... Espi-

ritua materia lodi bat balitz bezala, haztatze modukoa, koipetsua... (akaso hala izango da, ideiek ere ba omen baitute lubrifikatzaile baten premia).

Ez dut ezeren beharrik, den-denaren beharra dudalako (egia handi guztiak gezur handiak bezalakoak dira —ez hobeak ez txarragoak—, orobat elastikoak).

Inkultura... Berriz hara itzultzea bagenu!

Los cinco sentidos (Zuzend.: J. Podeswa, 1999 - Cinematk).- Film bitxia, abiapuntu eta ikuspegi ezhoiak dituen (zine independenteari dagokion bezala). Apurtxo bat motela (A. Egoyan zuzendariarekin ba omen du halako lotura bat zuzendari honek, eta alde horretatik, nik uste dut nabaritzen zaiola, oso berezko estiloa badu ere). Galduriko ume baten inguruan istorioa harilkatzea adimentsua izan da, zeren horrela ikuslea beti dago umea aurkitzearen espektatibaren zain, eta horrek ematen dio filmari halako suspense bat... Homosexualitatea apur bat obsesioz agertzen da filmean. Neurri batean, homosexualen giroko filmetzat ere jo liteke. Baina neurri batean, bakar-bakarrik. Dena den, beti ongi dago beste giro batzuen berri izatea eta gure planeta populatzen duten ganadu-mota guztien berri izatea. Filmak badu aurea triste bat: pertsonajeek, hiriak, istorioek... Airean zerbait astuna dago, arnasartzea zailtzen duena, bularrean ezin kenduz kokatzen den halako pisu bat. Agian, elementu poetikoak izango dira horiek. Auskalo.

Beti gordetzen dut nire pentsamendua Euskal Herriarentzat (daukadan kultu-objektu bakarra, nire paganismora jaurkia).

Maitasunez behartu dezakegu gure burua hiltzera, baina ezin dezakegu gure burua behartu gosez hiltzera (anorexia bera nork bere burua maitatzeko — edo ez maitatzeko— modu kaltegarri bat baino ez da eta).

Besteen arreta nireganatzen dudanean, oraindik hor nagoelako jakiteko egiten dut, narkizismoagatik baino. Edo, beharbada, despiste hutsez.

Kristau urrikaltasunaren eskuetan hiltzen diren gizaki basatiak gara, Ozeano Barean aurkitu berri duten uharte batekoak... (nolatan gorrotatzen duten gure aurkitzaileek euren aurkikuntza; zer-nolako izua ematen dien desberdintasuna, aniztasun natural eta kulturala euren begiekin berrestek).

«Orain hiltzera noala, hastera noa bizitzen», esan zuen hil-zorian zegoenak azken arnasa eman baino lehen. Eta itxaropena, beldurra, zalantza eta sinesgaiztasuna marraztu ziren eta aldi berean ezmarraztu ziren senideen aurpegietan.

El viaje de Felicia (Zuzend.: A. Egoyan, 1999 - Cinematik).- Gogoko dut zinema independentea, areto

komertzialetatik alde egiteko adorea erakustea berez txalogarria da eta. Gainera, dagoeneko denok badakigu kalitatea edonon dagoela, best-seller-retan izan ezik. Niri filma erakargarria iruditu zait; oso makiabelikoa baina gehiekeria handirik gabea. Motela, hori bai. Apurtxo bat motela. Ia bi orduko film honi hogeita hamar bat minutu kendu izan baliote, hainbat eta hobe. Irlanda idilikoa eta Ingalaterrako giro industrial zikina...; purutasuna batetik eta deabrukeria bestetik... Bi mundu, kontrajarrita. Hala ere, neskak berak aitortzen du, filmaren bukaeran ia, hark ere —psikopatak— bazuela purutasun horretatik zerbait berea. Eta niri ere holaxe iruditu zait.

Cuentos Perversos, Javier Tomeo (Anagrama, 146 orr.).- Oso gustura aritu naiz ipuin bilduma hau irakurtzen. Ez nuke jakingo esaten zergatik. Zergatik gustatu zaidan alegia. Dena den, zergatik bilatu behar diogu beti arrazoi bat gustatzen zaigunari edota gustatzen ez zaigunari? Arrazoi bat bilatzen al dugu maitemintzen garenean, eta aurkitu izan ezik, harremana bertan behera uzten? Gustatu zait, eta kito. Oso tremendista da, gainera. Liburua. Ipuinak. Egilearen begirada eta jarrera batez ere. Gauzak senetik ateratzeko daukan doaia... mmmm... delizioso iruditu zait. Gainera, ez da sexu perbertsioa, zorionez (hori errazegia izango bailitzateke); ez, egilearen perbertsioa bestelakoa da, inguratzen zaizkion gauzak bere ulerkera perbertitu horretaz itxuraldatzeko daukan ahalmen bitxia da gehien erakarri nauena. Azken batean, errealitatea fantasia bihurtzeko ahalmena. Tira, literatura bizi egiten duten idazle horietariko bat da Javier Tomeo. Aitortu behar dut ez nuela beraren berririk liburu hau irakurri dudan arte. Sorpresa!

El tren de la vida (V.O.S. Zuzend.: R. Mihai-leanu, 1998 - Cinematik).- Umorezko film atsegina. Horra gaia: alemaniarrengandik ihesi, judutar talde handi batek tren bat erosi eta apaindu egiten du, alemaniarren konboy horietariko bat balitz bezala. Gero, batzuk alemaniar soldaduz mozarrotu eta besteek prisioneroen roll-a egingo dute, bidean hamaikatxo gora-behera gertatzen zaizkielarik. Tira, filma ez dago gaizki, judutarrez ematen duen irudia apur bat idilikoa bada ere (idilikoe-gia, apika). Bestalde, gaur egungo Palestinan judutarren aldetik gertatzen ari diren basakeriak ikusita, judutarre-kiko sinpatia apur bat hoztu edo egin zaidala aitortu beharra daukat. Ez ulertu gaizki nire hitzak, nik hauxe esan nahi dut eta: berdin diola duela ez dakit zenbat denbora nor izan zen biktima; baliteke atzoko biktimak gaurko borrhoroak izatea, edota alderantziz. Borondate oneko gizasameak, ordea, jakin behar du uneoro bide-gabekeria injustiziatik bereizten. Eta niri, horixe gusta-tuko litzaidake gaurko zine-zuzendari juduengan ikus-tea: kriterio apur bat, alegia.

Lisboa Story (V.O.S. Zuzend.: W. Wenders, 1994 - Cinematik).- Gauza barregarria gertatu zait film honekin: hiru gau behar izan ditudala filma osorik ikus-teko. Filma luzea izateagatik ez baina, hiru gautan tele-bista aurrean lotan geratu naizelako. Eta ez da filmaren errua izan; neke-neke eginda nengoen, eta filma oso erakargarria bazen ere, ezin izan diot eutsi logaleari. Filma segidan ikusi ez izanak apur bat hautsi dit filmaren gaineko ikuspegi lineala; hala ere, hori ez da oztopo izan film eder baten aurrean nengoela ohartzeko. Lisboa, Madre Deus musika-taldea, Pessoa, barne-begiradak, soinuak... Nork ez du noizbait poesia aurkitu hiri batean? (ba jende askok seguraski). Esan nahi dut hiri baten poesia kausitzea. Hori gauza ederra da; eta esperientzia pertsonala, oso. Behar da konnibentzia handia, elkarrekikoa (hiriarekiko eta norberarekiko).

Bestalde, ikuspegi harrigarri baten aurrean ere jarri nau film honek: azken batean, zeintzuk dira hiri bateko soinuak, hotsak, zaratak, ohiko elementu ozenak? Filmeko protagonistaren nahia eta xedea hori da: bizitzak ateratzen duen zaratari atzeman eta zarata eta soinu horiek interpretatuz hiria barrutik bizitzea, deskubritzea, beste modu batez ezagutzea.

Izan naiz Egunkariaren aldeko manifestazioan eta gauza bat ez zait gustatu: Demo batzuek pankarta bat zabaldu zuten "PNV"ri ea nora zihoazen galdetuz edo halako zer bait. Nik uste dut mezu hura leku kanpo zegoela, hura ez zelako leku aproposa politika egiteko. Azken batean, Euskadunon Egunkaria itxi dutenak ez dira EAJ-koak izan, PP-koak eta PSOE-koak baizik. Alderdi abertzaleek ezin izan dute ezer egin hori sahies- teko; nik ere ez; ezta demoeek beraiek ere. Espainiako Gobernuak itxi digu Euskaldunon Egunkaria, ez Eusko Jaurlaritzak. Beraz, zergatik ibili behar dugu gure arteko zatiketa areagotzen batu baino egiten ez gaituzten eki- menetan ere? Martin Ugalde bera ez al da EA-ko kidea ala? (alde txikia dago, alde horretatik, EAJ-tik EA-ra). Donostiako manifa jendetsua izan zen, oso; inoizko handiena, Donostian egindakoetan. Eta hori zergatik? Ba alderdi abertzale guztiek hantxe bat egin zutelako; eta batez ere, alderdi abertzaleekin identifikatzen diren herritar guztiak hantxe izan zirelako. Beraz, zergatik iraindu behar ditugu haiena ez den errua haiei aurpegira- tuz? Beste gauza bat, "PNV-k" badu izen bat euskaraz, EAJ. Zergatik idatzi zuten erdaraz pankarta hartan? Nik gauza bat esango dizuet, baina hizkuntza asmo partides- tekin edota xede ideologikoekin nahasten dutenek ar- buioa baino ez didate eragiten, euskaltzaletasuna lehertu besterik egiten ez dutelako. Eta horrela hitz egiten du- ena ez da EAJ-ko kidea, Ezker Abertzaleko gizasemea baizik (ni, alegia).

Ezker Abertzalearen barruan beti egon da korronte hiper-ortodoxo bat, Stalin baino stalinistagoa, egia numantino baten jabe balitz bezala beti jokatu duena eta Ezker Abertzalea gaur egun dagoen deskalabroraino eramán duena (minez diot hori, zeren nik beti maite izan dut ezker abertzalea). Autokritika eskasa, halakoén aldetik. Zerbait gaizki badoa, besteen errua da beti. Hitzaldi immobilista batean ainguratua aspalditik. Ezintasuna ohitura bihurtu duena. "Kristauen" eta "apostoluen" bidea besterik bilatzen, eskaintzen, jakin ez duena. Batzuetan, Negarrontzien Kluba ematen du, garela.

Ezinezkoen atzetik ez genituzke indarrak ahitu behar. Zeren amestea ondo dago, baina errealitateaz ahaztu gabe. Gainera, norbaitek uste badu okerrago egoterik ez dagoela, oker dago.

Heavy (V.O.S. Zuzend.: J. Mangold, 1995 - Cinematik).- Estatu Batuetako zinema independentearen erakusgarri on bat, dudarik gabe. Niri gehien bat larritasuna ("angustia") eragin dit. Protagonistaren jarrera pasiboak, mundu itxiak eta barneratuak larritasuna sortarazi didate. *Beste Estatu Batuak* erakusten dituen filma; arrakastatik urrun, jende arruntaren (arruntegiaren) bizimodua jartzen dizu aurrean, haren mixeria eta guzti.

Irakurri dut Andoni Egañaren *Sokratikoek ere badute ama* liburuko lehen ipuina, *Sokratesen mendekua* deitzen dena, eta euskara aldetik oso ona iruditu bazait ere, badago konbentzitu ez nauen gauza bat: ez

dagoela istoriorik, ipuinik, gidoirik. Hitzak oso ondo idatzita daude (nik ez dut inoiz izango halako euskara indartsua, sendoa eta jatorra). Baina ez da nahikoa, hala ere. Nik uste dut idazkera ipuinaren zerbitzuan egon behar dela, eta ez alderantziz. Horregatik, ipuina ez da zutik mantentzen, ipuinik ez dagoelako. Leku guztia hartu du hitzak. Indar handiko hitza, bai... baina hori ez da nahikoa literatura egiteko. Dena den, aitortu behar da okerragoa dela, ipuinik ez egoteaz gain, hitza ere indarrik gabea denean. Eta gaur egungo euskal best-seller askorekin nik uste dut hori maiz gertatzen dela. Zer esanik ez, irakurriko ditut Andoni Egañaren liburu honetan bildurik dauden gainerako ipuinak eta agian esango dizuet zer iruditu zaizkidan. Euskaragatik bakarrik izanda ere, edonori gomendatzeko moduko liburua da.

Zergatik sinesten dugu gauza guztien hasiera garela eta zergatik ez dugu sinesten gauza guztien hasiera ez garela? Ez al dira, azken batean, gauza bera bai bata bai bestea?

Sufritzeko daukagun gaitasun guztiau gure existentzia animaliaaren alde neurtua baino ez da; esan nahi dut gu garela animalia pentsakorrak bezalakoak. Eta sufritzean, egiten dugula lehoiak egiten duena: orro egin, adimenaren kaltetan.

Fantasmas de Roma (V.O.S. Zuzend.: A. Pietrangeli, 1961 - Cinematk).- A, zelako film ederra! Benetan, zinema zazpigarren artea da, dudarik ez. Marcello Mastronianni zoragarri zegoen, beti bezala. Eta oro har, batek bere buruari galde egiten dio ea bizitzan zergatik

ez diren gauzak gertatzen filmetan gertatzen diren bezala. Esan nahi dut filmak halako nostalgia bat uzten dizula... goi-arteak soilik uzten duena.

Euskaldunok beti aritu gara borrokan gure euskal kulturaren alde, gure independientziaren alde, gure foruen alde, gure euskararen alde... Eta bien bitartean, Espainia —Euskal Herriari dagokionez— beti aritu da borrokan gu suntsitzearen alde. Bi estrategia oso desberdin, oso emaitza desberdinak eman dituztenak, ezta?

Dena den, Vía Digital-eko "Cinematk" eskaintzak badu akats bat: filmak berritzeko orduan, motelegi ibiltzea, hain zuzen. Horren ondorioz, hilabete batetik bestera film asko eta asko (gehienak ez badira) errepikatu egiten dira. Niri, esaterako, ikusi gabe gertzen zaizkidan filmak, ba, ikusi nahi ez ditudanak dira (wester batzuk, film txepel batzuk...). Film asko irensten dituen horietarikoa bazara, lauzpabost hilabeteren buruan zer ikusteko handirik gabe geratuko zara Cinematk-en. Penagarria, benetan. Zeren, bestela, oso ongi dago; ideia oso ongi bideraturik dago.

Retorno a la vida (V.O.S. Zuzend.: H.G. Clouzot / G. Lampin, 1949 - Cinematk).- Film honetan lau istorio kontatzen dira. Bigarren Mundu-Gerraren ostean, Frantzian, deportatuak eta preso izandakoak edota gerran ibilitakoak etxera itzultzen ziren eta berriz ere hasi behar zuten bizitza zibilera ohitzen. Beti ez zen erraza gertatzen, ordea; okupazioan irekitako zauriak ixtea ez baitzen lan bat ere samurra. Normalean, ikusten ditudan filmak lehenik grabatu egiten ditut, astia dudanean ikusteko. Kasu honetan baina, filma zuzenean ikusten jarri

naiz. Hasita zegoen eta ez nuen asmorik filma ikusteko; baina harrapatu egin nau eta konturatu naizenerako istorioetan buru-belarri murgilduta nengoen. Lehenbiziko istorioa ez dut ikusi, hori jada pasata zegoen eta. Baina gainerakoak bai, eta egia esan, oso ederrak iruditu zaizkit. Batez ere, bigarrena. Elkarrizketak oso adimentsuak, zainduak, mamitsuak... Ikusita dauzkat hainbat film Frantziako okupazioari buruzkoak; eta egia esan, zeinen desberdinak, garai bereko gerra film amerikarrekin alde-ratuta! Film frantses horietan, oro har, pertsonak agertzen dira. Amerikarren gerra-filmetan, berriz, pertsonak baino, heroiak dira beti protagonista (badakizue: pin pan pum, besterik egiten ez dakitenak).

Pentsamendua burdina bezalakoa da: landu egin behar da; eta landu izan ezik, herdoildu egiten da. Jakina, nola ez den ikusten...gutxi dira alderdi horretaz arduratzen direnak. Tira, "Danone gorputzak" nagusi — holaxe doaz gauzak munduan.

Munduan ur gutxien dutenak: Kuwait, Arabiar Emirerri Batuak... Petrolioz blai baina urik ez. Batzuetan, Izadiko Ahotsak hitz egiten digula iruditzen zait, baina ez dakigula haren hitzak interpretatzen... Komi-koa da gizateria hau (daukagun bakarra!).

Western (V.O.S. Zuzend.: M. Poirier, 1997 - Cinematik).- Aitortu behar dut film honen sketcha ikusi nuenean, film honetaz gehiago espero nuela. Ez dut esaten txarra denik; alderantziz, uste dut atsegina dela. Baina, badago guztiz konbentzitu ez nauen zerbait. Eta zerbait honek gidoiaren sinesgarritasunarekin du zerikusia. Niri gustatzen zaizkit errealitatetik abiatutako fil-

mak, eta horixe da film honek egiten duena. Baina gidoiak sinesgarritasunari eutsi behar dio uneoro, hau da, filmean gertatzen diren gauzak benetako bizitzan gertatzeko modukoak direla sinestarazi behar dit behin eta berriro filmak. Eta film honetan, badira egoera batzuk erabat sinesgarriak iruditzen zaizkidanak eta beste batzuk, berriz, zalantzan jartzeko modukoak. Dena den, film entretenigarria da, indar piska bat falta bazaio ere.

Imajina ditzagun bi boxealari. Bata ring-era igotzen dena aurkaria bortizki jo, kolpatu eta txiki-txiki eginda uzteko asmo (estrategia) garbiarekin; bestea, berriz, kolpe-zaparrada jasan eta, modu horretan, aurkariaren indarrak ahituko dituelakoan igotzen da ring-era. Jakina, lehena ez da inoiz nekatzen jotzeaz; edota indarrak ahitzen zaizkionerako, bestea erdi-hilda utzita dauka ring-ea, erabateko K.O.an. Ea zer esan nahi duen horrek? Ba esan nahi du okerreko jarrerak garestitxo ordaintzen direla. Besterik ez du esan nahi horrek.

Zibilizazio nazkagarri guztiau, geure burua suntsitzeko baino balio ez diguna...Hain ederra da dena, eskuekin ukitzen dugun arte... Bestalde, hipokresia eta zinismoa zertan diren jakin nahi duena, sar dadila politikan eta ikusiko du gizakion enda norainokoa den baxua eta zikina. Kalegarbitzaileak jarri beharko genituzke politika egiten, ez baitut uste teknokratek baino okerrago egingo luketenik.

Argentinako ekonomiak erre kara jo eta gero, Maiatz plazako amek eginiko azalpen batzuk geratu zaizkit buruan atxikita: «Gure seme-alabei eginiko izugarrikeriengatik kalera atera ez ziren burgesak eta herri-

tarrak, oro har, orain hortxe ari dira euren sosengatik iraultzarako deia egiten. Guri horrek mintzen gaitu». Halako zerbait-edo eman zuten aditzera eta ni guztiz bat nator sentimendu horrekin, goi-mailako sentimendu guztiekin bat etortzea bihotz-garbitasunaren adierazlea da eta. Tira, argentinar horiek grina handiegia jartzen zuten futbolean, eta hortik ezin ezer onik heldu.

Belar-izpi baten patua eta izar handi batena oso antzekoak dira. Azken batean, denborak du azken hitza, beti bezala.

Cena de Navidad (V.O.S. Zuzend.: D. Thompson, 1999 - Cinematk).- Film honek uste dut 106 minutuko iraupena zeukala. Eta lau bat minutu-edo bukatzeko falta zela, nire bideo-zinta errebobinatzen hasi zen, hau da, bideo-zinta bukatu zen eta filmaren amaiera zein zen jakin gabe geratu nintzen. Dena den, ez zitzaidan gehiegi inporta, zeren film bat ona denean, filmak iraun bitarteko denbora osoan da ona. Eta hori da film honen kasua. Apur bat motela zen erritmo aldetik, baina benetako bizitzan abiaturiko kontaketa ongi oinarrituta zegoen, errealitatearen eta fikzioaren arteko balizko mugak ezabatuta geratzen zirelarik (niri gustatzen zaidan bezala, alegia). Paris erakargarrian oinarrituta, musikari famili bat du protagonista; eta komediaren bidean erdi-seriotan erdi-txantxetan abiatuz, astinaldi bat baino gehiago ematen diete gizoni film honetako emakumeek. Ea ba hurrengo hilabetean berriro botatzen duten film hau, gustura ikusiko nuke-eta ditzosozko amaiera.

Batzuetan, nire burua neronen eskuekin sakatu eta sakatu nahi nuke, txiki-txiki egin arte. Zuek ez al duzue noizbait antzeko burutaziorik izan?

La escalera (V.O.S. Zuzend.: S. Donen, 1969 - Cinematk).- Antzerkitik zinemagintzara pasatako film sinpatiko honek bi homosexual ditu protagonista. Film zaharra da, eta beraz, ausarta. Ez dut nik ezagutzen homosexualen giroa, baina esango nuke honako film hau «kultokoa» izango dela gay giroan. Antzerkiarekin duen lotura handia izanik, elkarrizketak garrantzi handikoak dira; ez helarazten dituzten mezuengatik, gidoian hartzen duten pisuagatik baizik. Badakizue homosexualen arteko elkarrizketak nolakoak izan ohi diren, batez ere «luma» daukatenen artean: oso zorrotzak, oso hironikoak, oso berezkoak, oso friboloak...Zenbait gauza, hala ere, barrutik baino ezin dira ulertu. Eta homosexualitatea gauza horietariko bat da. Nik, adibidez, halako patetismo bat ikusten dut bi pertsonaia horiengan — direna izateko eskubide oso-osea aitortzen badiet ere—. Bestalde, filmak ere badu bere salaketa-ukitua: bietako batek auzi beldurgarri bati aurre egin beharko baitio, kabaret batean emakumez mozorrotu eta «jarrera lizunak» egiteaz akusatuta. Homosexualak izateagatik sufritu behar zituzten jazarkundea eta bidegabekeria agerian jartzen ditu filmak, baina beti ere umorea (umore mikatza) galdu gabe, «patetismo heroikoa» hondatu gabe. Film xamurra da, homosexualak euren birtuteekin eta euren mixeriekin aurkezten dituen hau.

Idazketaren barrokismoa ongi dago bainu- etxeetan urte luzeak igarotzeko zortea daukanarentzat. Ez da nire kasua, noski.

El Universo (Un viaje a través del tiempo), editorial Folio.- Liburu ederra, benetan. Argazki zoragarriak dakartza eta unibertsoari buruz ematen dituen azalpenak ulertzeko modukoak dira gai horretaz ezer gutxi ez dakigunontzat, profanoontzat alegia. Aitortu behar dut pena piska batekin gelditu naizela, zeren nik espazioari buruz neuzkan zenbait ideia ba konturatu naiz zeinen sinpleak ziren, eta poetika jarrita neukan lekuan elementu kimikoak eta gertaera fisikoak baino ez daudela. Alde horretatik, aitortu behar dut poesia maite dutenek badakiten edota sentitzen duten zerbait: jakiteak hegoak mozten dizkigula, ezagutzak askotan ametsak sunsitzeko baino ez digula balio. Dena den, pozik esan beharra daukat zerbait hiltzen denean beste zerbait sortzen dela, eta nire kasuan esango dizuet zer galdu dudan eta zer berreskuratu dudan: hil dut poesia mota bat eta sortu dut poesia mota berri bat: anti-poesia dei genezakeena (hala nola antimateriaz mintzatzen garen, ba anti-poesiaz ere mintzatu beharra dagukagu, garai berriekin bat). Dena den, bai batak bai besteak leku berera garamatzatelakoan nago.

Bazterreko ahotsa, Ana Urkiza (Elkar, 98 orr.).- Poesia liburu hau ahalegin berezirik gabe irakurri dut, gustura irakurri dudala esan nahi dut. Agian, lehenbiziko irakurraldi honetan, bi poema dira bereziki gustatu zaizkidanak: «Armairua bete desio» eta «Ez nuke berriro jaio nahi». Dena den, badakizue poesia dela musika bezalakoa, hau da, zenbait irakurraldi (entzunaldi) egitea ezinbestekoa dela, poesiaren (soinuaren) nondik-norakoa atzemateko.

«Ezkutuko desirak» du izena Ana Urkizaren *Desira Izoztuak* liburuko lehen ipuinak. Ipuina amaitze

aldera, pentsatu dut askoz gehiago gustatuko zitzaidakeela amaieran neska izan balitz mutila abandonatu zuena, hau da, hark sinetsarazi izan baligu bera izan zela abandonatua, alderantziz izan arren. Horrek irakurlea ustekabean harrapatuko zukeen eta ipuinari beste dimentsio bat, beste atalaia bat emango ziokeen. Sendoa da Urkizaren euskara, ipuinak garatzeko duen bidea amarruga-bea iruditu bazait ere.

Egunkariaren itxiera eta horren inguruko gertaerak hain larriak izanik, eskasegia iruditu zait ordubeteko lan-uztea. Nik uste dut gertaera berez nahiko larria dela eta beraz erantzun sendoagoa behar duela. Txandakako Greba Etengaberako deia edo antzeko zerbait proposatuko nuke nik. Ea zer den hori? Bueno, denok ezagutzen dugu «Korrika», AEKk antolatzen duen ekimen sinpatikoa. Txandakako Greba Etengabea ildo horretatik abiatuko litzateke. Esaterako, gaur Lesakako lantegi batek egingo luke greba; bihar, Bermeoko Arrantzale Kofradia batek; etzi, Baiona aldeko saltoki batek hartuko luke grebaren lekukoa; lau egun barru, Biasteriko nekazari elkarte batek egingo luke beste horrenbeste; bost egun barru... Hori da nik gauzatuta ikusi nahi nukeen greba. Eta noiz arte iraungo luke? Ba «Euskaldunon Egunkaria» izena berreskuratu arte edota errugabeak izanik (ETAkoak ez izanik) atxilotuak izan diren hamar pertsonak kalean aske egon arte edota horrelako gauzak berriz gertatuko ez direla ziurtatu arte edota... Ea zer gertatuko litzatekeen «Euskaldunon Egunkaria» izena berreskuratzeko 10 urte pasako balira edota pertsona errugabe horietariko bati 8 urteko kartzela-zigorra ezarriko baliote? Ba orduan 10 urtez edota 8 urtez txandakako greba etengabea egin beharrean egongo ginatkeela.

Euskal sindikatuei luzatzen diet halako ekimen bat antolatzeko gonbitea, zeregin hori bereziki haiei

dagokielako eta halako ohorea langileen eskubideak defendatzen dituztenen erakundeei doazkielako. Euskal sindikatuak ditut gogoan (alde horretatik, ez dut uste UGT sindikatuaz ezer espero dezakegunik, sindikatu horretako kideak oso arduratuta baitabilza Danborenearen euskaldunon aurkako irainak txalotzen). Nire ustez, izango dira Euskal Herri osoan ehunka eta ehunka lantegi greba honekin bat egiteko gogoz egongo liratekeenak, eta beraz, urteak 365 egun dituela kontuan hartuta, horrek esan nahi luke egun bateko greba egiten duen lantegiari txanda berriro iritsiko zitzaionerako, seguraski urte mordsoka igaroko liratekeela, beraz ez dut uste lantegi bati inongo kaltea egingo liokeenik hainbat urtean behin egun bateko greba egiteak, batez ere «Euskaldunon Egunkaria» izena eta bide batez euskaldunon duintasuna eta askatasuna errebindikatzeko bada, eta zer esanik ez, jende errugabearen askatasuna eskatzeko izanez gero. Nazioarteko zenbait lekutara ere zabal liteke greba hau.

Azkenik, argitu nahi nuke «Euskaldunon Egunkaria» izena ez genukeela galdutzat jo beharko. «Egunero» izena, alde horretatik, maileguan hartutako izena baino ez da, behintzat nik hala ulertzen dut. Eta estimatzekoa da eta ezin ordainduzko zorra daukagu euskaldun guztiok «Egunero»koekin, baina ez genuke ahaztu behar izen hori maileguan utzi digutela eta beraz noizbait itzuli egin beharko diegula horren eskuzabalki utzi digutena. Hala izango ez balitz, pentsatu beharko nuke galtzaundi batzuk baino ez garela, edo «aprobetxategi» batzuk (bai, zirika ari naiz, oso ongi asmatu duzuen bezala).⁵

Eta Egunkariaren itxierari loturik, beste ideia bat. Hemen Euskal Herrian aktore faltarik ez daukagu, eta zine-zuzendariak ugariak ez baina banaka batzuk baditugu. Gogoan ditut, esaterako, «La fuga de Segovia», «El proceso de Burgos» eta tankera horretako fil-

⁵ Liburu hau plazaratu denerako, “Berria” kalean da.

mak, bai Euskadin bai Euskaditik kanpo oiartzun handixea izan zutenak. Alde horretatik, nik uste dut euskal zinemagintza (halakorik balego) obligaturik legokeela gure egunkariaren itxiera oinarri hartuta film bat egitera, gertatutakoa gure herriko eta nazioarteko forum guztietan salatzeko. «En el nombre del Padre» film irlandarra ezagun zaizue, ezta? Ba halako zerbait. Eta estreinako aldiz aurkeztu, ez dakit, ba Cannes-ko edota Berlingo Zinemaldian esate baterako (edota Donostiako Zinemaldian, ordurako debekatuta ez balego).

La bella mentirosa (V.O.S. Zuzend.: J. Rivette, 1991 - Cinematk).- Lau orduko film hau hiru gautan ikusi dut, burua gehiegi ez nekatzeko. Eta egia esan, film zinez ederra iruditu zait. Gogogan dut, gaztetan, pintore bat ezagutu nuela Londresen. Leo zuen izena eta berehala konpondu ginen oso ondo elkarrekin. Mundu oso berezia zeukan. Egia esan, gogoko ditut pintoreak eta artistak (daukaten bizitza eta bizitzeko era, oro har, ohiko moldeetatik ateratzen direlako). Irudimena behar da koadro bat sortzeko; eta irudimena behar da baita bizitzeko ere. Film honetan, halako zerbait gertatzen da. Pertsonaien bizimodua ez da ohikoa, ezta haien arteko harremanak ere. Jane Birkin aktorea erakargarria egin zait ezagutu nuenetik eta Michel Piccoli aktoreari ongi zetorkion roll-a. Behin, gazteagoak ginenean, gure lagun giroan norbaitek hauxe planteatu zuen: posible al da sortze-lanetan aritzea eta aldi berean bizimodu arrunt batean murgildurik izatea? Galdera planteatu zuen laguna gauza batzuetarako behintzat nahiko ortodoxoa zenez, baietz zegoen (Stalinen garaiko ameskeriak: langile finak lantegiak eta goi-mailako poetak lantegitik kanpo). Orain badakit zein den erantzuna: ezetz, sortze lana eta bizimodu sortzailea estu loturik daudela elkarrekin, eta hori ulertzen ez duenak zaila oso zaila dauka benetako sortzailearen eitea bereganatzeko. Filmari buruzko beste iruzkin bat: azkenean, ikuslea ohitu egi-

ten da pintoreak darabilen modeloa biluzik ikustera, hau da, pintorearen ikuspegitik ikustarazten dizu modeloarene biluztasuna. Eta badira hitz batzuk, oso politak iruditzen zaizkidanak, eta pintoreak bere modeloari esanak, gutxi gora-behera honela ziotenak: «Mundu guztia jabetza bila dabil; bestearen gorputzaz jabetu nahi dugu alegia; baina jabetza hori da, hain zuzen, den-dena piktartara bidaltzen duena». Bai, nik uste dut ulertzen diodala. Izan ere, jabetza guztiak onartezinak dira, eta zauri bat ireki edo gerra bat pizten dute; halako arrenkura bat sortzen dute alegia, bikotekide guztiengan ia-ia uki daitkeen etsaigoa.

Ana Urkizaren «Desira izoztuak» liburuarekin jarraituz, bigarren ipuina («Ezezagunaren esku artetik») gustatu egin zait. Batez ere, ustekabeko amaiera gustatu zait. Nik behintzat gogoko ditut ustekabeak literaturan, idazlearen irudimena agerian jartzen dutelako. Piska bat tremendista da bukaera, bai, baina benetako bizitzan, tamalez, holaxe amaitzen dira maitasun-istorio asko, batez ere iberiar penintsulan. Zezenak, Soberano, trikornioak... Alde txar gehiegi.

Nafarroako Gobernuak euskal kulturarekiko daukan jarrera ikusita, nik uste dut Nafarroako euskal udalerrietan honako proposamen hau sikiera bultzatu beharko litzatekeela: Miguel Saenz Nafarroako Lehendakaria *persona non grata* izendatzea. Seriotan ari naiz.

Euskaldunok gure ahotsa eta aldarrikapenak maizago eraman beharko genituzke auzo, herri eta inguru erdaldunetara. Azken batean, jada euskal kontzientzia handia duten auzo eta herrietan lan egitea alferreko

lana baita; euskal kontzientzia eskasa duten lekuetara jo behar dugu, gure lekukotasuna ematera. Donostiako Alde Zaharrean, esaterako, manifestazio asko egin izan dira betidanik; Amara Berrin, esaterako, oso gutxi. Orohar, hiriburuak izan ohi dira erdaldunenak; eta hiriburu-etako zenbait auzotan, are nabarmenagoa da hori.

Todos los nombres, José Saramago (www.puntulectura.com, 350 pág.)- [...] sentía en el cerebro un remolino líquido donde todos los pensamientos se disolvían [...], halako esaldi zorabiagarri bat irakurtzeagatik, liburu osoa irakurtzea merezi luke. Dena den, liburu honen alde ederrak ez daude esaldi horretara mugatuta (zorionez), liburua askoz gehiago da eta. Saramagoren liburuek beti eragin didate halako sentsazio apokaliptiko bat, baina da gizakiaren barnetik isurtzen den apokalipsi mota bat. Kafkaren erreminiszentziak ere aurkitu uste izan ditut nobela honetan («Conservaduría General»/«Kafkaren Gaztelua»), edota Pessoaarenak (hilerri labirintikoan —berriz ere Kafka/mundu klasikoa— topatzen duen artzaina eta honen artaldea)... Egia esan, pena bakarra daukat: ez izatea egunez irakurtzeko astirik, eta ondorioz, gauez edota "after hours" egin behar izatea irakurraldirik gehienak, nekeak altxatako murrak ez baitu uzten ikusten harantzago zer dagoen; esan nahi dut apur bat lausotua dela edertasunaren gainean dudan ikuspegia, itsua ez naizen arren...

Behintzat banaiz sentitzeko gai; eta hori ez da gutxi.

Saramagoren liburuetatik alderdi poetikoak kenduko bagenu, lursail batetik belarra kenduko ba-

genu bezala izango litzateke: lurrarekin geldituko ginatekeela. Lurrarekin bakarrik. Seguraski, neurri handiago edo txikiago batean, gauza bera gertatzen da liburu guztiekin... pertsona guztiekin... zer guztiekin...

Ez dago garai txarrik lirikarako. Ortodoxoen gezurrak baino ez dira horiek (garai onetan poesiarako astirik inoiz aurkitzen ez dutenak dira hola hitz egiten dutenak beti). Gainera, edonork daki poesiarako garairik onena garai txarra dela, hor aurkitzen duelarik — poesiak— bere simaurrik freskoena.

Rolling Stones taldea Bartzelonan jotzekoa da, eta kontzerturako txartelak saltzen dituzten gailuak blokeatu eta guzti egin dira, txartel-eskariaren uholdeagatik. Nik, berriz, behatzik txikiena ere ez nuke mugituko «mamón» horiek ikustera joateko. Joan daitezela Royal Navy-ko mariñeltxoak zabor anti-intelektual horretaz elikatzen. Gainera, nostalgia arintzeko, puzker on batzuk botatzea bezalakorik ez dago. Hori ez diot nik, eh? Hori Popeye-k dio.

Donostian egiten diren manifestaziorik gehienak Amara Berritik abiatu beharko lirateke, fazista historikoen auzotik. Donostiako beste auzoetaz ahaztu gabe, noski.

Zer dela eta antolatu behar ditugu manifestazio guztiak —Donostiaren kasuan— Alde Zaharrean edota Bulebarrean? Baina gu, abertzaleok zer gara, idiotak edo? Berrogeita bi urte ditut eta Amara Berriko zenbait

kaletan ez dut behin ere manifestazio bakar bat ere ikusi: Isabel II.a, Felipe IV.a, Carlos I.a (a, zer izen aristokratikoak!), Baleazaleen kalea, Salaberria kalea... Ezta Franco-ren garaietan ere ez dut nik behin ere ikusi manifestazio bat kale horiek zeharkatzen. Guk badakigu horrelako auzoetan nortzuk diren nagusi. Eta horretxegatik, hain zuzen, hara eraman beharko genuke gure ahotsa. Hernani, Astigarraga, Urnieta... Horiek berez nahiko euskaldunak dira. Batu dezagun indarra orain erdal kutsuko auzo eta herrietan. Eta modu baketsuan, eman diezaiegun gure indarraren berri, etengabe.

Amara Berrirekin jarraituz, askotan agertzen dira «ETA No» «ETA Ez» pegatinak euskal kutsuko karteletan atxikita. Niri ez zait inporta pegatina horiek nahi dituenak nahi duen tokian jartzea; uste dut nik adina eskubide dituela pegatina edota kartel bidez bere iritziak ezagutzera emateko. Gainera, neroni ere ez naiz batere indarkeriazale. Baina, euskal kutsua duten kartelen gainean sistematikoki jartzea, iruditzen zait bestean eskubidea argi eta garbi zapaltzea dela. Batez ere, kontuan harturik kartel horietariko askok aditzera ematen duten mezuek ez dutela terrorismoarekin inongo zerikusirik. Esaterako, Euskaldunon Egunkariaren itxiera salatzeko jarritako kartelen gainean «ETA Ez/ ETA No» pegatinak ere agertu dira. Eta ikastolen aldeko aurre matrikulazioa igartzen duten karteletan, berdin. Eta horrelaxe mila adibide jar nitzake. Bestelako hitzez esanda, euskal kutsuak daukan edozer «terrorismo»arekin lotu nahian dabilta pegatina horiek jartzen dituztenak. Horregatik, nik proposatuko nuke antzeko pegatinak ateratzea, baina «GAL Ez» «GAL No» mezua izango dutenak. Eta proposatzen dut pegatina hauek erabiltzea besteek eurenak erabiltzen dituzten bezala, efektu berbera lortuz baina alderantziz, haien lotsagabekeria salatzeko eta euren arma berberak erabiltziz haiek kakaztuta uzteko. Azkenik, gogoratu pegatinak

ateratzea oso erraza dela: PCa, inprimagailua eta etiketa-programa arrunt bat besterik ez dira behar.

Zeinen ederra izango den, hiltzean mixeria guztionetaz askatzen garenean! Orduan, agian, merezi izango du Jainkoari begietara begiratzea. Eta orduan, uni-bertsorantz abiatu, esploratzailearen ilusioak asebetetzera, *sekula sekulorumn*.

Miss Julie (V.O.S. Zuzend.: M. Figgis, 1999 - Cinematk).- Film honetan, transgresio baten istorioa planteatzen zaigu. Eta hori beti da gauza oso atsegina. Kasu honetan, transgresio soziala da: aristrokaziako emakume polit bat, bere morroiaz maitemintzen dena, duela mende eta erdiko Ingalaterran. Hortik aurrera, edozer gerta zitekeen. Batez ere, kontuan harturik ez bata ez bestea ez direla Romeo eta Julieta. Aitzitik, bi zomorro arraro dira, biak. Ez dago argi maitasuna eta elkar zauritzeko nahia non hasi eta non amaitzen diren. Une oso ankerrak daude; baina, batez ere morroi «ondo heziaren» ankerkeria da gehien atxiki zaidana. Gaizki hasten dena ezin ondo bukatu. Eta alde horretatik, amai-era tragikoa baino ezin genezakeen espero. Badago esaldi bat, txit polita eta «klabea» iruditu zaidana, eta da neska aristrokatak morroiari esaten dionean: «Trata nazazu pertsona bat bezala». Morroiak, berriz, burua mozten dio kaiolan zegoen txoriari (neskaren maitasuna eta sakrifizioa sinbolizatzen zituen hegaztiñoari), eta horrek tragedia azkartzen du. Tamalgarria, benetan.

Euskaldunon egunkariarekin gertatutakoa (eta beste hainbat gauza, Espainiako komunikabideetan sekula aipatzen ez direnak) ezagutzera eman beharko ge-

nuke Espainia aldean. Adibidez, eskutitzak bidal genitzaque Estremadurara, Madril aldera, Asturiasera, Andaluziara... Milaka eskutitz, gertatutakoaren berri emanaz, errugabeko jendeak sufritu dituzten torturen testigantza helaraziz...

El libro celta de la vida y la muerte, Juliette Wood (Círculo de Lectores, 144 págs.)- Oso liburu ederra da, diseinu zoragarriekin apaindua. Egia esan, ez nekien gauza handirik kultura zeltikoari buruz, eta alde horretatik, liburu honek oso ongi bete du bere zubi-lana. Círculo de Lectores berez ez badut gehiegi preziatzen, onartu beharra daukat zenbait argitalpen zoragarri ateratzen dituela. Eta haxe da horietariko bat. Zelden kultura, mistika, legendak, izadia, naturaz gaindikoa, patua, jakituria, pertsonaia magikoak... Hori dena azalduta agertzen da liburu honetan; eta esan bezala, dakartzan ilustrazioek urrea balio dute.

Alderdi politiko abertzaleetan, oro har, asko hitz egiten da eta oso proposamen zehatz gutxi egiten dira. Nik uste dut halako endemia politiko bat dagoela, arrisku handikoa dena, besteak ez baitaude egonean...

De todo corazón (V.O.S. Zuzend.: R. Guédiguan, 1999 - Cinematk.)- Film polit honen izenburuak berak dioskunez, bihotz-bihotzetik eginiko filma da. Arrazakeria salatzea du helburu. Eta horretarako, abiapuntutzat hartzen du familia atipiko bat. Eta atipikoa diot, zaila delako —nire iritziz, behintzat— halako harmonian bizi den familia bat aurkitzea. Film samurra da, bidegabekeria kontatzen dituena baina bidegabekeria horietan luzaroegi gelditzen ez dena, hau da, ez dio le-

kurik ematen autogupidari. Eta puntu melodramatikoe-
gia hartzen badu ere —zenbait momentutan, behintzat—
eta eszena batzuk apurtxo bat «lakrimosoegiak» badira
ere, oro har ondo egina dago, eta bete nahi zuen helbu-
rua betetzen du ohore guztiakin.

Esan diot gaur lagun bati Tomás Segovia-ren *En los ojos del día* poema-liburua irakurtzen ari nintzela, eta hark esan dit ez zuela poeta horren berri, eta nik erantzun diot neuk ere ez nekiela haren berri, liburua orain dela gutxi eskuratu arte. Galde egin dit zeintzuk gai jorratzen dituen bere poesian eta nik zer erantzun ez nekiela geratu naiz. Geroago, etxean, aipatu poesia-liburua irakurtzen ari nintzela, konturatu naiz Tomás Segoviak ez duela gai jakin bati buruz hitz egiten, bai-zik-eta denetaz eta ezertaz idazten duela. Eta orduan, are gehiago gustatu zait olerkari erdaldun honen poesia, beti pentsatu baitut poesiaren zeregina horixe dela: denetaz mintzatzea eta aldi berean ezertaz (ez) mintzatzea, helburu jakinik gabe.

Munduak bere orroa igorri digu. Eta guk, herabeti, beste alde baterantz begiratu dugu, ostruka bihurtuta. Horri esaten diot nik besapearekin pentsatzea. Eta zer esango dizuet nik, ez bada desodoranteak ongi dau dela, bai, baina beste erremediorik ez daukatenentzat: niretzat, Popeierentzat, Freud-entzat...Munduak bere orroa igorri digu gaur gauean; zeharo ustekabea harrapatu gaitu, hortxe, zulo horretan, gure hitzetan erorita... Tira, oraindik bizirik nago, lanean aritu beharrak nitaz ahaztarazten banau ere. Alienazioa akaso...?

Inspirazio handiko poeta da Tomás Segovia.

Zein izango da nire azken gogoeta txikia...?
Surrealismoaren ataka ireki behar, hori asmatzeko.

El final de la infancia (V.O.S. Zuzend.: J. Lipsky, 1996 - Cinematk).- Aitortu behar dut: nekatzen hasia naiz «American Way of Life» delakoaz, eta gero eta «Coca-Cola» lata gehiago ikusten ditut nonahi. Bai, agian psikiatra batengana jo beharko nuke, laguntza eske. Baina filmeko protagonistek gauza bera egingo balute, ez litzaieke bat ere gaizki etorriko. Dena den, suposatzen dut hori dela «zibilizazioa». Hondar hutsa, azken batean. Beti da-eta hondar hutsa. A, gauza zehatzetan bat esateagatik: filmeko hainbat momentutan, elkarriketak artifizialak iruditu zaizkit. Eta suposizioekin jarraituz, bizitza horrela dela esatera ausartuko banintz, beharbada ez nintzateke oso erraturik ibiliko. Baina, nori inporta dio horrek? Niri ez, behintzat. Filma ikusi nahi duzuela? Ondo da, lehen baino gutxiago jakiten ez zarete aterako *esperientzia* horretatik. Hori bai, ez ahaz 99 minutuz ipurdia besaulkiari atxikita izan beharko duzuela. Abisua pasatzen duena ezin traidorea izan.

Gero eta estimu handiagoan dauzkate euskal taldeak eta kantautoreak. Euskal musika guztia, hitz batean. Lete, Lertxundi, Oskorri, Tapia & Leturia, Ordorika, Laboa, Txomin Artola, Zubiria... Ba al dago, gainera, modu hobeagorik dela goi mailako olerkia dela bertsoarritza zorrotza ezagutu eta gozatzeko? Gainera, kontuan harturik guztiori dela gure herriaren musika (eta ez dela, beraz, giro intelektual «pribilegiatu» batena), niri harrigarria egiten zait, eta narاما pentsatzera benetan herri berezia daukagula, kantautore eta talde

horiek darabiltzaten letrak goi mailakoak izanik ederki jakin baitu euskal herriak altxor hori preziatzen eta gordetzen. Hala biz beste lau mila urtez (gutxienez).

Ipurtargiaren itzal luzea, Lorea Agirre (Euskaldunon Egunkaria, 100 orr.)- Orain dela bi hilabete edo, Euskaldunon Egunkaria oraindik martxan zegoela, alearekin batera (Egunkariaren harpideduna bainintzen) Joxemi Zumalabearen biografia biltzen zuen liburua jaso nuen, *Ipurtargiaren itzal luzea* alegia. Irakurtzeko beste zenbait kontu nituenez, edota lanpetuegi nembilenez, kontua da liburua bi hilabetez-edo hortxe apalategian izan dudala, kasu handirik egin gabe. Irakurtzean, berriz, sorpresa polita hartu dut. Ni, egia esan, apur bat «astronauta» izan naiz beti; esan nahi dut guztiz «nire kasa» bizi izan naizela, elkarte eta talde guztietatik urrun, giza taldeekin harreman handirik izan gabe («itxia» naiz, alde horretatik, baina «autista» izatera heldu gabe, eh!). Joxemi Zumalabe kontrakoa zen, hain justu: pertsona oso irekia, lagunarteko giroari emana beti, hamaika ekimenen piztaile eta sustatzaile... Dena den, Zumalaberen nortasuna eta nirea hain diferentek izan arren, ezaugarri komunak ere badira, esaterako: euskararekiko atxikimendua, euskararen unibertsoa normaltzeko nahia, euskal gizartearen gaineko kontzientzia bizia... Josemire Zumalaberen biografia irakurtzea oso baliagarria egin zait euskal jendea piska bat hobeto ezagutzeko. Oso ongi kontatuta dago dena eta bereziki hunkigarria egin zait hainbat eta hainbat arrazoirengatik (bat aipatzearren, lerro hauek idazterako Euskaldunon Egunkaria itxita egoteagatik). Euskal Herria hobeto ezagutzeko liburu bat, edonori gomendatzeko modukoa.

Drugstore Cowboy (Zuzend.: Gus Van Sant, 1989 - Canal Hollywood).- Drogatak. Horra film honen

nondik-norakoa. Kaleko eta ospitaletako farmaziak lapurtzen dabiltzan drogatak. Denak nahiko "guaperak" izanik, filmari sinesgarritasun piska bat kentzen dio horrek. Baina, tira. Ikus daiteke. Baditu eszena gogoangarri batzuk. Agian, gehien gustatu zaidana giro onirikoak izan da; beno, ez da giro oniriko hutsa, yunkiak esna bizi dituen ametsak, aluzionazioak edo denadelakoak baizik. Ohiko errealitatearekin batera edo «paraleloan» garatzen doan (protagonistak bizi duen) beste errealitate bat.

Soldata irabazteko balio digun lana eta sortzelana ez dira, oro har, bateragarriak izaten. Batak bestea itotzen du. Halako baieztapenak denok ditugu ezagunak. Baina jakitea laguntza gutxikoa da; ahal izatea baita garrantzitsuen. Ahal izatea.

La Caverna, José Saramago (www.puntulectura.com, 441 págs.)- Mundu bat —duina, zaharra, buztinazkoa—, galtzen ari. Eta beste muturrean, mundu berri bat —plastikozkoa, autokontsumitzailea—, betikotu nahian. Eta bi mundu horien arteko uztartze ezinezkoa. Eleberri *erromantikoa* da, eta aldi berean, *belikoa*. Gero, pertsonaien arteko elkarrizketa ia magikoak ditugu (maltzurak orain, xaloak gero, zaurikorak hurrengoan...). Gizatasun handiko idazlea da Saramago; beraz, haren pertsonaiak ere "gizatasun handikoak" izateak ez du inor harri eta zur utziko. Badu, hala ere, tonu jakin bat (Saramagoren prosak) guztiz konbentzitzen ez nauena eta bere liburu guztietan errepikatzen dena. Azken batean, betiko kontua: balantzako bi platerxoetan norbait —edo zerbait— jartzen dugunean, albo baterantz edo besterantz tiratuko du pisuak (erdirantz tiratzen ez duenean). Saramagoren kasuan, edonola ere, balantzak beti ematen du haren aldeko

epaia. Horregatik dut gogoko idazle portugaldarra. Bai jauna.

El húsar en el tejado (V.O.S. Zuzend.: Jean-Paul Rappeneau, 1995 - Cinematk).- Film batzuk gogoan daramatzagu, eta beste batzuk bihotzean (maite izan genuen baina gure egiteko gauza izan ez ginen pertsonaren antzera). Mundu honetan balego urrezko filmik, hauxe litzateke horietariko bat. Bi orduko harribitxi honek besaulkiari atxikita izan nau, denboraren nozioa ia galduta, ohartu ere egin gabe goizeko ordubiak zirela eta biharamonean lanera joateko goiz jaiki behar nuela. Artegintzak, oro har, zeregin bat dauka, eta film honek ederki betetzen du berea. Zinema zer den jakin nahi duenak, ikus dezala. Erabateko idealizazioa (gorago ezin jo).

Sartu, korrontea dabil, Ixiar Rozas (Erein, 131 orr.).- Hasteko, oso liburu polita iruditu zaidala esan behar dut. Beharbada ez da oso originala gauzak horrela adieraztea, baina nire kasuan, behintzat, bai bakana; izan ere, irakurtzen ditudan euskal liburuetariko asko ez zaizkit *oso politikak* iruditzen, eta beraz, sinplekeriak esateko aukerarik ere ez didate ematen. Oraingoan ez, ordea; liburu polita da eta. Rozasen euskara ez da literatura itzulpengintzan aurki dezakegun euskara preziosista horietakoa, ez da oso sofistikatua, baina bai jatorra eta sendoa, eta are garrantzitsuagoa: euskara kontakizunaren zerbitzuan jarrita dago, eta ez alderantziz (sarritan, tamalez, gertatu ohi den bezala). Pertsonaiak eta dagozkienez zertzeladak mundu propio batean mugitzen dira, eta hortik dario indarra liburuari. Une jakin batean edo bestean, pentsatu dut eleberri baten aurrean ez-baizik ez ote nengoen ipuin-liburu baten aurrean; beharbada hor agerian jartzen da halako ahulezia bat nobela-

egituraketaren aldetik, aurreragoko ataletan gutxiago agerian jartzen dena, eleberri-egituraren mesederako. Bai, badago halako armiarmase-sare bat pertsonaien artean, eta zenbaitetan oso garbi azaltzen ez bada ere, liburuak beti mantentzen du bere lojika. Idaztean, pinta-tzean... beti bilatu behar da mota bateko edo besteko idealizazioa, eta nik Ixiar Rozasen liburu honetan aurkitu egin dut. Uste dut horregatik gustatu zaidala. Halako liburuak dira beste hizkuntza batzuetara itzultzea merezi dutenak, etxean daukaguna kanpoan ere ezagutzera emateko.

Seduzitzailearen egunkaria, S. Kierkegaard (Klasikoak, 195 orr.)- Juan Mari Mendizabal itzultzaileak euskaraz jarritako liburu honetaz esan behar dudan lehen gauza da irakurketak berez atsegin handia eman didala, eta beharbada bitxia irudituko zaio norbaiti, baina liburua erdaraz irakurri izan banu, ez dakit atsegin bera emango zidan. Esan nahi dut hizkuntza-estetika hutsa nahikoa zaidala liburu batez gozatzeko. Jakina, Kierkegaard pentsamendua ere hortxe dago, liburu hau apurtxo bat “ganberroa” iruditu bazait ere, filosofo batena izateko. Eta garaiz pittin bat pasata ere bai. Dena den, pentsa dezagun une batez gure Seduzitzaile hau “erroskarik” bat ere jaten ez duten gizajo horietariko bat dela; pentsa dezagun egun guztia “makinatzen”, azpikeriatan dabilela neskak nola konkistatu eta abar, baina inoiz neska bakar batengana ere hurbildu gabe, ezer lortu gabe. A, lagun! Orduan, niretzat liburuak hartuko luke bere benetako tamaina eta zentzua; ostera ere topatuko nuke nire aurrean maitasunaren idealizazioa, seduzitzailearena: maitasuna fantasia huts bihurtua. Eta ikuspegi horretatik bai, Kierkegaard-en seduzitzaile hau Fellini-ren Don Juan bezain maitagarria irudituko litzaidake. Edonola ere, gozatu dut benetan itzulpen honekin. Zeren irakurketak berez plazerra ematen badit, zer axola

du gaiak? (zure ondoan dagoen neska/mutila maite bazu, zer axola dizu hark dioenak?).

Hable con ella (Zuzend.: Pedro Almodóvar, 2002 – Vía Digital).- Ez diot inoiz estimazio handirik izan espainiar zinemagintzari. Baina onartu beharra daukat Almodovarren filme honek (besteak ez baititu ezagutzen) aldakuntza handia ekarri diola, bai eta onerako ekarri. Eta ni pozik horretaz. Nola ez, ba. Dena den, une jakin batzuetan pentsatu izan dut halako «bluff» bat ez ote zegoen film honen inguruan. Elementu «tipiko» edota «topiko» gehiegi, alegia: Lolita (sekula ez naiz haren zalea izango), «famosillo» bat edo beste (jende nardagarria ia beti), zuzenketa-giroa... Tira, oso aproposa Amerikan eta European ongi saltzeko. «Spain is diferent», badakizu. Nola edo hala, eta nire gogoko zinema izan ez arren, onartu behar dut filmak baduela originaltasunik, eta hainbat momentu on. Estetika bat, zaindua. Eta batez ere, gustu handiz aukeraturiko musika-soinuak. Merezi du ikustea, bai.

Área de servicio (V.O.S. Zuzend.: Allison Anders, 1992 – Cinematk).- Film polita, emakumeekin adiskidetzen zaituen horietarikoa, sana, sofistikazio handirik gabea baina asmoz oso ondo jantzia, samurra, errealismo petraletan sartu gabe eta abstrakzio pedantetatik urrun. Azken batean, hiru emakumeren istorioa: kontu itsusi batzuk, kontu polit batzuk... Tira, denok badakigu bizitza nolakoa den, ezta? Halako filmek zerbaitetan hobetzen laguntzen digute: gu geu, inguruan daukaguna, besteekin ditugun —ala ez ditugun— harremanak... Leiho bat beti irekita edukitzea bezala... Basamortura agertzen den leiho bat. Eta hor, bizi-kontuak borborrean...

Ipuiak eta kontutxoak, Ramon Artola (Auspoa, 180 orr.).- Asko gustatu zait bertsoz bertso abiatutako liburu zahar hau. Antza, Auspoak argitara emandako lehen liburua izan zen hau, eta nik hasiera batean hizkuntza-lekukotasun bat aurkitzea espero banuen ere, hori baino askoz gehiago topatu dut: bertsoz bikain kontaturiko alegia bikain batzuen bilduma. Ramon Artolak sen berezia zeukan zeregin horretarako. Beraz, euskaldun petoa izateaz gain, alegiak eta antzeko «kontubak» sortzeko abilitade aparta zuen. Benetan zorrotzak, graziosuak, jostagarriak... dira liburu honetan bertsoz biltzen eta kontatzen diren alegiak. Liburu bat zinez polita; zahartzen dakiten horietakoa. Euskal klasiko guztiak berdinak balira! Grazia bera balute! Tira, donostiarra izan behar liburuaren egileak. Egia esan, Donostiako euskaldunak beti izan dira pipertsu samarrak (zer izango litzateke gure Donostia ustelaz, haiengatik ez balitz).

Colgados en Los Ángeles (V.O.S. Zuzend.: M. Kaurismáki, 1998 – Cinematk).- Komedia atsegina, ustekabe asko gordetzen dituena. Nahiko originala da (ondoegi bukatzen bada ere). Gaztaroa dakar gogora. Gaztaroko indarra; gaztaroko amarrugabetasuna; gaztaroko ametsak, porrotak, arrakastak, ilusioak, harrokeriak... Amets polit bat, gaur batean jaio eta hil egiten dena. Poesia eta guzti du filmetxo honek. Amerikarren alde ergela jartzen digu agerian. Baina protagonista eskoziarra da —gaitzerdi!—. Bai, ziuraski zoriona horretan datza: ezertan ez; edota ergelkeriak egitean (ergela izatean!). Film hau bezala. Arina baita. Oso. Gauza guztiak bezala.

Deabruak egiten ditu akats tipografikoak. Horra zer gertatu zaidan Walt Whitman-en Belar-Hostoak liburu argitaratu berriarekin. Editoreak pasatako lehen alea eskuratu, irekitzen hasi eta... horra akats ulergaitz bat Eskaintzan bertan (eskaintza hau W. Whitman-en berak idatzia da eta Belar-Hostoak liburu ederrari ematen dio hasiera). “[... Zeren, hemen eta orain, arimaren eta gorputzaren izenean izenpetzen baditut, eta nire izena jartzen dut horien aurrean. [...].” Hori gaizki dago; esaldia ez da ulertzen. Hasieran, errua nirea zela pentsatu nuen. Baina harritu nintzen, hain baitzegoen agerian... Orduan, ordenagailuan begiratu eta bai nire artxi-boan bai editoreari pasatakoan ez zen agertzen akatsaren arrastorik; aitzitik, ongi azaltzen zen: “izenpetzen baitut”. Hau da, maketatzailerak testua ukitu eta esaldia aldatu zuen oharkabean (“d” letra erantsi zion “ba” eta “ditut” artean, berez kausala zen esaldia esaldi kondizional bilakatuz). Eskaintza hau letra larriz agertzen zen nik pasatako originalean; editoreak zuzentzeko igorri zizkidan probetan, ordea, larri xehez agertzen zen; eta gainera, ordena aldatuta zegoen, ez zen errespetatzen prosak nire bertsioan zeukan itxura, bertso librearen itxura alegia (prosa arrunta balitz bezala agertzen zen jarrita). Orduan, eskaintza zuzentzeko esan nion, eta berak hala egin zuen. Zoritxarrez, testua tekleatu behar izan zuten horretarako, eta horra liburu guztia ia pikutara bidali duen akatsa. Gainera, agertzen den bezala, ez dirudi akats tipografikoa denik, itzultzaileak gaizki sorturiko esaldia baizik (“se le hizo la picha un lío”, esango du baten batek esaldia irakurrita). Eta liburuaren hasieran bertan dagoenez, horrek kolokan jartzen du liburuaren sinesgarritasuna. Baina gauza bat esango dizuet: lan horretan jarri dudan arreta askok ez dute jartzen ezta bizitzeko ere. Eta liburu osoan, ez dut uste errata bakarra dagoenik ere, editoreak oparitu didana izan ezik. Horrez gain, badago olerki bat testua mugituta-edo daukana, “Irudiak” izenekoa, hori ere argitaletxearen opari. Dena den, kasu honetan testua ongi irakur daiteke. Gai-terdi...

“Gizaki zibilizatuak ez du luzaro jasaten zibilizazioa. Autosuntsitu egiten da (bere burua suntsitzen du). Zergatik? Ba... horrela egina dagoelako. Naturak hola sortu gaitu. Eginak gaude behin eta berriz hasteko, bai eta hutsetik hasi ere bai. Hori ala nazkaturik bizitzea (hiltzea). Ez dago beste aukerarik. Gure desesperazioaren esklabu gara. Barru-barruan daramagu. Zera: gure esklabu-sentimendua, gure esklabu-izaera. Mende batean, esklabuaren jabea gara; eta hurrengo mendean, jabearen esklabua. Sadomasokistak gara, baina bi gauza horiek batera. Edota lehengo bata eta bigarrenengo bestea. Horrelaxe, menderen mendetan. Judizioko azken egunera arte. Ez dago itxaropenik, baina aldi berean... itxaropen handiagorik! Dena eta ezereza. Heroia eta bilaua. Dikotomiaren esentzia bera gara. Hori ez bada gizatasuna —giza izaera— hatzekin ukitzea, hortzekin murruskatzea, ba orduan, azal diezadatela zer den”.

Goiko lerroak idatzi ditut “Giza Ezagutzari buruzko Ikerketa” —David Hume-ren liburua— irakurtzen ari nintzela. Eta egitan, horixe da liburu horretaz egin behar dudana aipu bakarra. Pentsamendu batek beste pentsamendu bati egiten dio zirika, egiten dio tira. Zenbait irakurraldiren zentzua hori da, tiratzea, besterik ezean. Orduan, non gelditzen da “edukia”? Auskalo, burmuinetako hustubideetan akaso. Gure ideiak, bidean biltzen ditugun ideiak (besteen ideiak), datuak, azalpenak... zaborra baino ez dira. Edo, nahi baduzue, elikadura hutsa (neutroa), ordu batzuk barru komunetik hustuko duguna, gorotz bihurtuta. Nik horri “pentsamendua” deitzen diot. Eta apurutzen banauzue, “pentsamendu nazionala” ere deituko diot, eraiketa-mota bat alegia (har ezazu nahi duzun bezala, zinismo-adierazpidetzat, zorrozkeriatzat ala zabarkeriatzat. Edo oraindik hobeto: har ezazu zaborkeriatzat, zaborkeria

bat gehiagotzat —niri gustatzen zaidan bezala—). Hau ez bada bizitzea, eta hiltzea beti...

Sonrisas de una noche de verano (V.O.S. Zuzend.: I. Bergman, 1955 – Cinematk).- Film zinez ederra, antzertiari asko zor dion hau. Elkarrizketa zoliak, zorrotzak eta burutsuak dira. Pertsonaiak, berriz, zini-koak orain, amarrugabeak gero... “Harreman Arrisku-tsuak” filma ekarri dit gogora, modu aski urrunean bada ere, noski. Banuen I. Bergman-en berri, nola ez. Baina nik uste baino zuku gehiago aterako diot zuzendari apart honek eskainitako zikloari. Gizakion grinak oso ongi islatzen eta satirizatzen dira “Udako gau bateko irri-ñoak” komedian. Film on guztiekin gertatzen den bezala, film honek ere uzten du halako nostalgia bat... seguraski idealizaziotik errealitatera pasatzeak min ematen duelako. Oso ulergarria denez... Ze pena, azpitu-tuak euskaraz irakurri ezin izatea.

La Sra. Parker y el círculo vicioso (V.O.S. Zuzend.: A. Rudolph, 1994 – Cinematk).- Film satirikoa, umore zorrotzekoa. Ederki girotua. New York-eko giro literarioa. Bohemia. Elkarrizketa jenialak. Giro literario guztiei darien ukitu dekadente horrekin. Neurri batean, “konstunbrista”, oso hironikoa. Idazleak izan ohi diren bezala erretratatuak: mihigaiztokoak, bekaiztiak, azalezkoak (gauza batzuetarako), berekoiak, amoralak... Deliziosoa. Musikala eta guzti. Aurpegi askokoa. Protagonista guztiak mozkorti samarrak (“Lege Lehorra”ren garaietan...) Baina, azken batean, pertsonak. Eta ordaindu behar dute prezio bat. Harrokeria beti ordaintzen baita garestitxo. Pozoia du batzuetan. Desenkantua. Gora ostia txarra!

Un verano con Mónica (V.O.S. Zuzend.: I. Bergman, 1952 – Cinematk).- Aire kostunbrista, mila zehazkizun hasieratik bertatik eskaintzen dituen, zuri-beltzean. Errealitate apur bat gordina aurrean jartzen diguna, gazteria eta... maitasun-istorio bat Europa berri batean: grinak, jelsiak, traizioak... Nik uste benetako istorioak horrelakoxeak direla. Errealismo handiz erretrataturiko bizipena. Dikotomia: gizona/zentzuduna eta emakumea/kaskarina. “Sonrisas de una noche de verano” film osoagoa iruditu zitzaidan, halere, “Un verano con Mónica” baino. Hala ere, film interesgarria da. Giza harremanen halako azterketa txiki bat da. Ikuspegi ezezkorra bizitzari buruz (baina guztiz ezezkorra ez). Nolabait esanda, Bergman-ek onartu egiten ditu bizitzako kolpeak eta ferekak, eta hori egiten du naturaltasun osoz.

El hombre de las estrellas (V.O.S. Zuzend.: G. Tornatore, 1995 – Cinematk).- Zeinen ederra eta samurra eta gogorra eta gozoa! Gizabanakoen dekalogo, bene-benetan. Non dago egia eta non gezurra? Non hasten da esperantza eta non desesperantza? Begirada gertzen zaigu ordea... Alde horretatik, “La Mirada de Ulises” izeneko filmaren gai nagusia ekarri dit gogora. Bai, begirada guztiak filmatu nahi zituen gizona. Kasu hone-tan, alproja bat. Bihotz oneko alproja bat, aurrerago begirada guztiorien esanahia ulertuko duena. Beranduegi...? Baina, ba ote da berandu zenbait gauza deskubritzeko? Film on guztiekin gertatzen den bezala, honako honek ere barruan sartzen zaitu, filmaren barruan sartzen zaitu alegia; eta bukatzen denean, orduan “gogorra” da errealitatera itzultzea, lo sakonetik esnatzea gogorra zaigun bezala. Idealizazioa. Lortu du. Filmak bere idealizazioa (artegintzaren helburua) lortu du. Zeinen ederra den zinema, ondo egina dagoenean...

El séptimo sello (V.O.S. Zuzend.: I. Bergman, 1956 – Cinematk).- Mistikoa, historikoa, naturalista... Makiabelikoa... Musika: Orff-en musikaren tankerakoa. Ironikoa (oso zorrotza). Gatazka erlijiosoa. Jarrera transzendentalak eta existentzialistak. Zentzurik gabeko existentzia. Jarrera filosofikoak. Ederki girotua. Poetikoa. Soinu oso ederrak eta egokiak. Danteskoa. Zirrargarria. Bihotza kizkurtzeko modukoa. Itxaropenik gabeko mundu bat: Erdi Aroa (aro guztietara proiektatua). Munduak eroetxea balitz bezala. Gehiegikeria pittin bat. Fedea. Fedearen krisialdia. Ankerkeria. Etsipena. Desesperazioa. Ikuspegi zinez ezkorra (amaieran itxaropen argi bat pizten den arte —benetakoa ote?—). Zinismoa. Umorea. Umore beltza. “Herioak: jakin gabe bizi naiz”. Oso film inteligentea.

Bideko prosak: Araba eta Bizkaia, L.M. Mujika Urdangarin (Hiria, 205 orr.).- Lehendik, beste liburu bat irakurri nion duela gutxi Mujikari, *Bideko prosak: Gipuzkoa*. Eta orduan jaso nuen inpresio berbera jaso dut oraingoan ere: Luis Mari Mujika Urdangarin euskal klasiko bat dela. Daukan euskara mendi bat hunkitzeko modukoa da. Eta klasikoa diodanean, “euskal klasiko”aren zentzuan diot, hitzaren zentzu unibertsean baino. Euskararen aldetik ezin zaio inori gehiago eskatu, erro sakonekoa landua eta jatorra baita idazle gipuzkoar honen euskara. Hori edonork daki (edo jakin beharko luke), Mujika zerbaitengatik baita Euskaltzaindiako kidea, euskaltzaina. Esaldi bat topatu dut, zinez hunkitu nauena, hauxe: [...] eta ni neu ere [...] erruinak (hondakinak) dituen eraikuntza baino ez naiz barrendik... [...]. Mujikaren poeta-sena beti erne. Mujika oso akademikoa da, ukitu jesuistiko garbia du. Beharbada, horregatik ez da —zorionez— oso aproposa bidaia laberintikoetan barrena galtzeko, edota infernuetarako jaitsiera literario-

etan bere burua katramilatzeko (denbora guztietako literaturan —eta batez ere gure egunotakoan— poetari eta literaturgileari exijitu izan zaien bezala). Hala ere, nik ez daukat inongo arazorik haren euskarak naraman tokietara bidaiatzeko eta haren euskara jantziak eruditoak eta ederrak aurrean jartzen dizkidan zoko-moko guztiak ezagutzeko, benetako plazerra eta ohorea baita halako euskara batez gozatzeko gai izatea. *Bideko Prosa* sail honetan bereziki jartzen da agerian Mujikaren tamaina, eta begi-bistakoa da XX. mendeko euskal klasiko handi baten aurrean gaudela. Belarriak gozatu nahi dituenak (hizkuntzaren estetika bilatzen duenak) badaki nora jo.